

**VII. GERRIKO  
IKERLAN SARIKETA**

**Goiherriko Euskal Eskola  
Maizpide Euskaltea  
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea**

**Zegamako euskara**

**Joxe Migel Azurmendi Albizu**

## GERRIKO IKERLAN SARIKETA

© Sortzailea:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte
Antolatzaileak:	<ul style="list-style-type: none"><li>• Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte Elosegi, 16, 1.a ezker. 20210-Lazkao Tfnoa.: 16 02 82</li><li>• Maizpide Euskaltegia Elosegi, 40-bis. 20210-Lazkao Tfnoa.: 88 92 31</li><li>• Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea Euskadi Enparantza, z/g. 20210-Lazkao Tfnoa.: 88 64 08</li></ul>
Koordinatzailea:	Mari Joxe Madariaga Irastortza (G.E.E.)
Zuzendari Zientifikoa:	Joxemartin Apalategi Begiristain Antropologo Soziala eta Euskal Kultura Garaikide eta Konparatuaren Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)
Argitaratzaileak:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea
Laguntzaileak:	Zegamako Udala eta Zegamako Kultur Etxea
Egileak:	Joxe Migel Azurmendi Albizu
Logotipoaren egilea:	Amaia Galarraga Urteaga
Azala:	Bixente Kerejeta Goena
Fotokonposaketa:	Mertxe Dorronsoro Mintegi
Inprimategia:	G. Lizarra, S.L. - Lizarra
I.S.B.N.:	84-922191-3-0
L.G.:	Na-539-1998

## JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric*, bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.

Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.



## SARRERA

VII. Gerriko Ikerlan-Sariketako fruituak, nahikoa eguzki goxo hartu ondoren, ondo heldutako fruituak, bitaminaz beteak, sasoikoak eta zure osasunari mesede besterik egingo ez diotenak dakarzkizugu, irakurle:

– *Jose Felix Amundarain Mujika (Zegama, 1755 - Mutiloa, 1825), Goierriko euskal idazle ezezaguna*

Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain, Iñaki Rezola

– *Zegamako euskara*

Joxe Migel Azurmendi

Gerriko Ikerlan Sariketako bilduman 12. eta 13. liburukiak izango dira honako hauek.

Uzta jasotzea nori ez zaio gustatzen? Gu geu ere noiznahi gaude horretarako prest. Baina, jakin ondo dakigunez, ereiten ez bada ez dagoela zer bildurik, egonean egon ordez, urte guztian etengabe aritzen gara lurra prestatzen (oinarriak argitaratzen), hazia ereiten (oinarriak zabaldu eta ikertzaileak lanean jartzen), ongariak botatzen (jasotako ikerlanak epaitu eta zuzentzen) eta, azkenean, uzta jasotzeko moduan izaten gara (liburuak!).

Ikerlanak egin dituztenenak dira liburuak, dudarik gabe, baina ezin aipatu gabe utzi bakoitzak bere arloan, isilean beti ere, lanean aritu den lan-taldea:

– Zuzendari zientifikoa:

Joxemiel Apalategi jn., antropologoa eta irakaslea.

– Epaimahaikideak:

Koldo Zuazo jn. filologoa eta irakaslea.

Iñaki Gaminde jn., filologoa eta irakaslea.

Jon Sarasua jn., kazetaria eta bertsolaria.

– Hizkuntza eta forma aldetiko zuzentzailea:

Dionisio Amundarain jn.

Argitaratu eta aurkezten dizkizuegun bi ikerlan hauek, gai aldetik ez dira erabat berriak GERRIKO ikerlan sariketetan, hau da, “Jose Felix Amundarain Mujika

liburua Goierriko idazleen liburu biografikoen artean laugarrena da, Juan Inazio Iztueta, Klaudio Otaegi eta Jose Ignazio Gerrikoren biografia eta obraren azterketen ondoren dator.

Filologi aldetik, berriz, Goierriko bi euskalki aztertu eta argitaratu dira sari-keta honetan: Ataungoa lehenengo eta Zegamakoa oraingo honetan.

Lau lan biografiko horien egileak ikertzaile berak izan dira, Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezola eta bi lan filologikoak egin dituena ere Joxe Migel Azurmendi ikertzailea.

Gai interesgarri horiek, beste bakar bat ere baztertu gabe, leku berezia hartu dute Goierri buruz argitaratu ditugun liburuen bilduman. Dena dela, aldi-aldi-ko epaimahaiak egindako azterketaren ondoren ondo merezitako saria ematea besterik ez dugu egin antolatzaileok.

Zorionak ikertzaile guztioi, bai sarituoiei eta baita saritu gabe geratutakooi ere. Segi lanean aurrera, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak Goierri buruzko bibliografia geroz eta zabalagoaren alde lanean jarraitzeko asmoa baitugu. Horretarako, VIII. edizioko oinarriak kalean dira eta hutsik egin gabe aurrera egingo dugu.

Lazkaon, 1997ko urrian.

**ANDONI SARRIEGI ESKISABEL**

GEE Kultur Elkarteko Lehendakaria

**MARIAN BIDEGAIN**

Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

**JOAN FELIPE BARANDIARAN GARMENDIA**

Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua

## AURKIBIDEA

<b>0. ATARIKOA</b> .....	13
<b>0.1. Ezaugarri orokorrak</b> .....	13
<b>0.2. Euskalkien sailkapena</b> .....	21
<b>0.3. Corpora eta berriemaileak</b> .....	22
<b>0.4. Eskerrak ematen</b> .....	24
<b>1. FONETIKA ETA FONOLOGIA</b> .....	25
<b>1.1. Bokalismoa</b> .....	25
1.1.1. Bokal luzeak .....	25
1.1.2. <i>a &gt; e</i> bilakaera <i>i/u</i> -ren eraginez .....	28
1.1.3. Hiatoen bilakaerak .....	30
1.1.4. Mendebaldeko hizkeren zenbait ezaugarri .....	31
1.1.5. Mendebaldeko hizkeretatik saihesten diren zenbait ezaugarri .....	32
1.1.6. Beste zenbait ezaugarri .....	32
<b>1.2. Kontsonantismoa</b> .....	33
1.2.1. Asimilazio bustidura .....	33
1.2.2. Ahostunen ondoko afrikatuen aldeko neutralizazioa .....	37
1.2.3. ‘Ez’ partikula eta aditz laguntzailearen arteko sandhietan gertatzen diren neutralizazioak .....	39
1.2.4. Hitz hasierako txetxekari afrikatua .....	40
1.2.5. Antzinako * <i>j</i> eta frikari belare ahoskabea .....	40
1.2.6. Hitz hasierako herskari ahoskabeak .....	40
1.2.7. Bokal arteko frikariantzeko ahostunen eta dardarkari bakunaren galera .....	40
1.2.8. Dardarkari anitzaren galera .....	41
1.2.9. <i>d &gt; r</i> bilakaera .....	41
1.2.10. <i>p</i> formadunak .....	41

1.2.11. <i>Ba(g)e</i> eta <i>gabe</i> .....	42
1.2.12. <i>Guzti</i> eta <i>guzi</i> .....	42
1.2.13. ‘*-ani > -ai’ eta ‘*-uni > ui’ .....	42
1.2.14. Txistukarien bi sailak .....	42
1.2.15. <i>Larru/narru</i> .....	43
1.2.16. Mendebaldeko hizkerekiko aldeak .....	43
1.2.17. Beste bilakaera batzuk .....	43
<b>2. MORFOLOGIA</b> .....	<b>45</b>
<b>2.1. Izenaren morfologia</b> .....	<b>45</b>
2.1.1. Izenordainak .....	45
2.1.2. Izenordain indartuak .....	46
2.1.3. Erakusleak .....	46
2.1.4. <i>Nor/zein</i> izenordain galdetzaileak .....	47
2.1.5. Izenordain zehaztugabeak .....	48
2.1.6. Hitz eratorriak .....	48
2.1.7. Hitz elkartuak .....	55
2.1.8. Eratorketa eta hitz elkarketaren artekoak .....	58
2.1.9. Beste egitura batzuk .....	59
2.1.10. Deklinabidean, <i>-a + a &gt; -ea</i> .....	60
2.1.11. Deklinabidea .....	61
2.1.12. Ergatibo pluralean, <i>-ak</i> morfema .....	64
2.1.13. Soziatiboaren morfema eta balioa .....	65
2.1.14. Destinatiboaren morfemak .....	65
2.1.15. Ablatiboaren morfemak .....	65
2.1.16. Motibatiboaren morfemak .....	66
2.1.17. Prolatiboaren morfema .....	66
2.1.18. Partitiboaren morfema .....	67
2.1.19. Hurbiltze adlatiboa .....	67
2.1.20. <i>Nola?</i> ’ eta <i>nolako?</i> .....	68
<b>2.2. Aditzaren morfologia</b> .....	<b>68</b>
2.2.1. Aditz laguntzailea .....	68
2.2.2. Aditz trinkoa .....	77
2.2.3. Aditz laguntzailearen alokutiboa .....	82
2.2.4. Aditz trinkoaren alokutiboa .....	85
2.2.5. Aditzaren pluralgileak .....	86
2.2.6. Aginteran, subjuntiboan eta ahalezkoetan, <i>egin</i> erroa ...	87
2.2.7. Partizipioetan <i>-gi</i> marka .....	88
2.2.8. <i>-atu &gt; -au</i> .....	88
2.2.9. <i>-itu &gt; -idu</i> .....	88
2.2.10. Laguntzailea beti partizipioarekin .....	88



## ARGAZKIEN OINAK

### MAPA:

Zegamako mapa: kokapen mapa. Etnogintza: L. del Barrio eta L. Zaldua. Zegamako Udala.

### ARGAZKIAK:

1. Frantzisko Azurmendi eta Tomasa Agirre beren seme-alabekin. Amaren besoetan Xabier Azurmendi. 1936ko argazki hau familiak utzitakoa da.
2. Xabier Azurmendi "Axariñe" (1935-1996) apaiztu zenean, 1961en inguruan. Familiak utzitako argazkia.
3. Rosario Azurmendi Munduate (1907-1994). Familiak utzitako argazkia.
4. Mazkieran Barrena, Zumalakarregi hil zen baserria. Argazkilaria: Axun Senar.
5. Fermin Arakama 26 urterekin. Gaur egun 65 urte dauzka. Familiak utzitako argazkia.
6. Jesus Alzaga zena. Familiak utzitako argazkia.
7. Hipolito Arrondo bere etxe aurrean. Argazkilaria: Joxe Migel Azurmendi.
8. Julio Azurmendi Olaegi (1934-1996) Garagartzan. Familiak utzitako argazkia.
9. Fermina Olaegi iloba batekin. Familiak utzitako argazkia.
10. Aizkorri, Zegamako mendi ezagunena. Argazkilaria: Joxe Migel Azurmendi.
11. Zegama. Paisajes Españoles. Zegamako Udalak utzitako argazkia.
12. Axariñe (Ikaitzko errota), Xabier Azurmendiren jaiotetxea. Argazkilaria: Joxe Migel Azurmendi.



2.2.11. Partzipioa <i>-ta</i> morfemarekin .....	88
2.2.12. <i>Ari izan</i> .....	89
2.2.13. Komunztadura .....	89
2.2.14. Aditz izenak .....	90
2.2.15. Sinkopak .....	90
2.2.16. <i>Igo</i> aditza .....	90
2.2.17. <i>Irten</i> aditza .....	91
2.2.18. <i>Behar</i> .....	91
<b>3. JOSKERA</b> .....	93
3.1. <i>Bi</i> zenbatzailea .....	93
3.2. Aditza galdegai denean .....	93
3.3. Galderetako <i>al</i> .....	93
3.4. Konpletiboak .....	94
3.5. Konparazio perpausak .....	94
3.6. Kausazkoak .....	94
3.7. <i>Ala</i> hautakaria .....	94
<b>4. HIZTEGIA</b> .....	97
4.1. Gipuzkerako eta inguruko hizkeretako hitzak .....	97
4.2. Mendebaldeko hizkeretikiko hurbiltasuna duten hitzak .....	97
4.3. Maileguak .....	97
4.4. Izenaren morfologia .....	97
4.5. Asteko egunak .....	98
4.6. Hilabeteen izenak .....	98
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	99
5.1. Erdialdeko eta mendebaldeko hizkeren arteko ‘zubi’ lana .....	99
5.2. Oinarrizko ezaugarriak .....	99
5.3. Gizpuzkerak sortutako berrikuntzak .....	99
5.4. Mendebaldetik aldentzen duten zenbait ezaugarri .....	100
5.5. Mendebaldeko hizkerekin bat datozen ezaugarri batzuk .....	100
5.6. Erdialdeko eta mendebaldeko ezaugarriak .....	100
5.7. Ataungo euskararekiko aldeak .....	101
<b>Eranskina 1</b> .....	103
<b>Eranskina 2</b> .....	113
<b>Eranskina 3</b> .....	133
<b>Laburdurak eta ikurrak</b> .....	169
<b>Bibliografia</b> .....	171



## 0. ATARIKOA

### 0.1. Ezaugarri orokorrak

#### 0.1.1. Zegamari dagozkion datu geografiko zenbait

Aizkorri oinetan kokatua, Zegama mendi arteko ibar bare eta lasaian hedatzen da, Oria ibaiaren ertzean.

35 kilometro karratuko herri honek, erdigunea eta lau auzo ditu: Arrieta, Barrenaldea, Goialdea eta Olaran. 1960-1970 hamarkadan, Erdiguneak 859 bizilagun zituen (427 gizonezko eta 432 emakume), Goialdeak 418 (232 gizonezko eta 186 emakume), Barrenaldeak 300 (168 gizonezko eta 132 emakume), Arrietak 290 (153 gizonezko eta 137 emakume) eta Olaranek 174 (79 gizonezko eta 95 emakume).


Mugakide, iparraldean Legazpi, Zerain eta Segura ditu; ekialdean, Segura eta Idiazabal; hegoaldean eta mendebaldean, Altzaniako Partzuergoa. Inguruko herri nagusienak, ordea, Beasain, Ordizia eta Altsasu dira; hiru herri hauetara dagoen distantzia, batz bestea, 15 kilometrokoa da.

Ingurunea guztiz menditsua da. Aizkorri mendikatearen gailurra eta lur garaienak Zegamakoak dira; besteak beste, Aizkorri (1.528 m) eta Aratz (1.444 m). Zegamako mendiak dira Arranoaitza (885 m), Oramendi (865 m) eta Marina (783 m) ere.

Aizkorri mendilerroak, kantauriar-mediterranean isurialdeak bereizten ditu. Honela, Otzaurteko etxe bateko teilatu batera iristen diren urak, Mediterraneora joaten dira alde batetik jaisten badira eta Kantaurira beste aldetik jaisten badira.

San Adrianen jaio ondoren, Oria ibaiak herria zeharkatzen du. Beste erreka batzuen urak jasotzen ditu, hala nola, Argaunda, Osina eta Arakama errekenak.

Zegamak dituen 2.598 Ha-tatik, 602 Ha nekazaritzarako erabiltzen dira, hau da, herriak dituen Ha guztietatik, nekazaritzarako % 23,2 erabiltzen dira. Nekazaritza-abeltzantzari dagokionez, hamabost bat artzain daude; horietatik zortzi bat artzantzatik bizi dira. Baserritik, berriz, lau baserritar bakarrik bizi dira. Herritar gehienek industriagintzan (batez ere Goierriko beste herrietako eta Altsasuko enpresetan) eta zerbitzu sektorean lan egiten dute.













### 0.1.2. Biztanleria

1996. urteko erroldaren arabera, Zegamak 1.351 bizilagun ditu. Azken ehun urteetako biztanlegoaren bilakaera hauxe izan da:

URTEAK	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981
Bizilagunak	2054	2007	1870	1803	1882	1858	2043	1752	1540

EUSTATen eskutik, Goiekik emandako datuen arabera, azken urteetako bilakaera ondokoa izan da:

URTEAK	1981	1986	1991	1996
Bizilagunak	1536	1464	1399	1351

(Datu iturria: EUSTAT)

Biztanlegoa sexuaren arabera banatuz gero, bien arteko erlazioa oso parekatua agertzen da, hau da, gizonezko eta emakumeen kopurua antzekoa da.

Adin taldeen arabera, talde handiena 20 eta 64 urte artean dagoen segmentua da. Bestalde, 19 urtez beheko taldea gero eta txikiagoa bihurtzen ari da, 65 urte baino gehiagoko segmentua handiagotzen den arabera.

Datu horiek kontuan hartuta, esan daiteke populazio hau zahartze bidean dagoela. Beraz, Zegamako gizartea, gizarte heldu bezala kalifika daiteke. Herri honetako 65 urtetik gorakoen proportzioa Gipuzkoako batz bestekoaren gainetik dago, eta 19 urtetik beherakoena, berriz, azpitik.

Hona hemen 1981, 1986, 1991 eta 1996 urteetako adinaren araberako joera:

URTEA	1981	1986	1991	1996
<19 urte %tan	28,6	24,2	21,9	
20-64 urte %tan	58	60,5	60,1	
>65 urte %tan	13,4	15,3	18	23,5

(Iturria: EUSTAT; eta GOIEKIk 1996-97an egindako estudioa)

Zahartze bilakaerari dagokionez datu zehatzagoak ere eman daitezke: 65 urtez goiko 328 bizilagun daude, %eko 23,5; h.d., lautik bat 65 urtez goikoa da.

Zegamako eskolatuen mailari dagokionez, 10 urte edo gehiagoko adina dutenak hartuz eta 1991ko datuak aztertuz, honako sailkapena egin daiteke:

IKASKETAK	KOPURUA	%TAN
• Lehen mailakoak edo gutxiago	920	73
• Lanbide ikasketak	159	12,6
• 2. mailakoak	103	8,2
• Erdi goi-mailakoak	32	2,5
• Goi-mailakoak	47	3,7

Datu horien arabera, talde esanguratsuen lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenena da (%73ko portzentaiaz; EAEkoa, %60koa da). Nekazaritza inguruneko herrien ezaugarria da hori, nekazaritza tradizioa duten herrien adierazgarria.

Ogibideari dagokionez, jada aipatu dut zegamar gehienek industriagintzan (Zegamatik kanpo) eta zerbitzuetan lan egiten dutela. Beste ogibide aipagarriak lehen sektorea (% 9,3z) eta eraikuntza (% 2,8z) dira.

Hezkuntzari dagokionean, hamabi urterarte baizik ezin da Zegaman bertan ikasi. Hamabi urtez goiko haurrek, Beasaina edo Goierrri lanbide-ikastetxera joan behar dute ikastera.

### 0.1.3. Euskararen egoeraz zenbait datu<sup>1</sup>

1986. urteko erroldaren arabera, Zegamako 1.008 bizilagunek (Erdiguneko 574k; Goialdeko 145ek; Barrenaldeko 134k; Arrietako 119; eta Olarango 36k) 9-10 urtetik gora zeukaten; kontaketa egiterakoan, 1977an edo beranduago jaiotako zegamarrak ez ditut kontuan hartu.

1.008 haietatik 940 bizilagunek euskara zuen lehen hizkuntza; 41ek gaztelera; bi hizkuntzak, 25ek eta bik beste hizkuntza bat (portugaldarrak ziren, hain zuzen). Auzoen arabera, Erdiguneko 532 bizilagunek euskara zuten lehen hizkuntza; 26k gaztelera; 15ek biak eta batek beste hizkuntza bat. Goialdean: 134k euskara zuen lehen hizkuntza; 4k gaztelera eta 7k biak. Barrenaldean: 122k euskara zuten lehen hizkuntza; 9k gaztelera; 2k bi hizkuntzak eta batek beste hizkuntza bat (portugaldarra zen hau ere). Arrietan: 116 bizilagunek euskara zuten lehen hizkuntza; 2k gaztelera eta 1ek bi hizkuntzak. Eta Olaranen, azkenik: denak (36 bizilagunek) euskara zuten lehen hizkuntza.

Beti ere urte hartako datuen arabera, euskara ulertu, 964 lagunek ondo ulertzen omen zuten (Erdiguneko 549k; Goialdean 134k; Barrenaldean 122k; Arrietan 116k eta Olaranen 36 lagunek). Zailtasunez ulertzen omen zuten 12 lagunek (Erdiguneko, 9k, Goialdean 2k eta Arrieta auzoan 1ek), eta 32k batere ez omen zuten ulertzen (Erdiguneko 16k; Goialdean 4 bizilagunek; Barrenaldean 10ek; Arrieta auzoan 2k).

<sup>1</sup> 1986. urteko errolda esku artean erabiltzeko izan ditudan erraztasunak direla eta, eskerrak eman nahi dizkiet, berriz ere, Asun Mendizabal alkateari eta Edurne Albizu Udaleko idazkariari.

Hitz egin, berriz, 958 zegamarrek ondo hitz egiten zuten (Erdigunean 543; Goialdean 139; Barrenaldean 124; Arrietan 116 eta Olaranen 36). Zailtasunez, 14 lagunek hitz egiten omen zuten (Erdigunean 11; Goialdean 2; Arrieta auzoan 1). Eta azkenik, 36 lagunek batere ez omen zuten hitz egiten (Erdigunean 20; Goialdean 4; Barrenaldean 10; Arrieta auzoan 2).

Irakurri eta idatzi, 450 zegamarrek ondo egiten omen zuten; 506 lagunek zailtasunak zeuzkaten irakurri eta idazteko eta 52k ez zuten ez irakurtzen ez idazten.

Esku artean erabilitako datuen arabera, zera esan dezakegu:

- Zegamar gehien-gehienek euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dute.
- Lehen hizkuntza euskara duten zegamar guzti-guztiek euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dute.
- Lehen hizkuntza gaztelera edo 'beste bat' dutenek, aldiz, bakarren batzuek euskara zailtasunez ulertzen badute ere, gehien-gehienek batere ez dute ulertzen eta are gutxiago hitz egiten.
- Lehen hizkuntza gaztelera eta euskara, biak, dituztenek, salbuespenak salbuespen, gaztelera bakarrik ulertu eta hitz egiten dute.

## 0.2. Euskalkien sailkapena

Koldo Zuazok (1989b: 648 eta 1994: 361) hiru multzo nagusitan banatu izan ditu euskalkiak:

- a. Ekialdekoa: zubererak, ekialdeko behe-nafarrerak, erronkarierak eta zairaitzuerak osatua.
- b. Erdialdekoa: lapurterak, iparraldeko goi-nafarrerak eta gipuzkerak osatua. Mendebaldeko behe-nafarrerak eta aezkerak bi multzo hauen arteko 'zubi' lana egiten dute.
- c. Mendebaldekoa: gaurregun Bizkaiko eta Deba arroko hizkerek osatua, baina aintzina Arabako eremu gehienez eta, beharbada, Burgosen eta Errioxan erabili zena.

Mendebaldeko multzo honen zenbait ezaugarri gipuzkeran eta Nafarroa Garaian (Burundan, Sakanan eta, hegoaldeko, Lana haranean eta Ameskoan, hau da, Arabarekin muga egiten duten lurraldeetan barneratzen dira.

Araba eta bizkaieraren eremutik gertu dago Gipuzkoako Goierrri ere, non, 'Ataungo euskera' lanean ikusi bezala (Azurmendi 1997), mendebaldeko ezaugarri zenbait barneratzen diren.

Oraingo honetan Zegamako euskara dut aztergai. Bere ezaugarriak ekarri nahi ditut hona eta, ahal bada, baita Ataungo euskararekiko aldeak ere. Horixe litzateke azterlan honen helburua.

### 0.3. Corpora eta berriemaileak

Lan hau burutu ahal izateko, Xabier Azurmendi zenak *Egan* aldizkarian (1992-94) argitara emandako kontakizunetz eta berak eskuz esku utzitako beste batzuez baliatu naiz. Xabierri eskerrak eman beharrez nago, beraz.

Esku artean izan ditudan kontakizun horiek guztiak *Atzoko Zegama* izeneko liburuan argitaratuko dira laster. Hemen jaso ditudan adibideen iturria aipatzera-koan, ahal izan dudana guztietan dagoeneko argitaratutako lanen datuak eman ditut soilik. Besteetan, *Atzoko Zegama*-n soilik agertzen diren adibideetan, orrialdearen zenbakiaren ordean kontakizunaren izenburua ipini dut.

Aztetu ditudan kontakizunen bila, Xabier Azurmendik honako berri-emaile-enganaz jo zuen<sup>2</sup>:

- Joana Agirre
- Jose Agirre
- Rikardo Agirre
- Tomasa Agirre
- Jose Mari Agirrebaltzategi
- Justo Aldanondo
- Eusebio Alustiza
- Jose Alustiza
- Jesus Alzaga
- Joan Apaolaza
- Agustin Arakama
- Fermin Arakama
- Joana Arakama
- Jose Arakama
- Jose Mari Arakama
- Jose Antonio Arakama
- Juliana Arakama
- Lorenzo Arakama
- Maria Arakama
- Pedro Mari Arakama
- Iñaki Aranzadi
- J.D. Ariztimuño
- Prantxika Arratibel
- Andres Arrieta
- Jose Arrieta
- Pedro Arrieta
- Donato Arrizabalaga
- Hipolito Arrondo

---

<sup>2</sup> Berri-emaileen zerrenda honetarako, esku artean izandako testuetako grafia apur bat egokitu beharrez izan naiz, pertsona beraren izena ere bi eratara idatzita agertzen baita sarritan.

- Jose Mari Aseginolaza
- Isabel Aseginolaza
- Angeles Azurmendi
- Bernardino Azurmendi
- Franzisko Azurmendi
- Josepa Azurmendi
- Julio Azurmendi
- Martin Azurmendi
- Ramona Azurmendi
- Rosario Azurmendi
- Santiago Azurmendi
- Franzisko Berasategi
- Joan Patxi Garmendia
- Jose Andres Gorrotxategi
- Emilio Gutierrez
- Eduardo Irastorza
- Jose Irastorza
- Ramon Larrea
- Anastasia Larrea
- Marzelino Lasa
- Jesus Mazkieran
- Maria Mujika
- Gregoria Munduate
- Jose Munduate
- Inazio Muñoa
- Andres Oiarbide
- Norberto Oiarbide
- Santiago Oiarbide
- Andres Oiarzabal
- Jose Ollariko
- Antonio Ormazabal
- Jose Ormazabal
- Maria Ormazabal
- Doroteo Otaegi
- Hermenejildo Otaegi
- Roman Otaegi
- Jose Sagarrola
- Inazio Urbizu
- Julian Urbizu
- Migel Urbizu
- Erramun Zabaleta
- Joan Zabaleta
- Jose Mari Zabaleta

- Kalisto Zabaleta
- Maria Zabaleta
- Mari Karmen Zabaleta
- Nikolas Zabaleta
- Prantxika Zabaleta
- Ramon Zabaleta
- Antonio Zumeta

Nik neuk, Rufina Otaegirengana jo eta zenbait zalantza argitzeko baliagarri izan zait berarekin izandako elkarrizketa.

#### **0.4. Eskerrak ematen**

Liburu hau txukun prestatu (zuzenketa lanetan etab.) eta argitaratu ahal izateko, alde askotatik jaso ditut aholkuak eta era askotako laguntza. Lan horietan ibili diren guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiet.

Lehendabizi, eskerrak eman nahi dizkiet Gerriko Ikerlan Sariketako ardura-dun guztiei eta, bereziki, koordinatzaile lanetan diharduen Josepa Madariagari. Era askotako laguntza eskaini baitidate.

Eskerrak ere Zegamako Udalari. Lanean diharduenaren poz handiena bere lana argitaratuta ikustean datza, eta horretarako behar-beharrezko laguntza Udal horrexek eskaini baitit. Eskerrak, bada, Axun Mendizabal alkateari eta Edurne Albizuri, eman dizkidaten erraztasunengatik eta laguntzagatik.

Eskerrak ere zuzenketa lanetan lagundu didaten Pilartxo Etxeberria eta Iñaki Gaminderi. Baita Dionisio Amondaraini ere.

Beti lagun eta aholkulari izan dudan Koldo Zuazori zuzenketetan hartu duen ardura eta lan eskerka eskertu nahi dizkiot.

Xabier Azurmendi zenari, berari zor baitizkiot ‘Zegamako testuak’ eta laster argitaratuko den ‘Atzoko Zegama’ izeneko altxor hori. Eskerrak eman zizkidan erreztasunengatik ere eta, zoritxarreko gaixotasunak eta heriotzeak halaxe nahi izan zutelako, gauzatu ezin izan genituen gure egitasmoengatik.

Eta eskerrak urte luzeetan nire aldamenean izan ditudan guraso, senide eta hurbilen izan ditudan lagunei (Edorta, Jota, Karlos, Joserra, Xabier, Pelos, Beltza, Motza, Euken... eta abar luze horri), beren laguntzarik gabe ere inoiz ez baitzen gauzatuko lantxo hau.



## 1. FONETIKA ETA FONOLOGIA

### 1.1. Bokalismoa

#### 1.1.1. *Bokal luzeak*<sup>3</sup>

Barandiaranek Ataunen jasotako testuetan bokal luzeak egonkortasun eta sistematikotasun handiaz agertzen diren arren (Azurmendi 1997), Zegaman bestelako joera da nagusi, hau da, bokal luzeak laburtu egiten dira oro har. Hala eta guztiz ere, noiz behinka agertzen dira. Nik aztertu ditudan testuetan, honako ingurune hauetan aurkitu dut:

##### 1.1.1.1. Antzinako ‘h’ bat antzematen den adibideetan

*aal, aarie, aaztu, beera, leenbailen, mee, naasi, oola, saatsa, zaagi, zaartu...*

Gehienetan, ordea, adibide berberak bokal laburraz agertzen dira: *al, len* ‘lehen’, *bekon* ‘behekoan’, *zarra* ‘zaharra’, *arie* ‘aharia’, *aztu* ‘ahaztu’, *mea* ‘mehea’, *beti* ‘behetik’, *zagik* ‘zahagiak’, *nastuta* ‘nahastuta’...

##### 1.1.1.2. Bokal arteko frikariantzeko ahostun bat edo dardarkari bat (bakuna edo aniztuna) galtzearen ondorio

###### 1.1.1.2.1. V -b- V:

1.1.1.2.1.1. Bokal arteko kontsonantea galdu ondoren, honako adibideak aurkitu ditut: *iraazi, zaaldu* ‘zabaldu’, *akaaui, kontraando* ‘kontrabando’, *Ormazaalek*.

Askotan, ordea, bokal luzea laburtu egiten da eta, ondorioz, adibide bera bi eretara ere sarri agertzen da: *irazi* ‘irabazi’, *akauta* ‘akabatuta’, *Ormazaldi* ‘Ormazabaldik’...

1.1.1.2.1.2. -a bokalaz amaitzen den hitz-oina + *bat, batzuk, bakoi-tza*: *anka’at* ‘hanka bat’, *ur tinta’at, besta’atzutan* ‘beste batzuetan’,

---

<sup>3</sup> Xabier Azurmendiren testuetan txapeltxo batez (*â, ê, î, ô, û*) agertzen diren arren, lan honetan luzapena bokala errepikatuz adieraziko dut (*aa, ee, ii, oo, uu*).

*denda'aten, pañuelokara'at, errota'atea, koadrilla'akoitzek* 'kuadrilla bakoitzak'...

**1.1.1.2.1.3.** -a bokalaz amaitzen den hitz-oina + *bazter*: *erreka'azterra*.

**1.1.1.2.2.** V -d- V:

**1.1.1.2.2.1.** Bokal arteko kontsonantea galdu ondoren, honako adibide hauek azaltzen dira bokal luzeaz: *baa* 'bada', *baauzke* 'badauzka', *baalle* 'badabil', *baazpare* 'badaezpada ere', *sortuko'o* 'sortukodu', *asko'o* 'asko du', *aitukoo* 'adituko du', *ze izango ete'ek* 'zer izango ote duk', *ordenea* 'auket' 'ordena daukat'...

Sarritan, ordea, bokala laburtuta agertzen da: *ba* 'bada', *baki* 'badaki', *bauket* 'badaukat', *bauzkula* 'badauzkagula', *bamatzte* 'badaramatza'...

**1.1.1.2.2.2.** Kanpo sandhietan, bilakaera ezagunen ondoren bokal luzeak agertzen dira ondoko inguruneetan:

**1.1.1.2.2.2.1.** Aditz izena + laguntzailea: *ikuste 'en* 'ikusten dun', *ibiltze 'ek* 'ibiltzen duk', *botatze 'et* 'botatzen dut', *aurreatze 'et* 'aurreratzen dut', *eite 'ek* egiten duk'...

**1.1.1.2.2.2.2.** Aditz izena + ez + laguntzailea: *gordetze ezpazan* 'gordetzen ez bazen', *launtze ezpadio* 'laguntzen ez badio', *asmatze ezpazituen* 'asmatzen ez bazituzten'...

**1.1.1.2.3.** V -g- V: *saasti* 'sagasti', *paau* 'pagatu', *goor* 'gogor', *iitai* 'igitai'... Gehienetan, ordea, baita aipatutako hitzetan ere, bokala laburtuta agertzen da: *pauko* 'pagatuko', *gortzen* 'gogortzen', *itaie* 'igitaia'...

**1.1.1.2.4.** V -r- V: *etaa* 'atera', *ikaatu* 'ikaratu', *ardiik* 'ardirik', *zaa* 'zara, aditza', *gaa* 'gara, aditza', *bee* 'bere', *baatza* 'baratza', *kuutze* 'gurutze, *aantzak* 'arantzak'...

Adlatiboan, dardarkaria galdu ondoren askotan agertzen da bokal luzea:

**1.1.1.2.4.1.** Singularrean, hitz-oina '-a' batez amaitzen denean: *kamañaa*, *etxaolaa*, *plazaa*, *batzaa* 'baratzara'...

**1.1.1.2.4.2.** Pluralean *bazterretaa*, *belarritaa* 'belarrietara', *egurretaa*, *jentilletaa*...

**1.1.1.2.4.3.** Mugagabeen: *izotzetaa*, *uretaa*, *ximaurretaa*...

**1.1.1.2.4.4.** Izen berezietan: *Zeamaa* ‘Zegamara’, *Tolosaa*, *Urbasaa*, *Saraa*, *Iruxtaa*...

Bokal luzea sarritan laburtzen da, ordea: *eta* ‘atera’, *ikatuta* ‘ikaratu-ta’, *za* ‘zara’, *ga* ‘gara’, *ne* ‘nire’, *kutzea* ‘gurutzeta’... Baita adlatibotan ere: *ganbara*, *Ojaola*, *erreka*, *eun gutxita*, *etxaola*<sup>4</sup>, *taberna*, *ximaurreta*, *zerta*...

**1.1.1.2.5.** V -rr- V: *aatsalde*.

Bokal laburraz ere agertzen da: *sakristauek eta Errotorek Zeamako Elizea atsalden apaiñ-apaiñ utzi zuen*...(Azurmendi, X, 1993-1: 160)

**1.1.1.3.** **Zenbait izen eratorrik eta elkartuk:** *esaaldi*, *artaazi*, *urteero*. Baina bokal laburraz ere agertzen dira: *esaldi*, *urtero*...

**1.1.1.4.** **Lehen graduko erakusle plurala** oro har bokal laburraz agertzen den arren (*ok* ‘hauek’, *ogai* ‘hauei’, *ogan* ‘hauen’, *okin*, *otan*...), bokal luzea agertzen duen adibide bat ere jaso dut: *ootan* ‘hauetan’.

**1.1.1.5.** **V<sub>1</sub> V<sub>2</sub> > V<sub>1</sub> V<sub>1</sub> asimilazioaren ondorioz sortutako bokal luzeak** ugari dira: *een*, *eekin*... ‘euren, eurekin...’, *aatan*, *aatako*... ‘haietan, haietako...’, *Naparroko*, *oola* ‘honela’, *iitako* ‘hiretako’...

Sarritan laburtu egiten dira: *en*, *ekin*, *atan*, *ola*, *olakoik*, *Naparroko*, *itako*...

**1.1.1.6.** **Beste batzuetan, kontsonante bat galdu ondoren, V<sub>1</sub> V<sub>2</sub> > V<sub>2</sub> V<sub>2</sub> asimilazioaren ondorioz sortutakoak direla dirudi:** *noo* ‘nago’, *doo* ‘dago’, *bee* ‘bage, gabe’, *muun* ‘moduan’, *muuko* ‘moduko’, *eukoo* ‘edukiko du’, *boo* ‘badu’... Bokal laburraz ere sarri agertzen dira: *bek* (< *badek*, ‘baduk’), *eztauku* ‘ez daukagu’, *no* ‘nago’, *do* ‘dago’, *mukoa* ‘modukoa’, *mun* ‘moduan’, *be* ‘< bage, gabe’, *bo* ‘badu’...

**1.1.1.7.** **Edukiren adizkiak + -e pluralgilea:** *daukee* ‘daukate’, *ez taauzkee* ‘ez daukate’, *zeukeen* ‘zeukaten’.

**1.1.1.8.** Gehien-gehienetan, ingurune hauetan bokal laburra agertzen den arren, noizean behin **deklinabideko zenbait adibidetan** bokal luzea azaltzen da. Adibideak:

**Absolutibo plurala:** *sekretook*, *bankerook*, *zorriik*, *ostiala-zapatuuk*, *diruuk*...

**Genitibo singularra:** *suun* (*ondon*) ‘suaren ondoan’, *emakuma txarraan* (*etxea*), *kirtenaan* (*gañeen*), *otso zarraan* (*billa*)...

<sup>4</sup> *Bazkaltzea etxaola jun bear da ikusta gare gizona eskuti aizkorea soltau eziñda.* (Azurmendi, X., 1992: 179).

**Genitibo plurala:** *zapoon* (arteko).

**Datibo plurala:** *beatzi idi pareei*.

**Destinatibo plurala:** *elizgizonaandako*.

**Inesiboa:** *bizkarreen* (singularrean); *eskuutan* (pluralean).

**1.1.1.9. Azalpen garbirik ez daukan zenbat forma:** *aapi* ‘habia’ (behin izan ezik, beti *api*, bokal laburraz), *ekaarta*<sup>5</sup>, *Saadar* (top.), *Osintaa aldeañ*, *Urtzulaai* (behin izan ezik, beti ‘a’ laburraz), *Diinti*, *eztoo* (‘ez du’; behin izan ezik, *do*, *ezto*), *ez taauzke*, *eraañez* ‘eraginez’, *etoorko* ‘etorriko’, *naaien* ‘nahian’, *ooiturea*.

### 1.1.2. -a > -e bilakaera i/u bokalen eraginez

Bilakaera hau Nafarroa Garai gehianean, Gipuzkoako hegoaldean eta Bizkai-ko eremu gehianean betetzen da.

Zegaman ere, Goierri osoan bezala, mugatzailea egonkortasun handiaz ixten da absolutibo singularrean, ‘oi’ diptongoaren ondoren izan ezik. Morfema barruan, besteak beste, *eduki*-ren adizkietan sistematikoki burutzen da bilakaera hau.

#### 1.1.2.1. -i/-u + -a ingurunean.

**1.1.2.1.1. Hitz-oina -i edo -u bokalez amaitzen denean,** mugatzailea salbuespenik gabe ixten da absolutibo singularrean: *ingurue*, *iturrie*, *arpegie*, *sue*, *zakue*, *arakie* ‘adakia’, *pipie*...

**1.1.2.1.2. Hitz-oina ‘-ai’, ‘-ei’ edo ‘-au’ diptongoaz amaitzen denean** ere, mugatzailea ia salbuespenik gabe ixten da absolutibo singularrean: *jaie*, *sakristaue*, *gaue*, *alaie*, *uztaie*, *garaie*, *beie*, *odeie*, *anaie*, *itaie*... Salbuespena *gaztaia* da: *Ze izango’ek paa* ‘Zer izango duk bada’, *artzaien bati uretaa eroi zakon gaztaia*. (Azurmendi, X., 1993-1: 168) Absolutibotik at, singularreko beste kasuetan ere betetzen da aipatu bilakaera. Inoiz pluraleko kasuetan ere bai.

**Absolutibo pluraleko adibideak:** *artzaiek*, *etsaiek*, *bi anaiek*, *itaiek*...

**Ergatibo singularrean:** *sakristauek*, *artzaiek*, *etsaiek*...

**Ergatibo pluralean:** *artzaiek*, *zazpi anaiek*...

**Datibo singularrean:** *sakristauei*...

**Genitibo singularrean:** *etsaien*, *itaien*...

**Genitibo pluralean:** *artzaien*...

**Soziatibo singularrean:** *zataiekin* ‘palanka’, *itaiekin*, *anaiekin*...

**Instrumentalean:** *itaiez*.

---

<sup>5</sup> *Itzek itze ekaarta, Sa’ Martin Txikik apuestoa ei’ mentzien*... (Azurmendi, X., 1997-b, *San Martin Txiki* (Artoa nola erein))

Salbuespenak ez dira falta; adibidez: *artzaiai, anaiai* (datibo pluralean); *kristauan* (genitibo pluralean)...

Hona ekarritako datuen arabera, sinkretismo ugari antzematen da. Alde batetik, absolutibo singularra, ergatibo singularra eta plurala, hirurak forma berberaz agertzen dira. Gainerako kasuetan ere, singularrean eta pluralean forma berbera azaltzen da sarritan.

Nolanahi ere, goian aipatu ditudan salbuespenetan ikus daitekeenez, itxidurarik gabeko formak ere ez dira ezezagunak.

**1.1.2.1.3. Hitz-oina ‘-oi’ diptongoaz amaitzen denean**, aldiz, asimilazioa ez da inoiz gertatzen.

**Absolutibo singularrean:** *sermoia, biberioia, arratoia, sasofioa...*

**Absolutibo pluralean:** *elizkoiak, koltxoiak...*

**Ergatibo singularrean:** *morroiak, leoiak...*

**Datibo singularrean:** *morroiai, leoiai...*

**Genitibo singularrean:** *leoian...*

**Inesiboan:** *oian, sermoian...*

Salbuespena, beharbada, inesiboan sarritan agertzen den *goien*, itxiduraz, izan daiteke: *Tximinin kontra jartzen tzien arakik buruz gora bueltan bueltan, egur lodie bean jartzen tzan, mea beiz goien, meak gora errezago jasotzen tzien*. (Azurmendi, X., 1992: 173)

**1.1.2.2. -i/-u + C + -a ingurunean:**

Bokala nahiz diptongoaren ondoren, mugatzailea ia salbuespenik gabe ixten da: *utse, eiñe, egurre, ikazkiñe, auntze, lurre, sudurre, lapurre, eraztune, eantzune, illune, biune, fiñe, gultxurdiñe, sorgiñe...*

Absolutibo singularraz gainera, beste kasuetan ere gertatzen da bilakaera hau.

**Absolutibo pluralean:** *berdiñek, gaztiñek, sorgiñek, jakiñek, motillek, muñek, aleiñek, launek, ezteiek...*

**Ergatibo singularrean:** *erostunek, lertxunek, eraztunek, argiñek, motillek, urek, attek, bakoitzek...*

**Ergatibo pluralean:** *ikazkiñek, langillek, gaztiñek, aritzek, jentillek, launek...*

**Datibo singularrean:** *zaldunei, erdeldunei, iriñei, sorgiñei, motillei, attei, bakoitzei...*

**Datibo pluralean:** *sorgiñei, baina jentillai, itxidura burutu gabe.*

**Genitibo singularrean:** *eraztunen, birjiñen, sorgiñen, aritzen, talomotillen...*

**Genitibo pluralean,** itxiduraz nahiz itxidurarik gabeko adibideak agertzen dira aztertutako testuetan: *sorgiñen/sorgiñan, ikazkiñen/ ikazkinan, aritzen, motillan...*

**Soziatibo singularrean:** *attekiñ, autsekiñ, launtasunekiñ, antuxunekiñ*  
'anto(i)xina', *urekiñ*...

**Soziatibo pluralean:** *bi launekin, motillekin*...

**Destinatibo singularrean:** *miñendako*...

**1.1.2.3. Morfema barruan,** oro har, ez da bilakaera hau gertatzen. Hala ere, bada zenbait salbuespen:

**1.1.2.3.1. Eduki-ren adizkiak:** *(d)auket, dauke, dauzke, daukezu, dauzketzu; neuken, genduken, zeuken, zeuzkenak*...

**1.1.2.3.2. Izan-en adizkiak:** *di(r)e, zi(r)en, ni(n)tzen, giñen, baziñe*...

**1.1.2.3.3. -tza pluralgilea:** *gailtze* 'gabiltza', *zailtze* 'zabiltza', *dailtze* 'dabiltza', *zeiltzen* 'zebiltzan'; *itzek* 'itzak'...

**1.1.2.3.4. Adizkietan, lehen pertsonaren morfema (d)a:** *iek* 'hidak', *ien* 'hidan', *zien* 'zidan', *diezu* 'didazu', *diek* 'didak', *dien* 'didan'...

**1.1.2.3.5. Beste salbuespen bat:** *beintzet* 'behintzat'.

**1.1.2.3.6. Berezko -a ixten da inoiz:** *aĩne* 'adina', *atte Santu* 'Aita Santu', *atteñarrebai* 'aitaginarrebari', *gauze*... Oro har, ordea, ez da ixten: *gaziña adar, gaziña muskil, artixta benetakoa, makilla'at, makillatxoa, koadrilla bakoitzek*...

### 1.1.3. Hiatoen bilakaerak

Bi inguruetan burutzen diren aldaketak aztertuko ditut ondoren. Batetik, *-a + a > -ea* disimilazioa<sup>6</sup> eta bestetik, Bizkai-Gipuzkoetako hizkeretan *izan* aditzeo 3. pertsona singularrean gertatu ohi den *\*a + a > a* bilakaera.

#### 1.1.3.1. *-a + a > -ea*

Zegaman ere leku-denborazkoetan izan ezik, deklinabide singularreko kasu guztietan egonkortasun handiz burutzen da aipatutako bilakaera.

Absolutibo singularrean adibide ugari aurkitu ditut, besteak beste, ondokoak: *zakutxapea, kuadrillea, etxaolea, sarrerea, luzerea, zabalerea, goiagea, kamañea, ikazkintzea, su-kajea, enarea, Aketegiko damea, gauzea, otasortea, zerrea, palanke, diru poltsea, mezea, alkondarea, bolarea, bueltea*...

Ikusten denez, maileguetan ere salbuespenik gabe betetzen da aipatutako bilakaera. Gainontzeko singularreko kasuetan ere badira adibide franko. Esaterako,

<sup>6</sup> Bilakaera hau Bizkaian eta Deba arroan ez ezik, Araba osoan, Nafarroako Burundan eta, Gipuzkoari dagokionez, Itziar gaina eta Errezilen barrera Goierri hartzen duen eremuan ere betetzen da (Zuazo 1988:118 eta 1989a:24).

**Ergatibo singularrean:** *etxaolek, irteerek, koadrillek, neskek, peztek* ‘pezetak’, *zalkeek, zapatek...*

**Datibo singularrean:** *Aketegiko damei, errekei, neskei, sokei, zakutxapei, koadrillei* (baina baita *koadrillai* ere), *babei...*

**Genitibo singularrean:** *anken, erreken, etxaolen, gauzen, kaltzaden, koadrillen, segen...*

**Soziatibo singularrean:** *arnasekin, aizkorekin, kandleekin, palizekin, porrekin...*

**Instrumentalean:** *pikez.*

**Inesibo singularrean:** *txapeleen.*

Pertsonekin zerikusia duten hitzetan inoiz ere ez da betetzen disimilazio hau: *alaba, arrebai, amaiñarrebai, aittenarrebai...*

Pertsona bati buruz ari denean, ‘Ama’ hitza disimilaziorik gabe azaltzen da; txori bati (kukuari) buruz ari denean, berriz, *amea*<sup>7</sup> agertzen da.

### 1.1.3.2. *Izan aditzean, \*-a + e > a*

Bizkai-Gipuzkoetako hizkeretan agertzen den aldaera, *a* alegia, agertzen da Zegaman ere: *zan, zala, zalakon, zanen, dan, dala...*

Zenbatzaile orokorrean ere *a* agertzen da: *dana* ‘guztia’, *danak, danai, danan, danantzat, danantzako...*

### 1.1.4. *Mendebaldeko hizkeren zenbait ezaugarri*

**1.1.4.1. -el-a nahasketa.** *-a + a > -ea* disimilazioaren eraginez gertatzen da ondoko adibideetan: *andra gizon batzuk, suga, bela zaar bat* ‘bele zahar bat’, *besta ‘aten* ‘beste batean’, *lora oriz, baraaak* ‘bareak’...

Bigarren osagaiak *-kume* duten hitz konposatuetan, bi formak lehian agertzen dira: *emakumak* (baina baita *emakumeek* ere), *antxuma, antxumak* (baita *antxumeek* ere), *arkuma* (baita *arkume* ere), *txorikumak, xoxokumak...*

**1.1.4.2. Berezko -a bokala.** Gipuzkoan oso zabaldua dagoen joeratik aldentuz, *i* baten ondoan izan ezik, gainontzekoetan eutsi egin zaio: *makilla* ‘at ‘makila bat’, *makillatxoa; gauza aundie, gauza biun baten, gauzaik; gaziña adar mee bat; etab.*

Esan bezala, *i* baten ondokoa galdu egiten da, oro har: *bi anai, iru anai* (inoiz *anaie*<sup>8</sup> ere bai); *pazientzi geio; familik; burni gai pusketak, taloburnin; Galizi; etab.* Beste salbuespen bat: *promes ori.*

<sup>7</sup> *Amea arro arro ibiltzen da aapiñ ingurun, bee umeai jana ematen ai dien txorik zaitzen.* (Azurmendi, X., 1994-1: 185) Pertsona bati buruz ari denean, beti *ama, amak, amari...* agertzen da. Xabier Azurmendik berak baieztatu dit jokabide bikoitz hau.

<sup>8</sup> *Landatan zazpi anaie bizi mentzien.* (Azurmendi, X., 1993-2: 160 eta 1997-a: 147).

**1.1.4.3. *Izan aditza -a- erroaz agertzen da:*** *gaa, zaa, zate* ‘zarete’.

### **1.1.5. *Mendebaldeko hizkeretatik saihesten diren zenbait ezaugarri***

**1.1.5.1. \**Edun aditza -e - erroaz agertzen da:*** *det, dek, deu, dezu, dezue...*

Forma horien aldamenean, beste hauek ere azaltzen dira: *do, zon* ‘zuen’, *non* ‘nuen’.

**1.1.5.2. *Beltz<sup>9</sup>, ezur<sup>10</sup> (ezurretañokoa) ... agertzen dira Zegaman ere.***

**1.1.5.3. *Hitz hasieran, i-/u- txandatzea.*** Zegaman ere, *i-dun* formak agertzen dira soil-soilik: *illea, irten, iltzek, igari, izena, iriñei...*

Beti ere Mendebaldetik saihestuz, *utzi, gezurre, gutxi, etzan...* agertzen dira.

**1.1.5.4. *Dardarkari anitzaren aurrean, e > a bilakaera.*** Zegaman ere (eta Euskal Herri osoan) bilakaera honen lekukorik baden arren (*baztar, zuztarri, edarra* (baita *eder* ere), *igartzen, izardi, aztarketa...*), mendebaldeko hizkeretako *barri, bardin, txarri...* ez dira inoiz agertzen.

Oro har, ordea, *e-dun* formak agertzen dira: *ezker, eskerrak, okerrik, eguerdi...* eta, jakina, *berri, txerri, berdiñ*.

### **1.1.6. *Beste zenbait ezaugarri***

**1.1.6.1. *o > u bilakaera.*** Zenbait adibidetan, ondoko inguruetan gertatzen da:

**1.1.6.1.1. *Sudurkari aurrean:*** *nun, nundi, nungoa, nunbait.*

**1.1.6.1.2. *Dardarkari aurrean:*** *gurdinik.*

**1.1.6.1.3. *Beste adibide bat:*** *ullategi* ‘oilategi’.

***u > o bilakaera*** ere agertzen da. Adibide batzuk: *egoaldi* ‘eguraldi’, *igoal* ‘igual’, *kotxilloa, lengoaje, motil...*

**1.1.6.2. *eo > io bilakaera.*** Antza denez, indar handia du Zegaman: *arrazkio, onuzkio, ezkio; egon* aditzeko *nion, niok, zio* eta *zion* adizkiak (baina baita ere, *neon, zeok...*); *aurreaxio, bation* batek.

**1.1.6.3. *‘o-’ > Ø bilakaera:*** *men* ‘omen’.

‘ote’ren orde, mendebaldeko *ete* agertzen da beti.

<sup>9</sup> *Ikazkiñek arpegie beltz poltxikoa garbi.* (Azurmendi, X., 1992: 172)

<sup>10</sup> Mendebaldean *baltz* (orok. ‘beltz’) eta *azur* (orok. ‘(h)ezur’) agertzen dira.



#### 1.1.6.4. Diptongoen zenbait bilakaera

**1.1.6.4.1. ai > ei.** Inoiz, *-bait > -beit* gertatzen da: *norbeit, norbeitek, norbeiti; zerbeit*. Gehienetan, ordean, *-bait* agertzen da: *zenbait, zenbait-tek; norbaitek; nunbait; zerbait; nolabait; noabait* ‘norabait’.

**1.1.6.4.2. ai > i.** Adibide bakarrean aurkitu dut: *beziñ*.

**1.1.6.4.3. ei > ai.** Adibide bakarrean aurkitu dut bilakaera hau ere: *erain* ‘erein’ (baina *ereiten*): *Sa’ Martin Txikik artaazie bazeuken, baño noiz erain bear tzon etzekiñ*. (Azurmendi, X., 1997-b, *San Martin (Artoa nola erain)*)

**1.1.6.4.4. ei > oi:** *odoia* ‘hodeia’.

**1.1.6.4.5. Diptongo berriak:** *laixter, aizkenik, asteaizken*.

## 1.2. Kontsonantismoa

### 1.2.1. Asimilazio bustidura

Ataunen bezala (Azurmendi 1997), ‘i/j\_\_ V’ eta ‘i\_\_#’ inguruneetan albokoaren eta sudurkariaren bustidurak indar handia du Zegaman. ‘j\_\_ #’ ingurunean, aldiz, sudurkariaren bustidura sarritan gertatzen den bitartean, albokoa busti gabe agertzen da beti.

Ondoko orrialdeetan, lehendabizi ‘i’ bokalaren ondorengo bilakaerak aztertuko ditut eta bigarrenik ‘j’ bokalardiaren ondorengoak.

#### 1.2.1.1. i\_\_ V ingurunean:

**1.2.1.1.1.** Albokoaren bustidura ia erabatekoa da: *txillarrek, langillek, pillaizteko, illarakoa, billau, motillek, opille, illen* (baita *ileik* ere), *Motillo, iskanbillakiñ, txikillerie, illati, bazekilla...*

Bada, ordea, salbuespen bat edo beste: *ilintxie, zintzilika, ixilik*.

Morfema mugan ere gertatzen da asimilazio bustidura: *ibill-i, eabill-i, motill-ek, ill-errie, bazekilla* (bazekien + (e)la)...

Hitz elkartuetan ez dirudi asimilazio bustidura gertatzen denik: *gari-lasto*.

Erdal mailegu izatea, berriz, ez da oztopo bustidura gertatzeko: *eskillara, debille, jentille, milla, apopillo...* Hala ere, mailegu batzuk beti bustidurarik gabe agertzen dira: *milagro, kilo, dilubio, familie*.

**1.2.1.1.2.** Ingurune honetan, sudurkariaren bustidura ia erabatekoa da: *giñen, latiñez, jakiñe, iñola, ezberdiñe, iriñei, berdiñe, gurdiñik* ‘gordirik’, *ariñe, diñat, irakiñetan, makiña’at, argiñek, etzeukiñau, iñun, giñu-*

zen, miñendako, iñusturiketan... Salbuespena: *xinixteik*. Beharbada, hitz berean beste bustidura bat izateak eragozten du sudurkariaren bustitzea. Morfema mugan (*aundiña, gutxiña* ‘gutxi + -ena’ *nausiña...*), maileguetan (*kamiño, propiña, koziñero, botiñetan...* Salbuespenak: *minatan, tximinie, kantuan, jinaxitan, minixtro, peregrinazio...* eta bi eretara: *mastiñek* eta *mastinek*) eta izen berezietan (*Martiñek, Amiñagone, Iñaxi...* Salbuespena: *Asimini*) sarritan gertatzen da asimilazio bustidura. Hitz elkartuetan, ondoko bietan behintzat, busti gabe agertzen da: *idinarru, ardinarru*.

**1.2.1.1.3.** Hortzetako herskari ahoskabea, *t*, ez da inoiz bustitzen: *eskubitako, korritu, zitun, iturrie, jakiten, bitartea...*

Beheraxeago ikusiko dugunez, bustidura adierazkorraren kariaz bakarrik agertzen da palatalizatuta: *Mattolo, politte...*

**1.2.1.1.4.** Salbuespenak salbuespen, txistukari apikariaren orde, sabai-aurrekoa agertzen da: *ixurie, pixu* (baita *pisu* ere), *pixe, ixilik, txixarea, abixatzen...* Baita izen berezietan ere: *Ixidro, Bixente*.

Salbuespenak, zenbait mailegu berri dira: *bisagra, konpromiso, komisioko, kamiseta, permisoa, abisoa*.

**1.2.1.1.5.** Txistukari bizkarkaria bustidura markarik gabe agertzen da. Salbuespen bakarra, mailegu bat da: *txorixok*.

**1.2.1.1.6.** Afrikatueta, jatorrizko hobietako apikaria sarritan bustita agertzen da: *itxi, itxututa, itxumustun, itxoizak* ‘itxoin ezak’, *sitxatxurrez* ‘sits-atxurrez’... Bi eretara agertzen denik ere bada, ordea: *itsasoko / itxasoa*.

Morfema mugan, palatalizatu gabe agertzen da: *zorritsu, garrantzitsu*.

**1.2.1.1.7.** Hobietako bizkarkaria busti gabe azaltzen da beti: *itzai, itzik, garbitzen...*

### **1.2.1.2. i \_\_{C, #} ingurunean:**

**1.2.1.2.1.** Albokoa, gehien-gehienetan, busti gabe agertzen da ingurune honetan: *motil, ibil, jentil, opil, muskil, ilberrin, ibilbide, iltze, ibiltari, giltzazulo...*

Palatalizazioaz agertzen diren adibideak bi eretara agertzen dira: *ill/il; illberan/ilbera; ibilltzen/ibiltzen*.

**1.2.1.2.2.** Sudurkariaren bustidura hautazkoa da.

Soziatiboaren morfema, esaterako, bustita nahiz busti gabe agertzen da: *txorikiñ, eztarrikiñ, arekiñtze, errotarikiñ, talokiñ, ortzakiñ, garokiñ...* Busti gabe agertzen da, aldiz, ondoko adibideetan: *adarrakin, buztiñekin,*

*porrekin...* Bi eretara ere maiz agertzen dira: *onekiñ/onekin; nausikiñ/nausikin; urekiñ/urekin; egurrekiñ/egurrekin; berokiñ/berokin; batekiñ/batekin*; etab.

Genitiboaren marka ere bustita nahiz busti gabe agertzen da. Batzuetan, adibide bera bi eretara agertzen da: *axariñ; idiñ/idin; eztiñ...* Palatalizatu gabeko adibideak: *tximinin, aapin, zaurin, nausin, txerrin, eiztarin...*

Inesiboaren marka ere bi eretara agertzen da. Bustita azaltzen diren adibideak: *karobiñ, erleontziñ, pagadiñ, tximiñiñ, zauriñ, meza nausiñ...* Busti gabe, ondoko adibideak ditugu: *taloburnin, gurdin, aulkin, illargin, sagastin...* Eta bi eretara: *aapiñ/aapin; iturriñ/iturrin; erdiñ/erdin; sutegiñ/sutegin; begiñ/begin; azpiñ/azpin...* Izen berezien ondoren ere bustita nahiz busti gabe agertzen da: *Oñatin/ Legazpiñ.*

Deklinabidetik at, hitz amaierako sudurkaria palatalizatuta nahiz gabe azaltzen da. Palatalizazioaz ondoko adibideak agertzen dira: *irakiñ, agiñ, botiñ, iriñ...* eta, izen berezia, *Agustiñ*. Busti gabe: *ikazkin, gultxurdin, egin, baldin, zikin, osin...* Eta bi eretara: *eziñda/ezinda; jakiñ/jakin; eziñ/ezin; berdiñ/berdin*; etab.

Hitz barruko sudurkariak, azkenik, bustidurarik gabe agertzen dira beti: *ikazkintza, txingarra, inguru, mintsue...*

**1.2.1.2.3.** Hortzetako herskari ahoskabeduna aurkitu dudana adibide bakarrean, busti gabe agertzen da: *dit*.

**1.2.1.2.4.** Hitz amaieran, txistukari apikaria mailegu bakarrean agertzen da: *piñu insinis*.

Hitz barruan, bustidura hautazkoa da. Zenbait adibidetan bustita agertzen den bitartean (*pixka'at, ixten, tximixtek...*), beste batzuetan bustidurarik gabe dago: *iristen, iskanbillakin, kurriskaka, arriskoa*. Bi eretara ere sarritan azaltzen da: *xinixteik/ sinisteik; krixtauek/kristauan; txixtue, txixtulari/txistue*, etab.

Mailegu berriak ere, bustiduraz nahiz busti gabe agertzen dira: *trixte* (baita *tristetu* ere), *bixtan* (baina *Buenabista* eta *illunbistea* ere bai), *artixta, dixtantzia...* Bustidurarik gabe, berriz: *asistente, karlistan, istorik, pisten, txispa*.

**1.2.1.2.5.** Txistukari bizkarkaria aldaketarik gabe agertzen da: *bizkarren, berriz, arrizko...*

**1.2.1.2.6.** Afrikatuetan, jatorrizko hobietako apikaria, aurkitu dudana adibide bakarrean, busti gabe dago: *sits*.

**1.2.1.2.7.** Hobietako bizkarkaria ere aldaketarik gabe azaltzen da beti: *aritz, itz, zumitz, balitz...*

### 1.2.1.3. j\_V ingurunean:

**1.2.1.3.1.** Albokoaren bustidura ia erabatekoa da: *bazellen* ‘bazebilen’, *sallen* ‘sailean’, *pralle/fralle* (baita *fraile* ere), *alliau*<sup>11</sup> ‘ailegatu’, *uztail-len*, *ollok* ‘oilok’, *ebaitzaille* ‘ebakitzailea’, *malluka*, *zizallu*, *otsaille*... Askotan, aurreko adibideetan ikusten denez, bustidura eragiten duen bokalerdia galdu egiten da.

**1.2.1.3.2.** Sudurkariaren bustidura erabatekoa da: *gañen* ‘gainean’, *baño*, *laño*, *eiñe*, *zeñek*, *larrañe*, *eraiñez*, *aleiñe*, *oñez*, *muñek*, *apañe*, *eskeñi*, *amaiñarreibai* ‘amaginarrebari’, *Joxepaiñaxi*, *berrogeiña*... Askotan, berriro ere, bustidura eragiten duen bokalerdia galdu egiten da. ‘-(e)ra(i)no’ > ‘-año’ bilakatzen da beti: *puntaño*, *goraño*, *lepoaño*, *pagaiño* ‘pagadiraino’, *belaunetañokoa*, *erdiañoko*...

**1.2.1.3.3.** Hortzetako herskari ahoskabea, gehienetan, bustidurarik gabe agertzen da: *seituz* ‘segituz’, *aldeite*, *deitu*, *beitu* ‘begiratu’, *iruroeiti* ‘hirurogeitik’, *zenbaitek*, *zelaiti*, *lasaitu*, *Urtzulaitan*... Inoiz, ordea, bustita agertzen da: *eittea* (baita *eitea*, *eiten*... ere) ‘egitea’. Ondoko adibideetakoek bustidura adierazkorra dirudite: *atxona*, *attona* eta *aittona* ‘aitona’; *maittegia*, *matte* ‘maite’; *atte* ‘aita’...

**1.2.1.3.4.** Aurkitu ditudan adibide gehienetan, txistukari apikaria bustita agertzen da: *gaixok*, *maixue*, *garraxi*... Salbuespena, izen berezia da: *Paraison*.

**1.2.1.3.5.** Txistukari bizkarkaria, aldaketarik gabe agertzen da beti: *apai-ze*, *aizea*, *eizeako*, *keize*, *leize*...

**1.2.1.3.6.** Afrikatuei dagokienez, aurkitu dudana adibide bakarra bi eretara agertzen da: *jaitsi/jaitxi*.

**1.2.1.3.7.** Hobietako bizkarkaria, ia beti palatalizatu gabe azaltzen den arren, ondoko bi adibide hauetan bustita agertzen da: *atxur*, *sitxatxurre*.

### 1.2.1.4. j\_{C, #} ingurunean:

**1.2.1.4.1.** Albokoa busti gabe agertzen da beti: *gailtze* ‘gabiltza’, *dailtzu* ‘darabiltzazu’, *zail*, *zaildu*, *suil* ‘uretarako ontzi bat’...

**1.2.1.4.2.** Sudurkariaren bustidura ugari agertzen da hitz amaieran. Sarritan, gainera, forma bera bi eretara azaltzen da: *eiñ/ein*; *beñ/bein*; *aiñ/ain*; *zeñ/zein*; *eraiñ/erain*; *oaiñ/oain*, *laiñ/lain*, *eozeiñ/eozein*, etab. Bustiduraz agertzen dira ondoko adibideak ere: *etzeiñ* ‘ez zedin’, *apaiñ-*

<sup>11</sup> Ikus 82. oin-oharra.

*apaiñ...* eta busti gabe ondoko hauek: *aldein, otsein, Zerain, muin, oin, mingain, jarein, erein...*

Hitz barruan, berriz, gehienetan ez da bustitzen: *einkarik, gain-zelaiti, ainbeste, aindu* ‘agindu’, etab. Salbuespenak: *eiñdakok* (baita *einda, eindako* ere); *oañtxe* (baita *oaintxe* ere).

Hemen ere, bustidura eragin duen bokalerdia galdu egin da inoiz: *oañ, oañtxe* (baina baita *oaiñ, oain* ere).

**1.2.1.4.3.** Ingurune honetan, hortzetako herskari ahoskabearen bustidura ez da inoiz gertatzen: *noizpait, zerbait, zenbait, nunbait, noabait, nolabait, eztaiz* ‘ez dakit’...

**1.2.1.4.4.** Txistukari apikaria, bustiduraz nahiz busti gabe azaltzen da. Batzuetan, bi eretara ere agertzen da. Adibideak: *aixkirea* ‘adiskidea’, *jaixten/jaisten; laixter/laister, laisterka; Aixkoneta/Aiskoneta...*

**1.2.1.4.5.** Txistukari bizkarkariak, frikariak nahiz afrikatuak, busti gabe agertzen dira beti: *gaizto, aizkorea, naiz, Aizkorriko, zaizte, gaitz txarra...*

**1.2.1.5.** Orain arte aztertutakoei bustidura adierazkorrak gehitu behar zaizkie. Besteak beste, honako hauek bildu ditut: *Marttolo, Mattolo, Blax, xagu, bluxa, puxketa, axal* (baina *betazalak*), *errex, xaar, Bitto-rrek, politte* eta *politxe*, etab.

## **1.2.2. Ahostunen ondoko afrikatuen aldeko neutralizazioa**

Zegamako hizkeran, aipatutako ingurunean, neutralizazioak indar handia du.

Mailegu berrietan neutralizazioa ia erabatekoa da: *Frantzin, pazientzikin, probintzialak, kontzejal, konfiantzea, penitentzie, dontzella, erreberentzi, sustantzie, kantzontzillo, intzentsoa, dixtantzia, anuntziok, Lorentzon, kontsiderazio, kantsau, pentsau, kontseju, Alfonsok* (baita *Alfonso* ere)... Beste salbuespen bat: *Sansonen*.

Afrikatuen aldeko neutralizazioak indar handia du kanpo sandhietan ere.

### **1.2.2.1. Sudurkariaren ondoren**

**1.2.2.1.1.** ‘(O)men + aditza’ loturetan erabatekoa da afrikatuaren aldeko neutralizazioa: *mentzitorren* ‘omen zetorren’, *mentzetozen, mentzion* ‘omen zegoen’, *mentzeren* ‘omen zeuden’, *mentzekiñ* ‘omen zekien’, *mentzellen* ‘omen zebilen’, *mentzijotzen* ‘omen zihoazen’, *mentzon* ‘omen zuen’, *mentzien, mentzuen* ‘omen zuten’, *mentzitzen* ‘omen zituzten’, *mentziten* ‘omen zitzaizen’...

Salbuespenak: *menzaitze* ‘omen zabilta’, *menzan* (baina baita *mentzan* ere) ‘omen zen’.

**1.2.2.1.2.** ‘Partizipioa + aditza’ loturetan erabatekoa da afrikatuaren aldeko neutralizazioa: *eaman tzon* ‘eraman zuen’, *jakin tzon*, *ein tzitun*, *eaman tzion*, *jan tzon*, *otsein tzien*, *eran tzonean* ‘edan zuenean’, *jun tzien* ‘joan ziren’, *jun tzikon* ‘joan zitzaion’, *ein tzat* ‘egin zait’, *eon tzienen*... Sinkoparen ondoren ere, afrikatuaren aldeko neutralizazioa betetzen da: *ipin tzion* ‘ipini zion’, *ipin tzien*...

Ataunen bestelakoa gertatzen den arren (Azurmendi 1997: 76), Zegaman subjuntiboko adizkietan ere betetzen da aipatu neutralizazioa: *ein tzezan* ‘egin zezan’, *ein tzezen* ‘egin zezaten’, *eaman tzezan*...

**1.2.2.1.3.** ‘Aditz izena + laguntzailea’ ingurunean ia erabatekoa da neutralizazioa: *izkututzen tzikon* ‘ezkututzen zitzaion’, *eantzuten tzion* ‘erantzuten zion’, *bizitzen tzien*, *esaten tzate* ‘esaten zaie’, *irten tzuen*, *aitzen tziuat*, *patzen tzuenak* ‘pagatzen zuenak’, *moitzen tzanen*...

Bada hainbat salbuespen ordea: *gertatzen zon*, *jarraitzen zien*...

**1.2.2.1.4.** ‘Adizlaguna + adizki bat’ ingurunean ere, neutralizazioa ia erabatekoa da: *bizkarren tzola* ‘bizkarrean zuela’, *illun tzion* ‘ilun zegoen’, *aizkenetan tzan*, *gizentzen tzeuken*, *burun tzemarren* ‘buruan zerman’, *San Pedrokin tzijon*, *ontan tzellela*, *mendin tzeiltzela* ‘mendian zebiltzala’, *lotan tzerela* ‘lotan zeudela’, *Salamankan tzeukiat*, *garikin tzetorrela*...

Salbuespenak ez dira falta ordea: *abarkatan zemerrela* ‘abarkatan zeramala’, *dirukin zetozen*, *leundu bearren ziola* ‘leundu beharrean zegoela’, *errezatzen zijotzen*...

**1.2.2.1.5.** ‘Ezin + adizkia’ ingurunean neutralizazioa beti burutzen da: *ezin tzeiken*, *ezin tzion*, *ezin tzan*.

## 1.2.2.2. Albokoaren ondoren

Lau loturatan aurkitu dut afrikatuaren aldeko neutralizazioa.

**1.2.2.2.1.** ‘Al + adizkia’: *altzanea* ‘al zenera’, *al tzan*, *al tzon*, *al tzuen*, *al tzion*, *al tziouau* ‘al zioagu’...

**1.2.2.2.2.** ‘Il + laguntzailea’: *il tzan*, *il tzon*, *il tzuen*, *il tzitun*, *il tzien*... Honako adibide honetan ere, afrikatuaren aldeko neutralizazioa gertatzen da: *il tzorian*.

**1.2.2.2.3.** ‘Ibil (sinkopaz) + laguntzailea’: *ibil tzan* ‘ibili zan’, *ibil tzian*, *ibil tzikon*.

1.2.2.2.4. *Erabili*-ren adizkietan: *dailtzu* ‘darabilzu’, *dailtze*.

### 1.2.2.3. Dardarkariaren ondoren

1.2.2.3.1. ‘*Be(h)ar* + laguntzailea’: *bear tzola*, *bear tzien*, *bear tzuela*, *bear tzioat*, *bear tzioau*...

1.2.2.3.2. Sinkopetan: *ekar tzon*, (*e*)*tor tzikon* ‘etorri zitzaion’, *etor zaku* ‘etorri zaigu’, *etor tziñen*, *etor tzitan* ‘etorri zitzaidan’, *etor tzien* ‘etorri ziren’...

1.2.2.3.3. ‘IS + adizkia’ loturetan: *zer tzan*, *zer tzuen*, *zer tzeukiat*, *zer tzeuken*, *bi eper tzeuzkela*..

1.2.2.3.4. Hitz elkartu batean: *ipurtzulon*.

Gehien-gehienetan, ordea, ingurune honetan ez da neutralizazioa gertatzen: *sudurzuloti*, *Txakurzuloti*, *txondar zulo*, *lizar zotz*...

### 1.2.3. ‘Ez’ partikula eta aditz laguntzailearen arteko sandhietan gertatzen diren neutralizazioak

#### 1.2.3.1. Txistukari frikaria + txistukari frikaria > txistukari afrikatua

Salbuespenik gabe gertatzen da.

1.2.3.1.1. ‘Ez + adizkia’: *etzaa* ‘ez zara’, *etzan*, *etzat* ‘ez zait’, *etzako* ‘ez zaio’, *etzikon* ‘ez zitzaion’, *etzon* ‘ez zuen’, *etziola*, *etzitun*, *etzeiñ* ‘ez zedin’, *etzezan*, *etzak*, *etzekiñ* ‘ez zekien’, *etzeuken* ‘ez zeukan’, *etzemarrren* ‘ez zeraman’, *etzeok*, *etzetorrela*, *etzeren* ‘ez zeuden’, *etzeion* ‘ez zegion’ (ikus 56 eta 65 orrialdeak)...

1.2.3.1.2. ‘Instrumentala + adizkia’ ingurunean ere, hasierako txistukaria afrikatu egin ohi da: *nearrez tzeren* ‘negarrez zeuden’, *bildurrez tziola* ‘beldurrez zegoela’, *aundigok eiñez tzeillen*...

#### 1.2.3.2. Txistukaria + herskari ahostuna > herskaria ahoskabetu

1.2.3.2.1. ‘Ez + adizkia’ ingurunean, albuespenik gabe gertatzen da: *ez ta* ‘ez da’, *ez tet* ‘ez dut’, *ez tek*, *ez tola* ‘ez duela’, *ez teu* ‘ez dugu’, *ez tezu*, *ez tue* ‘ez dute’, *ez titue* ‘ez dituzte’, *ez tiala* ‘ez didala’, *ez diat*, *ez tiot*, *ez tio*, *ez tie*, *ez tait* ‘ez dakit’, *ez taki*, *ez teiñ* ‘ez dadin’, *ez to* ‘ez dago’, *ez tauket*, *ez tauzkee* ‘ez dauzkate’, *ez tijo* ‘ez doa’, *ez teziaola* ‘ez diezaiola’...

**1.2.3.2.2.** *'Ez + ba + laguntzailea'* ingurunean, ahoskabetze bilakaera erabatekoa da: *jute ez pazien* 'joaten ez baziren', *ez pazion* 'ez bazegoen', *ez pazitun* 'ez bazituen', *ez pazituen* 'ez bazituzten', *ez pazan*, *ez padio*, *ez padie*, *ez pazako* 'ez bazaio', *ezpagiñen*...

### **1.2.3.3. Txistukaria + sudurkaria > txistukaria galdu**

Bilakaera hau sarritan gertatzen den arren (*enallela* 'ez nabilela', *enauk*, *enion*, *enitzen*, *enon* 'ez nuen', *enaiiz*...), salbuespenak ere ugari dira: *ill ez naiñ* 'nadin', *ez nau il*, *ez noa*, *ez noo* 'ez nago', *ez nien*...

### **1.2.4. Hasierako txetxekari afrikatua**

Hego Euskal Herriko gainontzeko hizkeretan bezala, hasierako txetxekari afrikatua [č] agertzen da Zegamako hizkeran ere: *txorie*, *txerri*, *txintxo*, *txorutzen*, *txixarea*, *txakurre* (baita *zakur* ere), *txuri-txuri* (baita *zuri-zuri* eta *zuringo* ere)...

### **1.2.5. Antzinako \*j- eta frikari belare ahoskabea**

Gipuzkerari dagokion bezala, Zegamako hizkeran ere antzinako \*j-ren ordeztu frikari belare ahoskabea, [x] agertzen da: *jun*, *jatxi*, *jaso*, *jarri*, *jan*, *jantzi*, *jaiki*, *jaune*, *jo*, *jolas*, *jaulkita*...

### **1.2.6. Hitz hasierako herskari ahoskabeak**

Oro har, hitz hasieran herskari ahoskabea agertzen da Zegaman: *karraxika* (baita *garraxika* ere), *kaltzada*, *kaltzipurdi*, *kastau* 'gastatu', *keiza* 'gerezi', *kitarrea*, *kolkon*, *kolpea*, *kuutze* 'gurutze', *pago*, *pake*, *pekatu*, *pizteko*, *poltsea*, *poltisiko*, *potzu*, *pozik*, *putrea*...

Salbuespenak ez dira falta ordea: *barkazio*, *daatillu*, *gaziña*...

### **1.2.7. Bokal arteko frikariantzeko ahostunen eta dardarkari bakunaren galera**

Aipatu kontsonanteen galera sarritan gertatzen da:

**1.2.7.1. Frikariantzeko ezpainkari ahostunaren galera:** *proatzen*, *kaitu*, *ira(a)zi*, *zaaldu*, *zeiltzen*, *zeillen*, *dailtze*, *akaau*, *kontraando*, *Ormazaal*...

Kanpo sandhietan ere gertatzen da galera: *zaku* 'at' 'zaku bat', *alako* 'aten', *artzai* 'atek', *utzi* 'ezela' 'utzi bezala', *besta* 'atzutan'...



**1.2.7.2. Frikariantzeko horzkari ahostunaren galera:** *aixkirea, eo, etzeiñ, bek* (< badek), *euki, paga(d)i, baa, baaki, baauzke, baazpare, aierazten, ai...*

Kanpo sandhietan ere gertatzen da galera: *jango* 'ituk 'jango dituk', *sentitu* 'iñat, *erango* 'iña, *ikusko* 'ezu, *ikusko* 'itzezu, *ikusi* 'ik, *txarra* 'auke, *nola* 'ek 'nola duk'...

**1.2.7.3. Frikariantzeko ahostun belarearen galera:** *deun* 'dugun', *eune* 'eguna', *eongo, ein, etzeukinau, launekin, pau* 'pagatu', *diau, saasti, ziarro* 'zigarro', *ezezaune, atseiñe, goor, maalen, iitai, iruroei, Ormaiztei, nearra...*

**1.2.7.4. Dardarkari bakunaren galera:** *gaa* 'gara', *zaa, aitu* 'aritu', *kuutze* 'gurutze', *nee, bee, oañ* 'orain', *eamango, ikaatu, ee, geau* 'geratu', *tiau* 'tiratu', *eantzun...*

Adlatiboan, salbuespenik gabe galtzen da dardarkari bakuna: *Zeamaa, Andutzaa, Tolosaa, lapurretaa, Ojaolaa, kamañaa* 'a la cabaña', *etxaolaa, Elizaa, plazaa, arbolaa, Saraa, puntaa...*

### 1.2.8. Dardarkari anitzaren galera

Hitz batzuetan, dardarkari anitzaren galera gertatzen da: *beiz* (baita *berriz* ere), *aatsaldea* 'arratsaldea'.

### 1.2.9. D > r bilakaera

Sarritan burutzen da bilakaera hau: *aguro, aixkirea* 'adiskidea', *arakik* 'adakiak', *daren* 'dauden', *eran, zare* 'zaude', *zeren* 'zeuden'...

'-(k)ada > -(k)ara' bilakaera gertatzen da: *bolara, lautara, pasara, zartarea, eskukara, kazuelakara, pañuelokara, txapelkara, itaikara, miztokara, arrikarak...*

'-di > -ri' bilakaera ere aurkitu dut: *pagari* (eta *pagai*) 'pagadi', *gaztiñari*.

Inoiz, ultrazuzenketa ere burutzen da: *beida* (baita *beira* ere) 'begira'.

### 1.2.10. 'P' formadunak

Gipuzkoan eta bere ondoko hizkera nafar eta bizkaitarretan agertzen dira maizenik 'p' formadunak<sup>12</sup>.

Ataunen bezain ugari ez izan arren (Azurmendi 1997: 78), Zegaman ere 'f' formadunen ordeztu maiz agertzen dira 'p' formadunak: *parre, Naparroa, napparak, pranko, pesta, alper, alperrik, perie...* Bi eretara sarri agertzen da: *inpernu/infernu; fralle/pralle...* Baita ere f-z bakarrik ere: *afaldu, falta, famili...*

<sup>12</sup> Mitxelena, *FHV*, 263-264.

### 1.2.11. *Bage eta gabe*

Aztertu ditudan testuetan ia beti *bae* edo *be(e)* agertzen da:

- *Ez oolakoik eiñ, egur bae ta ardian abarolekuik bae gelditu ez gaitzen.* (Azurmendi, X., 1993-1: 156)
- *Barriolak iru ogi etaa zitun kapusaieen azpiti, iñor akordau bee dendarii-ri arrapau zionak.* (Azurmendi, X., 1993-2: 156 eta 1997-a: 144)
- *Jende asko errenta-diruk galdu ta errentak pau bee geatzen tzan.* (Azurmendi, X., 1993-2: 158. or. eta 1997-a: 145)

Baina *gabe* ere agertzen da:

- *Ikasi al dezakela ikasi gabe uzten donak.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Beste otoitz bat*)
- *Trumoi gabeko tximixtek egoaldi ona ekartzen do.* (Azurmendi, X., 1994-1: 196)

Ondoko adibideetan ere *gabe* agertzen da: *lotsagabe, eurigabe, ogigabe.*

### 1.2.12. *Guzti eta guzi*

Zegaman biak agertzen dira. *Guzi* azaltzen da ondoko adibideetan:

- *Bee aixkire guzik launtzen tzijokion.* (Azurmendi, X., 1993-1: 165)
- *zorue jo zonen baztar guzitaa beida jarri zan.* (Azurmendi, X., 1993-1: 174)

*Guzti* azaltzen da hurrengoetan:

- *Erri guztiko garik bear iza'mentzituen zaku ura betetzeko.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153)
- *Jentillek pagok zuztar da guzti etaa ta artu bizkarren da etxea eamate'-mentzitu.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Jentille*)

### 1.2.13. *-\*Ani > ai; -\*uni > ui*

Mendebaldeko hizkeretan izan ezik, Hego Euskal Herri osoan gertatzen den *\*-ani > -ai* bilakaera burutzen da Zegaman ere: *artzai, mandazai, arrai, amurrai.* Eta baita ere *\*-uni > -ui* ere: *ipui.*

### 1.2.14. *Txistukarien bi sailak*

Zegaman ere ondo bereizten dira txistukarien bi sailak: *salle* 'sail' / *zalle* 'zail', *su / zu, esker / ezker, sartzan / zartzan* 'zahartzen', *asi / azi, etab.*

Instrumentala Etxarri-Aranatzen bertan -s morfemaz azaltzen den arren, Zegaman, Ataunen bezala, -z morfemaz agertzen da: *kastiguz, ardi narruz, urez, bildurrez...*

### 1.2.15. *Larru / narru*

Ataunen eta mendebalde osoan bezala, Zegaman 'narru' agertzen da: *narrue, ardinarru, idinarru, katanarru, narrutu...*

### 1.2.16. *Mendebaldeko hizkerekiko aldeak*

Aztertu ditudan testuetan, gehien-gehienetan, Ataunen aurkitu genituen aukerak agertzen dira: *illargi* (mend. 'irargi'), *zillar* (mend. 'zilar, zidar'); baina *belarra*-ren aldamenean *bedarra* ere agertzen da; eta *illarrak*-ren aldamenean *igarrrak*.

Nire grabazioetan<sup>13</sup>, ordea, mendebaldeko aukerekin bat datozen formak jaso ditut: *bedarra* (orok. 'belar' / mend. 'bedar', 'berar'), *idarrak* (orok. 'ilar' / mend. 'irar', 'idar), *edurre* (orok. 'elur' / mend. 'erur, edur').

### 1.2.17. *Beste bilakaera batzuk*

**1.2.17.1. h > g:** *iges, igaz, igartu*. Adibide horiekin batera, *oligo* 'olio' ere agertzen da.

**1.2.17.2. b > p:** *zupie* 'zubia', *sapaie* 'sabaia'.

**1.2.17.3. r > d:** *badurrik* 'baraaurik'.

**1.2.17.4. k > Ø:** *eztait* 'ez dakit'.

---

<sup>13</sup> Besteak beste, 1911. urtean jaio zen RUFINA OTAEGIri egindako grabaketan. Nire ustez, gainera, forma hauek oso zabaldua daude Zegaman.



## 2. MORFOLOGIA

### 2.1. Izenaren morfologia

#### 2.1.1. Izenordainak

Aztertutako testuetan zehar, honako forma hauek agertzen dira:

##### 2.1.1.1. Lehen pertsona

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>ni</i>	<i>gu</i>
Erg.	<i>nik</i>	<i>guk</i>
Dat.	<i>nei, neri</i>	<i>guri</i>
Gen.	<i>nee, ne</i>	<i>gure, gue</i>
Soz.	<i>neekiñ, nekin</i>	<i>gurekiñ</i>
Dest.	<i>neetzako</i>	

##### 2.1.1.2. Bigarren pertsona

	<u>Singularra</u>		<u>Plurala</u>
Abs.	<i>i</i>	<i>zu</i>	<i>zuek</i>
Erg.	<i>ik</i>	<i>zuk</i>	
Dat.	<i>iri</i>	<i>zuri</i>	<i>zuei</i>
Gen.	<i>ire</i>	<i>zure, zue</i>	<i>zuen</i>
Dest.	<i>itako, itako</i>		<i>zuetako</i>

## 2.1.2. Izenordain indartuak

### 2.1.2.1. Lehen pertsona

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>neu</i>	<i>geu</i>
Erg.	<i>neuk</i>	
Gen.		<i>gere</i>

### 2.1.2.2. Bigarren pertsona

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>zeu</i>	
Erg.	<i>euk, eorrek</i>	<i>zeuk</i>
Dat.	<i>huri</i>	
Gen.	<i>eure</i>	
Dest.	<i>eutzat</i>	<i>zeondako</i>

### 2.1.2.3. Hirugarren pertsona

	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>erak</i>
Erg.	<i>erak</i>
Gen.	<i>eren, eraan</i>
Soz.	<i>erekiñ, eekiñ, ekiñ</i>

## 2.1.3. Erakusleak

### 2.1.3.1. Lehen gradukoak

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>au</i>	<i>ok</i>
Erg.	<i>onek</i>	<i>ok</i>
Dat.	<i>oni</i>	<i>auei, ogai</i>
Ines.	<i>ontan</i>	<i>ootan, otan</i>
L. gen.	<i>ontako</i>	<i>otako</i>
Adl. s.	<i>ontaa</i>	
Gen.	<i>onen</i>	<i>oan, ogan</i>
Soz.	<i>onekin</i>	<i>okin</i>
Mot.	<i>oneati</i>	<i>okati</i>

### 2.1.3.2. Bigarren gradukoak

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>ori</i>	<i>orik</i>
Erg.	<i>orrek</i>	<i>orik</i>
Dat.	<i>orri</i>	<i>oriai</i>
Ines.	<i>ortan</i>	<i>oritan</i>
L. gen.	<i>ortako</i>	<i>oritako</i>
Adl. s.	<i>ortaa</i>	
Abl.	<i>ortati</i>	
Gen.	<i>orren</i>	<i>orian</i>
Soz.	<i>orrekín</i>	
Dest.	<i>orrendako</i>	<i>oriandako</i>
Mot.	<i>orreati, orreatio</i>	

### 2.1.3.3. Hirugarren gradukoak

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>ure , ura, ua</i>	<i>ak</i>
Erg.	<i>arek</i>	
Dat.	<i>ari, arri</i>	
Ines.	<i>artan</i>	<i>aatan</i>
L. gen.		<i>aatako</i>
Gen.	<i>aren</i>	<i>agan</i>
Soz.	<i>arekiñ</i>	
Mot.	<i>areati</i>	
Dest.	<i>arentzat, arendako</i>	

### 2.1.4. Nor/zein izenordain galdetzaileak

NOR-en aztarnarik baden arren, gehien-gehienetan ZEIN agertzen da:

- *Landatan zazpi anaie bizi mentzien da zein baño zein indartsugok zazpirek.* (Azurmendi, X., 1993-2: 160 eta 1997-a:147)
- *Aizkenen etzuen jakin zein il tzan.* (Azurmendi, X., 1993-1: 161)
- *Zein dan baneki?* (Azurmendi, X., 1993-1: 161)
- *Zein tza zu?* (Azurmendi, X., 1997-b, *Dontzeila berezia*)

NOR-en erabilera ez da ezezaguna ordea<sup>14</sup>:

– *Leenbiziko lana pago'at eskuz nork etaako, mentzan.* (Azurmendi, X., 1993-1: 155)

NOR agertzen da ondoko esaera zaharretan ere:

– *Zaldik seguroana nork bee anak.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esaera, esaaldi eta atxotitz*)

– *Nork bere anak ditu mandoik seguroanak.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esaera, esaaldi eta atxotitz*)

### 2.1.5. Izenordain zehaztu gabeak

Ondoko egiturak aurkitu ditut:

**2.1.5.1. Izenordain galdetzailea + bait:** *norbeit, norbaitek, norbeiti; zerbeit; zenbait, zenbaitek; nunbait, nolabait; noabait; noiz pait.*

**2.1.5.2. E(d)o + izenordain galdetzailea:** *eoze(e)in, eozeiñi, eozer.*

**2.1.5.3. Baten bat-en erakoak:** *baten bat, baten batek, bation bat...*

**2.1.5.4. Izenordain galdetzailea + edo + izenordain galdetzailea:** *zeozer 'zer edo zer', zeozen.*

### 2.1.6. Hitz eratorriak<sup>15</sup>

#### 2.1.6.1. Izenak sortzeko atzizkiak

**2.1.6.1.1. Izen abstraktuen sortzaileak: -tasun, -dade, -keri(a)**

-TASUN:

Izenondoari lotuta agertzen da testu hauetan.

Aldaerak:

a) -tasun: *epeltasun.*

b) -dasun: *ondasune.* Silaba bakarreko 'on' izenlagunak '-tasun' atzizkia jasotzean, herskari ahoskabea ahostun bihurtzen da.

d) -asun: *osasune.* Hauxe litzateke aldaerarik zaharrena.

<sup>14</sup> Beste adibide hau ere agertzen da Xabier Azurmendik bildutako kontakizunen artean: *'Zeamako, Segurako ta Zeraingo kanpaiak batea aitu ezkie, anjelusetan eo matutikoon, au ai mendie esaten:*

*Segurakok..... Ezkondu al den.*

*Zeraingok..... Nor norekiñ.*

*Zeamakok..... Don Donakiñ'*

(Azurmendi, X., 1997-b, *Kanpaiak*)

<sup>15</sup> Atal honi buruzko xehetasun gehiago, Elixabete PEREZ GAZTELU, 1995, 983-1064 orr.



-DADE:

Aldaerak:

a) -dade: *umedadea, bakardade, formalidadea*.

b) -date: *borondate*.

Lat. *-tatem* > gazt. *-dad*. Eusk., berriz, *-tate* (*jakitae*, ekialdean) eta Zegamako testu hauetan aurkitu ditudan *-date* eta *-dade* agertzen dira.

-KERIA:

Izenari nahiz izenondoari erantsita agertzen da.

a) Izenari lotuta: *barrabaskeri, deabrukeri, umekeri*.

b) Izenondoari lotuta: *erokeri, gaiztakeri*.

-TZA:

Izenari erantsita agertzen da: *ikazkintza*.

-ERA:

Izenondoari lotuta agertzen da: *luzera, lodiera, zabalera*.

#### 2.1.6.1.2. 'Egile' -izenen sortzaileak: **-ari, -kin, -gile, -le** eta **-tzaile**

-ARI:

Izenari lotuta agertzen da.

Aldaerak:

a) *-ari: zerrari, kantari, tabernari, itari* 'igitari, igitai + ari', *pekatari, dendari, errotari, aintari*.

b) *-lari: ostikalari, txistulari, sermolari, aizkolari, jokalaria*.

c) *-tari: eiztari, ibiltari*.

-GIN:

Izenari lotuta agertzen da: *ikazkiñ, argiñ*.

-GILE:

Izenari lotuta agertzen da: *langille*.

-LE:

Aditzoinari lotuta agertzen da: *egille, egosle, eragille, eskale, irabazle*.

-TZAILE:

Adibideak: *banatzallea, billatzalle, biltzalle, ebaitzalle, emantzaille, erostzalle, eskatzaile, galtzalle, kapatzallea, lixibajotzalle, saltzalle*.

-LE atzizkia bezala, aditzoinari erantsita agertzen da. Baina hura 'egin', 'eskatu', 'egosi' eta 'irabazi' aditzei lotuta azaltzen den bitartean, hau 'erosi', 'bilatu', 'ebaki'... aditzei eta A[IS + A<sup>16</sup>] egiturari lotuta aurkitu dut.

---

<sup>16</sup> 'Jo' aditza, hain zuzen.

**2.1.6.1.3. 'Multzoa' adierako izen-sortzaileak: -di, -tegi, -eria, -kada**  
-DI:

Izenari lotuta agertzen da: *pagari, gaztiñari, sagasti, piñudi*.

-TEGI:

Izenari erantsita agertzen da: *arategi, erlategi/erletegi, ollategi, sutegi, txerritegi, autstegi...*

-ERIA:

Adibidea: *txikilleria*.

-KADA:

'-kara' aldaera agertzen da, betiere izenari erantsita: *eskukara, kazuelakara, pañuelokara, txapelkara, ozkarea...*

Ondoko adibideetan ikusten denez, kantitatea adierazten agertzen da: *pañuelokara 'at ontzako urre, kazuelakara aie 'ahia', txapelkara 'at anima, eskukara 'at gari, eskukara 'at lur...*

**2.1.6.1.4. 'Tresna' edo 'baliabide' -izenen sortzaileak: -garri, -ki**

-GARRI:

Izenak eta izenondoak ere sortzen ditu. Izenak sortzeko, ondoko adibideetan aditzoinari erantsita agertzen da.

Bi aldaera:

a) -garri: *aldagarri, asegarri, betegarrie, erregarri, gustagarrie, tapagarrie...*

b) -karri: *lokarri*.

Izenondoari lotuta ere agertzen da: *biungarri*.

-KI:

Aditzoinari lotuta agertzen da: *estalki*.

**2.1.6.1.5. 'Objektua/produktua' adierako izenen sortzaileak: -ki, -ko, -ari.**

-KI:

Izenari lotuta agertzen da: *txerriki, txakurki*.

-KO:

'Gorputz-atala' + -ko > Izen bizigabea 'jazkia': *oñetako, soñeko*.

-KARI, -ARI:

Adibideak: *bazkari, gosari, janari*.

**2.1.6.1.6. 'Gauzakia/ekoizpena' adierako izen sortzaileak: -kizun, -kin.**

-KIZUN:

Aditzoinari lotuta agertzen da: *gertakizun, etorkizun, lotsakizun*.

-KIN:

Aditzoinari lotuta agertzen da: *errekiñe*.

**2.1.6.1.7.** ‘Garaia’ adierazten duen atzizkia: **-te.**

-TE:

- a) Batetik ‘eguraldi-giroa’ adierazten duten izenetan agertzen da: *ekaiz-te, leorte, izozte, sekote...*
- b) bestetik ‘denboraldia’ adierazten duen izenetan: *gerrate, negute, sute.*

**2.1.6.1.8.** Aditzoinari erantsiz, ‘ekintza/ondorioa’ adierako izen sortzailerak: **-era, -izo, -men/pen (-mentu), -zio, -keta, -kada, -dura.**

-ERA:

- a) Batzuetan ‘ekintza’ adierazten du: *akabera, asiera, galdera, irterek, partiera, sarrera.*
- b) Besteetan ‘ekintza-modua’: *egoera, esaera.*

-IZO:

Adibide bakarra aurkitu dut: *pasaizo.*

-MEN/-PEN (-MENTU):

Aldaerak:

- a) -men: Adibide bakarrean, aditzondoari lotuta agertzen da: *baimena.*
- b) -mendu: *sufrimentu, moimentu.*
- d) -pen: *iruipen.*

-ZIO:

Erator-oinarria aditzoina da: *kontsiderazio, kontestazio, fundizio, debozio, amorrazio, txikizio, barkazio, estimazio, peregrinazio, operazio, orazio, salbazio.*

-KETA:

Aldaerak:

- a) -keta:

Batetik, oinarrian ‘aditzoina + Nor-Nork’ daukaten adibideak urkitu ditut: *garbiketeta, goldaketeta, aztarketa, aldaketa.*

Eta bestetik, oinarrian ‘Izen + konkretua’ daukatenak: *izketa, berriкета, zorriketa, indaurketa*<sup>17</sup>.

- b) -eta:

Aditzoinari lotuta: *lapurreta.*

-KUNTZA:

Erator-oinarria ‘Nor-Nork’ erako aditzoina da: *ebakuntza.*

-KADA:

‘-kada’ nahiz ‘-kara’ aldaera, beti izenari lotuta agertzen dira: *ozkada, itaikara, miztokara, arrikarak, makilkadak.*

---

<sup>17</sup> *Induabea edo babarruna jaulkitzea omen da indaurketa.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153).

-DURA:

Aditzoinari erantsita, ‘-tura’ aldaera agertzen da: *oitura*.

### 2.1.6.2. Izenondo sortzaileak

#### 2.1.6.2.1. Jatorrizkoa: **-tar**

-(T)AR:

Erator-oinarria izen berezia edo izen arrunta da: *Antimuñotarrak, atzerritar, baserritar, eliztar, kaletar, kanpotar, naparra, oñatiarra, tolosar, urtsoandar, zeamar...*

#### 2.1.6.2.2. ‘Joera-zaletasuna’ adieraziz: **-koi**

-KOI:

Izenari lotuta agertzen da: *elizkoi*.

#### 2.1.6.2.3. ‘Gaitasuna’ adierakoa: **-garri**

-GARRI:

Adibideak: *amorragarri, bildurgarri, biungarri, estalgarri, gustagarri, ikaragarri, ikusgarri, kontsolagarri, neargarri, zoragarri...*

Atzizki metaketa gertatzen da inoiz: *osasungarri* (-(t)asun + -garri).

#### 2.1.6.2.4. ‘Jabegoa’ adierakoak: **-dun, -tsu/- (t)zu**

-DUN:

Adibide gehienetan oinarria izena da: *aurdun, brilludunek, erdeldun, euskaldun, illedun, kapadun, ostodunek, zaldun...*

Aditzoinari ere lotzen zaio: *erostun*<sup>18</sup>.

-TSU/(T)ZU:

Izenari lotuta agertzen da: *aizetsue, aldapatsu, antzeatsu, arriskotsu, berdintsu, garrantzitsu, indartsu, jakintsu, kakatsu, lañotsu, mintsu, mukizu, sagartsue, zorritsu...*

### 2.1.6.3. Aditzak sortzeko atzizkia: **-tu**

-TU:

Oinarriaren kategoria:

• [Iz. / izond.] + TU

- a) Izenari erantsita: *argitu, bildurtu, deitu, giltzau, gosaldtu, gosetu, ikau* ‘ikaratu’, *ingurau, izarditu, izoztu, kargau, kontau, laundtu, narrutttu, nausittu, nazkau, nekau, odoldtu, perratttu, suertttu, umetttu, zauritttu, zigortttu, zulau...*

---

<sup>18</sup> *Euskaldun, erdeldun* eta *erostun* izen moduan agertzen dira.

b) Izenondoari lotuta: *aberastu, arrotu, berotu, berdetu, berritu, biundu, garbitu, elbarritu, gizendu, goortu, goritu, gozau, larritu, lasaitu, leundu, librau, ondu, oztu, pobretu, sekau, sobrau, triste-tu, txikitu, tontotu, ustu, zaildu...*

• **[IS. + -ra/ -gana] + TU**

Adibideak: *aldeau* ‘alderatu’, *atzeau, aukeratu, aurreau, bereanau* ‘beregianatu’, *gertuau* ‘gerturatu’, *konturau, menderau, ondorau, oatu* ‘oheratu’...

• **[+zenbatzailea] + TU**

Adibidea: *banau* ‘banatu’.

• **[+izenordaina] + TU**

Adibidea: *alkartu*.

• **Osorik mailegatutako aditzak**

a) Bokalen aldakuntzaz egokituak: *beinkau* ‘bedeinkatu’, *kaitu* ‘ka-bitu’, *estenditu, korritu, adoratu, enbarazau...*

b) Kontsonanteen aldakuntzaz egokitua: *ametitu*.

d) Gehienak, ordea, atzizkiaren eransketa soilaz egokitu dira: *salbau* ‘salbatu’, *esplikau, akordau, kantau, tiau* ‘tiratu’, *kontestau, deskantsau, pau* ‘pagatu’, *disparau, presentau, konformau, bajau, deklarau, sentitu, saneau* ‘saneatu’, *tragau, tokau, pentsau...*

#### 2.1.6.4. Aditzondo sortzaileak: **-ka, -to/-do, -ki, -z**

**-KA:**

Bost egitura aurkitu ditut:

• **Izena + -ka:** *arnaska, arrika, bueltaka, burlaka, deadarka, erreguka, garraxika, golpeka, indarka, kargaka, kurriskaka, malluka, miauka, mururka, oiuka, oska, ozka, saltoka, tontorka, zatika, zaunkaka, zotinka...*

• **Zenbakia + -ka:** *millaka*.

• **Zenbakia + na + -ka:** *banaka*.

• **Aditzoina + -ka:** *amilka, egaka, igeska, ixilka, joka, seika* ‘segika’, *tiraka...*

• **Izenordaina + -ka:** *ika*.

**-TO/-DO:**

Adibideak: *obeto, ondo*.

**-KI:**

Adibideak: *ederki, gaizki, poliki...*

**-Z:**

Adibidea: *berriz/beiz*.

Inoiz, -z eta -ka, biak agertzen dira: *galdezka*.

### 2.1.6.5. Atzizki txikigileak: **-txo, -sko**

-TXO:

Adibideak: *aberetxo, adartxo, amatxo, amonatxo, andratxo, antxumaxo, elorritxo, errekaxo, lañotxo, lapurretaxo, loalditxo, makillaxo, sastrakaxo, txikitxo...*

-SKO:

Adibidea: *ollasko*.

### 2.1.6.6. Eratorpen inguruak

#### 2.1.6.6.1. Zenbatzaileak: **-kote, -na, -garren**

-KOTE:

Adibidea: *bikote*.

-NA:

Adibidea: *bana, berroeiña*.

-GARREN:

Adibideak: *bigarren eta biarren, irugarren eta iruarren, seigarren, beartzigarren...*

#### 2.1.6.6.2. Atzizki gisakoak: **-t(z)eko**

-T(Z)EKO:

Adibidea: *arritzekoa*.

#### 2.1.6.6.3. Aditz erazleak

Hiru egitura agertzen dira:

- **Aditzoina + arazi /erazi:** *galerazteko, a(d)ierazten, etaa erazten.*
- **Partizipioa + era(g)in:** *sartu erain.*
- **-ra-:** *eaman 'eraman', erabaki, erain, erantzun, erakutsi, erantsi...*

### 2.1.6.7. Aldaketa morfofonetikoak

– Hitz amaierako bokala + -a:

a) -a + a: *zerrari, pelotari*

b) -e + a: *nekeu ('neke' + '-atu'), librau, luzau, erlategi...*

d) -o + a: *gaiztakeri, ostikalari ('ostiko' + '-lari'), ollategi, zorau... baina erokeri.*

e) -u + a: *kantari, pekatari, ingurau, kontau...*

– ai + -ari: *iitari.*

– aizkora + -lari: *aizkolari.*

– eliza + -tar: *eliztar.*

eliza + -kor: *elizkor.*

- Ahoskabetze bilakabidez, txistukariaren ondoko herskari ahostuna ahoskabe egiten da: *ikazkin, sagasti...*
- Herskari aurreko txistukari afrikatua frikari bihurtzen da: *izketa, ikazkin, izozte, ekaizte...*
- ‘lot-‘ + -garri’: *lokarri*.
- ‘on’ ‘-tasun’: *ondasun*, sudurkariaren eskuinean, herskari ahoskabea ahostundu egiten da.

### 2.1.7. Hitz elkartuak<sup>19</sup>

Jaso ditudanak bi atal nagusitan sailkatuko ditut: 1. Izen elkartuak eta 2. Sail bereziak.

#### 2.1.7.1. Izen elkartuak

##### 2.1.7.1.1. Izen elkartu kopulatibo arruntak

###### 2.1.7.1.1.1. Dvandak

Indiar gramatikalarriak ‘Dvanda’ (bi eta bi) deitu zituzten hitz elkartuok maila berean dauden kategoria gramatikal bereko bi osagaiz eratuak dira. Hitz elkartuok osagaien kategoria gramatikala izango dute.

Izen arrunt elkartuak:

- bi izen arrunt bizidunez osatuta daudenak: *ama-alabak, amasemek, andra-gizonak, arremek, osaba-illobak, neska-motillek, seme-alabakiñ, senar-emazteak...*
- bi izen arrunt bizigabez osatuta daudenak: *ostiala zapatutan, bizkar-burue*.

**2.1.7.1.1.2.** Hitz elkartu kopulatibo atributiboak: *astaemea, astarra, basurde eme, erlemandoa, ollarraak,ugarra...*

###### 2.1.7.1.1.2. Aposizioak:

Izen arrunta [+gizakia]:

- Pertsona izenak diren ondoko adibideak: *Zatarain meikuk, Joanito abadea, Joanito apaize, Joanito txixtulari, Joan Soldadu, Erraimundu Sakristauek, Patxi errementarie, San Miel aingerue, Ama Birjine, Atte Santua, Kaspar txistu, Antton errota...*
- Izen bizigabea adierazten dutenak: *Aezkoa menditako, Ezpeleta erria, Zubieta baserrie, Uztan errekea...*

<sup>19</sup> Atal honi buruzko xehetasun gehiago, Azkarate, 1990.

- Jaun edo andre osagaia daramaten izen elkartuak: *meiku jaun-ne, parroko jaunak...*

#### 2.1.7.1.1.4. ‘Subsumtive’ motakoak:

- Bi osagaiak bizidunak direlarik, izen biziduna adierazten dute: *arkume, emakume, txerrikume, erlekume, txorikuma, astakuma...*
- Osagaiak bizigabeak izanik, izen bizigabeak adierazten dituzte: *Barriola izeneko, Joxepaiñaxi izena, Joan izeneko, keiza arbola, piku arbola, aran arbola...*

#### 2.1.7.1.2. Menpekotasunezko izen elkartu arruntak

##### 2.1.7.1.2.1. Mugakizuntzat izena duten menpekotasunezko izen arruntak:

###### 2.1.7.1.2.1.1. ‘Subjektu-Objektu’ mota.

- Ergatiboak- Absolutua -zertu ‘Egilea’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *lixiba otsa, tiro otsa, txistu otsa, trumoi golpe...*
  - Izen biziduna + izen bizigabea: *bela otsa* ‘belea, txoria’.
  - Osagai atzizkiduna + izen bizigabea: *zaunka otsa.*
- Ergatiboak- Absolutua -zertu ‘Edukia’
  - Izen biziduna + izen bizigabea: *artalde, erle talde, idi pare, katu mordo, gizon mordo, sits pilla, ikazkin kua-drilla...*
- Ergatiboak- Absolutua -zertu ‘Iturburua’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *aitzulo, arbola zulo, aritz zulo, giltzazuloti, ipurtzulo, pareta zulo, poltxiko zulo, sudurzulo, zakil zulo...*
- Ergatiboak- Absolutua -zertu ‘Zatia’
  - Izen biziduna + izen bizigabea: *idinarru, ardinarru, ardi ximaur, auntz baba...*
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *bide ertze, soro baztar, bide baztar, mendi baztar, erreka baztar, ondar ale, baatzuri aleek, artaburu, etxaburu, bizkar-burue, arbi buru, besaburu, atalburu, gaztiña ostoa, gaztiña morkotsa, erramu adar, arbola adar, makal enbor, arbola enbor, gaztiña adar, arta-morkola, gaztiña muskil, mats luko, kaltzipurdi, atxur kirten, betazal, azkazal...*

###### 2.1.7.1.2.1.2. ‘Subjektu- adizlagun’ mota

- Erg./ abs. -leku kasua -zertu ‘Edukia’
  - Izen biziduna + izen bizigabea: *jentilletxe, tartaloetxe, katuzulo, txakurzulo, jentil zulok...*



- Izen bizigabea + izen bizigabea: *ikaztoki, sutoki, bola-leku, abaroleku, txondar zulo, errekazulo, kueba zulo...*

#### 2.1.7.1.2.1.3. Objektu- subjektu mota

- Ergatiboak- Absolutua -zertu ‘Edukia’
  - Izen biziduna + izen biziduna: *zamal jabe.*
- Ergatiboak- Absolutua -zertu ‘Ondorioa, emaitza’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *sagar arbola.*

#### 2.1.7.1.2.1.4. ‘Objektu - adizlagun’ mota

- Erg. - Abs. - leku kasua -zertu ‘Helburua’
  - Izen biziduna + izen bizigabea : *San Bartolome eune, San Joan eune.*
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *bijili eune, Erramu eune, peri eune, otordu, karobi...*
- Erg. - Abs. - -z (zertaz) -zertu ‘Helburua’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *taloburni.*

#### 2.1.7.1.2.1.5. ‘Adizlagun- Subjektu’ mota

- Erg./ Abs. -leku kasua -zertu ‘Iturburua’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *ipar aize, egoi aize, ikatzautse, kare autse...*

#### 2.1.7.1.2.1.6. ‘Adizlagun- Objektu’ mota

- Erg. -Abs. -leku kasua -zertu ‘Iturburua’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *aritz egur, pago-egurre, pagoikatza...*
- Erg. -Abs. -leku kasua -zertu ‘Zatia’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *ogi puska, urdai puska, mingain zatie, burni zati, burni gai batzuk, leku piska, ardo piska, papel pusketa, ogi pusketa, gorputz pusketa, urdai pusketa, elorri pusketa...*
  - Mugatzaile eratorria: *gosari-mokau.*
- Erg. -Abs. -Leku kasua -zertu ‘Lekua’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *mugarria.*
- Erg. -Abs. -z (zertaz) -zertu ‘Edukia’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *ximaur mordo, baba mordo, sagar mordo, arta pilla, kaka pilla, gari pilla, zuringo pilla, narrupillea, egur sorta...*
- Erg. -Abs. - -z (zeri buruz) -zertu ‘Helburua’
  - Izen bizigabea + izen bizigabea: *logure, diru eske, su eske, barkazio eske, euri eske.*

#### 2.1.7.1.2.1.7. ‘Aditz - Adizlagun’ mota

- (Erg./abs.) -leku kasua -zertu ‘Helburua’
  - Aditzoina + izen bizigabea: *bizimodu, gordeleku.*

### 2.1.7.1.3. Mugakizuntzat izenkia duten menpekotasunezko izen elkartuak

#### 2.1.7.1.3.1. 'Objektu -aditz - subjektu' mota

- Izen bizigabea + izenkia (egile atzizkiaz sortuak): *lixibajotza-lleai, txondar egosle, ikatz egosle*.

#### 2.1.7.1.3.2. 'Objektu -aditz' mota

- Izen bizigabea + izenkia: *agiñ etatze, adar mozte, gari jotzen*.

### 2.1.7.1.4. Izen elkartu bereziak

#### 2.1.7.1.4.1. Izen berezia + izenondoa: *San Martin txiki, Joan-txiki*.

## 2.1.7.2. Sail bereziak

### 2.1.7.2.1. Baso- mugatzailea duten izen elkartuak:

- 'Adizlagun -Subjektu' 'Erg./abs. -leku kasua -zertu' 'Lekua': *basaurde, baseerri*.

### 2.1.7.2.2. Koxkor mugakizuna duten izen elkartuak: *txerrikoxkor, arri koxkor, mando koxkor*

### 2.1.7.2.3. -Ko atzizkia duten osagaiez eratuak:

- -ko lehen osagaien daramana: *etxeoandra*.

### 2.1.7.2.4. Hitz elkartu exozentrikoak

Posesiboak

- Izenondoa [izena + izenondoa]izenondoa: *begibakar*.

## 2.1.7.3. Aldaketa morfofonetikoak

- a) *-o > -a* : *basaurde*.
- b) *-o > -e*: *baseerri*.
- d) *-i > Ø*: \*ard(i) - talde > *artalde*.  
\*beg(i) - azal > *betazal*.

## 2.1.8. Eratorjeta eta hitz elkarketaren artekoak

*Alde, aldi, bide, gai, zai(ñ), zale...* bigarren osagaitzat dituzten egiturak aztertuko ditut ondoren.

ALDE:

- Izena + alde: *atsalde, goizalde*.

ALDI:

- Izena + aldi: *denboraldi, igelaldi, loalditxo*.

- Aditzoina + aldi: *ibillaldi, errealdi*.

**BIDE:**

- Izena + bide: *mandabide, trenbide*
- Aditzoina + bide: *ibilbide, eskabide, adibide*.

**GAI:**

- Izen bizidunak osatuz: *ezkongai, suigai*.
- Izen bizigabeak osatuz: *burni gai, txondargai*.

**ZAI:**

- Izen bizidunak osatuz: *artzai, itzai, mandazai*.

**ZALE:**

- Izen bizidunak osatuz: *arrantzale, esne zale*.

### 2.1.9. Beste egitura batzuk

**2.1.9.1.** Aditzondo elkartuen ingurukoak. **Bila** edo **eske** bigarren osagaitzat duten egiturak: *errenta billa, diru billa, jan billa, urre billa, zorri billa, ostatu billa, botika billa, etxe billa, diru eske, su eske, barkazio eske, euri eske...*

**2.1.9.2.** **Erdi** mugakizuna duten izen elkartuak. Mugatzailea beti izen arrunta izan ohi da: *gauerdi, alderdi, eguerdi, ordu erdi, mezaerdiko oni...*

**2.1.9.3.** **Itxura** bigarren osagaitzat duten egiturak. Mugatzailetzat izena duen *eskale itxura* agertzen da.

**2.1.9.4.** **Aurre, atze, barru, ondo ...** bigarren osagaitzat duten egiturak.

**AURRE:**

- *ate aurre, aldara aurre, ostatu aurre...*

**BARRU:**

- *eskubarru*.

**ONDO:**

- *gerra ondo, arbola ondo (Arbola ondon tzeren lapurrek), gosalondo, Ibai-ondo, Aizkorrondo, bazkal ondo...*

**GAIÑ:**

- *Saadar gañe, Aratz gañe, San Adriaango Portu gañe, zaldi gañe, mai gañe, asto gañe, mando gañe, mingañe, piku gañe...*

**PE:**

- *ankape, arbolape, arriape, eskillarape, lurpe, subiñape, tripape, txapelpe...*

**INGURU:**

- *Arranaitz ingurun, 1893 inguru, apiñ inguru, etxeinguru...*

**ALDE:**

- *Arakama alde, Zeama alde, Urkiola alde, Tolosa alde, Diinti alde, etxe alde, Araba alde, Akamane alde, Galizi alde...*

**2.1.9.5. Neurri sintagmak:** *kaja urrea, kaiku esnea, kaja dirua...*

Beste batzuk *bat* tartekatuz osatzen dira: *zaagi bat ardo, idi-narru 'at diru, balde 'at ur, plater bat gatz...*

**2.1.9.6. Bikoizpenak:** *bizi bizi, bixi bixi, gori-gori, mallaka-mallaka, zaal-zaal, arro-arro, apaiñ-apaiñ, banaka-banaka, poliki-poliki, bueltan bueltan, ortan-ortan, justo justo, zarra zarra, bero-bero, tire-tire<sup>20</sup>...*

**2.1.10. Deklinabidean, -a + a > -ea**

Bizkaian -eta iragan garaietan Araban ere bai- indar handia duen disimilazio bilakaera hau ia sistematikoki gertatzen da singularreko kasu guztietan Zegamako hizkeran.

Azter dezagun, kasuz kasu, -a bokalez amaitzen diren hitzen deklinazioa.

**ABSOLUTIBOA:**

- Singularrean ia salbuespenik gabe gertatzen da: *arbolea, bueltea, elizea, neskea, sokea, zerrea...* Hala ere, beti *alaba*, eta ez 'alabea', agertzen da.
- Pluralean, esan bezala, ez da gertatzen aipatu bilakaera: *neskak, alabak, arbolak, sokak...*

**ERGATIBOA:**

- Singularrean, berriz ere, ia salbuespenik gabe betetzen da: *neskek* (baina baita *neskak* ere), *arbolek, elizek, irteerek, etxaolek...*
- Pluralean berriz: *neskak, alabak...* Dena den, *arbolek* ere agertzen da:
  - *Arbolen izardie ta pertsonen odola ilberekiñ dailtze, naiz gorputzek eta naiz arbolek ilberan sufritzen due gutxiña.* (Azurmendi, X., 1994-1: 207)

**DATIBOA:**

- Singularrean: *neskei, arbolei, sokei...* Salbuespena: *alabai*.

**GENITIBOA:**

- Singularrean: *arbolen, elizen...*
- Pluralean: *arbolan...*

**SOZIATIBOA:**

- Singularrean: *alabakiñ...*
- Pluralean: *seme-alabakiñ...*

---

<sup>20</sup> (...) *narrue tire-tire einda ziola.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Eltzegogorra*)

## 2.1.11. Deklinabidea

### 2.1.11.1. -a bokalez amaitutako hitzak

#### 2.1.11.1.1. Arbola, eliza

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>arbolea</i>	<i>arbolak</i>
Part.	<i>arbolaik</i>	
Erg.	<i>arbolek</i>	<i>arbolek</i>
Dat.	<i>arbolei</i>	
Ines.	<i>elizan</i>	<i>arbolatan</i>
L.gen.	<i>elizako</i>	
Adl.	<i>arbolaa, eliza</i>	
Abl.	<i>arbolati</i>	
Gen.	<i>arbolen</i>	<i>arbolan</i>
Dest.		<i>arbolendako</i>

#### 2.1.11.1.2. Alaba, ama

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>alaba</i>	<i>seme-alabak</i>
Erg.	<i>alabak</i>	<i>ama-alabak</i>
Dat.	<i>alabai</i>	
Soz.	<i>alabakiñ</i>	<i>seme-alabakiñ</i>
Mot.	<i>amakati</i>	

### 2.1.11.2. -e, -i, -o eta -u bokalez amaitutako hitzak

#### 2.1.11.2.1. Abade, ume, jabe, seme, erle

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>abadea</i>	<i>umek</i>
Part.	<i>umeik</i>	
Erg.	<i>abadek</i>	<i>umek</i>
Dat.	<i>abadei, jabei, jabeai</i>	<i>umeai</i>
Gen.	<i>abaden</i>	<i>umean, bi erlen</i>
Soz.	<i>semekin</i>	<i>umekiñ</i>
Dest.	<i>abadendako</i>	

#### 2.1.11.2.2. Asto, otso, pauso

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>astoa</i>	<i>astok</i>
Part.	<i>astoik</i>	

Erg.	<i>astok</i>	
Dat.	<i>astoi</i>	<i>astoi, otsoai</i>
Ines.		<i>astotan</i>
Adl.	<i>pausoa</i>	
Gen.	<i>aston</i>	
Soz.	<i>astokin</i>	
Instr.	<i>astoz</i>	

### 2.1.11.2.3. Mendi, gari, errotari, bi

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>mendie</i>	<i>mendik</i>
Part.	<i>garik</i>	
Erg.	<i>errotarik</i>	
Dat.		<i>biai</i>
Ines.	<i>mendin</i>	<i>menditan</i>
Abl.	<i>menditi</i>	
Gen.		<i>bian<sup>21</sup></i>
Soz.	<i>garikin</i>	
Instr.	<i>mendiz</i>	
Dest.	<i>errotarintzat</i>	

### 2.1.11.2.4. Zeru, zaku, katu, pisu, su

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>zerue</i>	<i>zakuk</i>
Part.	<i>zeruik</i>	
Erg.	<i>katuk</i>	<i>zakuk</i>
Dat.	<i>katui</i>	
Ines.	<i>zerun</i>	<i>zakutan</i>
Adl.	<i>zerua</i>	
Abl.	<i>zeruti</i>	
Gen.	<i>zakun</i>	
Soz.	<i>sukin</i>	
Instr.	<i>pixuz</i>	
Dest.	<i>zeruko</i>	

## 2.1.11.3. Diptongoz amaitutakoak

### 2.1.11.3.1. Morroi, sermoi, oi

<sup>21</sup> Artzaiek eren tenporak ibiltze<sup>21</sup> itue, eztue alde aundik izaten Mariano Kastillon fetxakiñ. Dana dala, bian erak kontauko 'izut. (Azurmendi, X., 1994-1: 195)

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>morroia</i>	<i>morroiak</i>
Erg.	<i>morroiak</i>	
Dat.	<i>morroiai</i>	<i>morroiai</i>
Ines.	<i>sermoian</i>	
Adl.	<i>oira</i>	
Dest.	<i>sermoiko</i>	<i>morroietako</i>

#### 2.1.11.3.2. Artzai, zelai, iitai

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>artzai</i>	<i>artzaiek</i>
Part.	<i>anairik</i>	
Erg.	<i>mandazaiek</i>	<i>artzaiek</i>
Dat.	<i>mandazaiei</i>	<i>artzaiai</i>
Ines.	<i>zelaien</i>	
Abl.	<i>zelaiti</i>	
Gen.	<i>iitaien</i>	
Soz.	<i>itaiekin</i>	
Instr.	<i>itaiez</i>	

#### 2.1.11.3.3. Kanpaia

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>kanpaia</i>	<i>kanpaiak</i>
Gen.		<i>kanpaian</i>
Soz.		<i>kanpaiakiñ</i>

### 2.1.11.4. Kontsonantez amaitutakoak

#### 2.1.11.4.1. Gizon

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>gizona</i>	<i>gizonak</i>
Part.	<i>gizonik</i>	
Erg.	<i>gizonak</i>	<i>gizonak</i>
Dat.	<i>gizonai</i>	<i>gizonai</i>
Gen.	<i>gizonan</i>	
Dest.	<i>gizonandako</i>	<i>gizonantzat, elizgizonaandako</i>

#### 2.1.11.4.2. Bizkar

	<u>Singularra</u>
Abs.	<i>bizkarra</i>

Ines.	<i>bizkarreen, bizkarren</i>
L.gen.	<i>bizkarreko</i>
Adl.	<i>bizkarrea</i>
Abl.	<i>bizkarreti</i>
Gen.	<i>bizkarran</i>
Soz.	<i>bizkarrakiñ</i>
Instr.	<i>bizkarrez</i>

#### 2.1.11.4.3. Egur

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>egurre</i>	<i>egurrek</i>
Part.	<i>egurrik</i>	
Erg.		<i>egurrek</i>
Dat.	<i>egurrei</i>	
Ines.	<i>egurren</i>	
Adl.		<i>egurretaa</i>
Gen.	<i>egurren</i>	
Soz.	<i>egurrekin</i>	<i>egurrekiñ</i>
Instr.	<i>egurrez</i>	

#### 2.1.11.4.4. Jentil, mutil, talomutil, sorgin

	<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Abs.	<i>jentille</i>	<i>jentillek</i>
Erg.	<i>jentillek</i>	<i>jentillek</i>
Dat.	<i>jentillei</i>	<i>jentillai</i>
Adl.		<i>jentilletaa</i>
Gen.	<i>talomotillen, sorgiñen</i>	<i>motillan, sorgiñan</i>
Soz.		<i>motillekiñ</i>

#### 2.1.12. Ergatibo pluralean -ak

Bizkai-Gipuzkoetan eta Nafarroako hizkera askotan bezala, ergatibo pluralean -ak agertzen da:

- **Zegamako zaarrak** gogon dauku oaindio bee izena. (Azurmendi, X., 1993-2: 156 eta 1997-a: 143)
- **Andra-gizonak** esaten tzuenez... (Azurmendi, X., 1997-b, *Ezkontza haustea*)
- **Bi anairik zaarrenak** atzea ein tzuen. (Azurmendi, X., 1993-1: 174)

Pluraleko datiboan -ai agertzen da: *jentillai, gizonai, artzaiai, ardiai...*

Pluraleko genitiboan -an agertzen da: *motillan, sorgiñan, kanpaian...*



Genitibo gainean osatutako kasuek *-an* hartzen dute: *gizonandako, ildakoantzat, danantzat, atzaparrakin...*

Superlatibo erlatiboa adierazteko ere, partitiboaz nahiz partitiborik gabe, *-an* agertzen da beti: *ardik elbarrianak, jentillik zaarranak, zazpi anaietan gazteanak, debozioik andianakin, jakintsuanak...*

### 2.1.13. Soziatiboaren morfema eta balioa

Zegamako hizkeran, soziatiboa *-kin* morfemaz agertzen da beti<sup>22</sup>.

Balioa, instrumentalaren balioa hartzen du sarritan:

- *Ordun ikazkin batek porrekin jo porrazirie ta enborreti etaa zon.* (Azurmendi, X., 1993-1: 154)
- *Jesusek astoi ankea moztu aizkorekin da tornun lotu ta perra urrezkoa josi zion urrezko iltzekiñ.* (Azurmendi, X., 1993-1: 163)
- *Dan, dan, dan jo zon mallukiñ inpernuko atea.* (Azurmendi, X., 1993-1: 187)

Beste askotan, ordea, instrumentala zuzen erabilia agertzen da:

- (...) *ferianoa ardi narruz bizkarra estali ta gizon aundiñ anka arteti pasau zan.* (Azurmendi, X., 1993-1: 151)
- *Etxea zetorrela, Saasti Muñoko iturrin billau zon alaba suil bat urez beteta zola.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153)
- *Txakurre zotinka asi zanen kotxilloz il tzon.* (Azurmendi, X., 1993-2: 161 or. eta 1997-a: 148)
- *Amorrai ta eskalluk erreken bazterrea jotzen due ta sarez arrapatzeko aukerea ematen due.* (Azurmendi, X., 1994-1: 196)

### 2.1.14. Destinatiboaren morfemak

Destinatiboa ‘-(A)NDAKO’ (*gorputzendako, zeñendako, iraazten donandako, zeondako, animendako, biziandako, miñendako, abadendako, Ixidrondako...*) eta ‘-(E)NTZAT’ morfemaz (*eutzat* ‘euretzat’, *arentzat, torterontzat, errostarintzat* (sing.), *danantzat, ildakoantzat, gizonantzat, osasunentzat...*) agertzen da.

### 2.1.15. Ablatiboaren morfemak

Zegaman, gehien-gehienetan, ‘-ti/-di’ aldaera agertzen den arren, ‘-dio’, ‘-tik /-dik’ eta ‘-(r)ik’ aldaeren aztarnarik ere bada. Jakina denez, albokoaren eta sudurkariaren ondoren aldaera ahostuna azaltzen da.

---

<sup>22</sup> Goeiritik hurbil, soziatiboa ‘-KI’ morfemaz ere agertzen da Etxarri-Aranatzen hasi eta ekialderagoko hizkeretan.

### 2.1.15.1. ‘-TI/-DI’

Esan bezala, gehien-gehienetan aldaera hauxe agertzen da: *atzeti, orti, ankati, barruti, ateti, gañeti, enborreti, zalaiti, gerriti, kolkoti, kaltzipurditi, poltsikoti, arpegiti, iturriti, nundi...*

Izen bereziak ere aldaera honez agertzen dira: *San Adriandi, Iturzaaldi, Ormazaldi, Ormaiztegiti, Amerikati, Otsarteti, Zeamati...*

Denbora adieraziz ere agertzen da: *orduti, aspalditi, oaindi...*

Baita adizkiei erantsita ere: *nitueti, il zaneti, bear dianeti, deklarau zoneti...*

Eta azkenik, bizidunei lotuta, ‘-(EN)GANDI’ agertzen da: *apaizeandi, elkarreandi<sup>23</sup>, pertsonengandi*.

### 2.1.15.2. ‘-TIK/-DIK’

Adibide bakan batzuk besterik ez dira azaltzen: *oaindik, mugarritik*.

### 2.1.15.3. ‘-DIO/-TIO’

Goierrin oso arrunta izanik ere, *orain* adberbioari erantsita baizik ez dut aurkitu: *oaindio*. Goian aipatu dudanez, aldaera honen aldamenean *oaindi* eta *oaindik* agertzen dira.

### 2.1.15.4. -(R)IK

Zenbait esapidetan agertzen da: *bideik bide, kaleik kale, etxeik etxe*.

## 2.1.16. Motibatiboaren morfemak

Bi aldaera agertzen dira: *-ati, -kati* ‘-gati’ eta *-atio, -katio* ‘-gatio’.

- Lehendabizikoa, besteak beste, honako adibideetan agertzen da: *eiñati, oneati, orreati, Patxikati, eozin gauzakati, Barriolakati, dirukati, amakati...*
- **-Gatio**, aldiz, honakoetan: *eukiatio, orreatio, otzakatio...*

## 2.1.17. Prolatiboaren morfema

Prolatiboa, **-tzat** morfemaz agertzen da beti:

- *Jentillek sarri aitzen tzien pelotan, Aizkorri frontoitzat eta Arri Aundi pelotatzat artuz.* (Azurmendi, X., 1993-2: 168)

---

<sup>23</sup> Alkarrekiñ ondo konpontzeko, *alkarreandi urruti*. (Azurmendi, X., 1997-b, Zegamako zenbait esaera, esaaldi eta atxotitz).

- *Zenbait emakuma, jendek zearo sorgintzat eukitzen tzitun.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Begikoa III*)
- *Liburun ikuste ez tuenai gaurko jendek ez tio inportantzik ematen, base-rritarran umekeritzat jotze'itue.* (Azurmendi, X., 1994-1: 206)

### 2.1.18. *Partitiboaren morfema*

Partitiboa beti **-(r)ik** morfemaz agertzen da: *olakoik, diruik, abarolekuuik, oso-osoik, atetik, mezaik...* Hitz-oina *-i* bokalaz amaitzen denean, bokal arteko dardarkaria galdu eta bokal laburtzea gertatzen da:

- *Ogik: Dendarik ogik etzien eman diruik etzeuken da.* (Azurmendi, X., 1993-2: 156)
- *Argik: Satorra beiz, sekula argik ikus bee ta lur zamarrak begitati etaa ezinda zellen lurpen.* (Azurmendi, X., 1993-2, 172)

### 2.1.19. *Hurbiltze adlatiboa*

Oro har, **izena + 'alde( r)a' posposizioa** agertzen den arren, **'-utza'** eta **'-ka'**ren arrastorik ere badago.

#### 2.1.19.1. IZENA + 'ALDE( R)A'

Izen bereziari zein arruntari erantsita agertzen da: *Urkullu aldea, Zeama aldea, Diinti alde, etxe aldea...* Baita *barruko aldea* eta *kanpoko aldea* ere:

- *Zotalak belarra barruko aldea euki bear tzuen, bestela barrua 'barrura' lurre eroitzen tzan.* (Azurmendi, X., 1992: 171)
- *Enborran kanpoko aldea don 'Enborraren kanpoko aldera dagoen' egurre beiz zurigoa da ta biunagoa ta gizena dala esan oi due.* (Azurmendi, X., 1994-1:206)

#### 2.1.19.2. '-( R)UTZA'

Ondoko hiru adibideetan agertzen da soilik: *onutza, orrutza, autza.*

#### 2.1.19.3. '-KA'

Bi forma besterik ez dut aurkitu, *aurreaka, atzeaka*:

- *Bee kueba zolon (sic) aurreaka sartu ta atzeaka irten bear do.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Aketegiko dama (Mari)*)

#### 2.1.19.4. '-GARA' (?)

Adibide bakarra agertzen da, *goigara*:

- *Ezker eskubitako paretatati goigara re arakik 'adakiak' jartzen tzien ixurie emanetz, euri eunetan urek korritu zezan.* (Azurmendi, X., 1992: 171)

#### 2.1.20. *Nola?, nolako?*

Mendebaldeko aldaeretatik saihestuz, Zegaman '**nola**' eta '**nolako**' orokorrak agertzen dira:

- *Gizon aundie akordau zan ferianok nola iges ein tzion.* (Azurmendi, X., 1993-1: 151)
- *Ure nola erango 'iñat pa karga au bizkarreen diala?* (Azurmendi, X., 1993-1: 153)
- *Orduko jendek nolako fedea zon, gaur xinixteik ee etziok.* (Azurmendi, X., 1997-b, Aizkorriko ermita nola egin zen)
- *Bein baten attek esan tzion auzoko etxaolakoi nolako seme indartsue zeuken.* (Azurmendi, X., 1993-1: 177)

## 2.2. Aditzaren morfologia

### 2.2.1. *Aditz laguntzailea*

Atal honetan, aztertu ditudan testuetan agertzen diren adizkiak jasoko ditut.

#### 2.2.1.1. **IZAN** (Nor erakoak)

##### Oraina

ni	<i>naiz</i>
hi	<i>aiz</i>
hura	<i>da</i>
gu	<i>gaa, ga</i>
zu	<i>zaa, za</i>
zuek	<i>zate, zaaten</i>
haiek	<i>die; dira</i>

##### Iragana

ni	<i>nitzen</i>
hura	<i>zan</i>
gu	<i>giñen</i>

zu                      *ziñen*  
haiek                  *zien, zian*

Alegiazkoa

hura                    *-litz*  
zu                        *-ziñe*  
haiek                  *-lirate*

Alegiazkoa [+ke]

hi                        *itzeke*  
haiek                  *lieke*

**2.2.1.2. \*EDIN (Nor erakoak)**

Oraina

ni                        *naiñ*  
hura                    *deiñ<sup>24</sup>*  
gu                        *ga(i)tezen<sup>25</sup>, gaitzen<sup>26</sup>*  
haiek                  *ditezela*

Iragana

hura                    *zediñ<sup>27</sup>, zeñ*

Iragana [+ke]

hura                    *zeiken, zeikeen*  
haiek                  *zeizken*

Alegiazkoa [+ke]

hura                    *leike*  
haiek                  *leizke<sup>28</sup>*

Aginte adizkiak

hi                        *a(d)i*

---

<sup>24</sup> *Erlekumea erle ontziñ sartu deiñ, erleontziñ intzetsoa jartzen da.* (Azurmendi, X., 1994-1: 187).

<sup>25</sup> *Gaue gañen diau, ekaiek ate ori* (Illerrikoa) *leenbalen etxea abiau gatezen.* (Azurmendi, X., 1993-1: 176).

<sup>26</sup> *Ez oolakoik eiñ, egur bee ta ardian abarolekuik bee gelditu ez gaitzen.* (Azurmendi, X., 1993-1: 156).

<sup>27</sup> (...) *txala ondo jaiio zediñ.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Begikoa III*).

<sup>28</sup> *Erleontzi'aten bi erregiña ezin leizke eon.* (Azurmendi, X., 1994-1: 187).

zu	<i>zaitz</i> <sup>29</sup> , <i>zaiz</i>
zuek	<i>zaizte</i>

### 2.2.1.3. IZAN (Nor-Nori erakoak)

#### Oraina

	HURA
niri	<i>zat, zatela</i> <sup>30</sup>
hiri	<i>zak</i>
hari	<i>zako</i>
guri	<i>zaku</i>
zuei	<i>zatzue</i>
haiei	<i>zate</i>

#### Iragana

	HURA
niri	<i>zitan</i>
hari	<i>zikon</i>
guri	<i>zikun</i>
haiei	<i>ziten</i>
	NI
hari	<i>nitzaionen</i>

### 2.2.1.4. \*EDUN (Nor-Nork erakoak)

#### Oraina

	NI
hik	<i>nauk</i>
hark	<i>nau</i>
zuk	<i>nazu</i>
haiek	<i>nauela</i>

	HI
nik	<i>aut</i>
hark	<i>au</i>

	GU
hark	<i>gaitu</i>

<sup>29</sup> *Deskantsau zaitz.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Jentilla*). 1993-1: 153 orrian *zaiz* agertzen da.

<sup>30</sup> *Iruitu zatan zamar txikimat eztarrin pasau zatela.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153).

nik ZU  
*zaitut, zaituanen*<sup>31</sup>

nik ZUEK  
*zaituet*<sup>32</sup>

nik HURA  
*det*  
hik *dek/den*  
hark *do*  
guk *deu*  
zuk *dezu*  
zuek *dezue*  
haiek *due, doe*

nik HAIEK  
*(d)itut*  
hik *(d)ituk*  
hark *ditu*  
zuk *(d)ituzu, (di)tzetzunak*<sup>33</sup>  
zuek *(d)ituzue, (d)itzezue*<sup>34</sup>, *eztitzetzuena*<sup>35</sup>  
haiek *(d)itue*

### Iragana

haiek NI  
*nituen*<sup>36</sup>

hark GU  
*gintzen*<sup>37</sup>, *giñuzen*<sup>38</sup>

nik HURA  
*noon, non, nuen*

<sup>31</sup> *Urrena ikusten tzaituanen mezaik entzungo ez tezu.* (Azurmendi, X., 1993-2: 170).

<sup>32</sup> *Mordo 'at eamango zaituet biaje bakarren.* (Azurmendi, X., 1997-b, *San Krsitobal jentila*).

<sup>33</sup> *Igo zaiz ordun atariko piku arbolaa ta ja' nai tzetzunak, nik gosari bokau bat eiten dian bi-tarten.* (Azurmendi, X., 1993-1: 186).

<sup>34</sup> *Au dek txikillerie, oaindio ikusko'itzezue gizonak saski'aten barrun indaurketan.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako azken jentila*). Azurmendi, X., 1993-1an, *(d)itzezue*-ren ordez *(d)ituzue* agertzen da: *oaindio ikusko'ituzue gizonak saski'aten barrun indaurketan*.

<sup>35</sup> *Bai, zuen abade zaar orrek zeondako nai eztitzetzuena guri biltzen tziuk.* (Azurmendi, X., 1994-1: 193).

<sup>36</sup> *Iruroei ta amalau urtekiñ Matia eaman nituen.* (Azurmendi, X., 1994-1: 206).

<sup>37</sup> *Zatarañek, danok aua bete ortzekiñ utzi gintzen.* (Azurmendi, X., 1994-1: 194).

<sup>38</sup> *Sugarra. Umek bildurtze giñuzen pizti'at tzan.* (Azurmendi, X., 1994-1: 191).

hik	<i>(ez) on, oan</i>
hark	<i>zon</i>
guk	<i>gendun, genduun</i>
zuk	<i>zendun</i>
haiek	<i>zuen, zuten</i>

	<b>HAIEK</b>
nik	<i>nitun</i>
hark	<i>zitun</i>
guk	<i>gintzen<sup>39</sup></i>
haiek	<i>zituen</i>

#### Alegiazkoa

	<b>HURA</b>
nik	<i>-no, -noke<sup>40</sup></i>
hark	<i>-lo, -loo</i>
zuk	<i>-zendu</i>
haiek	<i>-lue</i>

#### Alegiazkoa [+ke]

	<b>HURA</b>
nik	<i>noke</i>
hik	<i>oke</i>
hark	<i>loke</i>

	<b>HAIEK</b>
hark	<i>lituzke</i>

#### Iragana [+ke]

hark	<i>zokela</i>
------	---------------

### 2.2.1.5. EGIN (Nor-Nork erakoak)

#### Oraina [+ke]

	<b>HURA</b>
hik	<i>daikek<sup>41</sup></i>

<sup>39</sup> *Juntakok Miel Aiskoneta ta ni giñen, anuntziok tabenatan da ein gintzen* (Azurmendi, X., 1994-1: 194).

<sup>40</sup> Baldintzaren protasian -KE agertzen da ondoko adibidean: *Nik -esan tzon- gizon ori al banoke, ogi au bezelaxe laben sartuko noke.* (Azurmendi, X., 1993-2: 158 eta 1997-a: 146).



hark	<i>daike</i>
guk	<i>daikeu</i>
	HAIEK
nik	<i>daizket</i> <sup>42</sup>
hark	<i>daizke</i> <sup>43</sup>

### 2.2.1.6. \*EZAN (Nor-Nork erakoak)

#### Oraina

	HURA
nik	<i>dezaan</i> <sup>44</sup>
hark	<i>dezala</i>
guk	<i>dezaun</i>
haiek	<i>dezen</i> <sup>45</sup>

	HAIEK
hark	<i>ditzela</i>

#### Iragana

	HURA
hark	<i>zezan</i>
haiek	<i>zezen, zezaten</i>

#### Oraina [+ke]

	HURA
hark	<i>dezake</i>

#### Alegiazkoa [+ke]

	HURA
hark	<i>lezake</i>

<sup>41</sup> *Era'zak potzuko ure lendabizi, ta errekea leortzen danen gaztaia artu daikek.* (Azurmendi, X., 1993-1: 168).

<sup>42</sup> *Bi gau an pasau nitunak nee denborako deskalabratuanak bezela jo daizket.* (Azurmendi, X., 1994-1: 198).

<sup>43</sup> *Mutuk naiz itzik ez ein eztarrikiñ otsak etaa daizke.* (Azurmendi, X., 1992: 178).

<sup>44</sup> *Ama Santa Ines, Bart ein det amets, Bart ein badet txarrez, Gaur ein dezaan onez.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Antzina ahaztu ziren gauzak*).

<sup>45</sup> *Erleai atakan azukarrakiñ ardoa jartzen tzate ezti geio ein dezen.* (Azurmendi, X., 1994-1: 187).

guk                    HAIEK  
                          *giñuzke*

Aginte aditzak

hik                    HURA  
                          *zak/zan*  
zuk                    *zazu*  
zuek                  *zazue*

hik                    HAIEK  
                          *itzek/itzen*

**2.2.1.7. \*EDUN (Nor-Nori-Nork erakoak)**

Oraina

hik                    NIRI  
                          *diek<sup>46</sup>/dien<sup>47</sup>*  
hark                  *dit*  
zuk                    *diazu, diezu<sup>48</sup>*

nik                    HIRI  
                          *diat*  
haiek                 *(d)iña<sup>49</sup>*

hark                  GURI  
                          *diun<sup>50</sup>, diula*  
zuk                    *diuzu*

nik                    ZURI  
                          *dizut*  
hark                  *dizu*

hark                  ZUEI  
                          *(d)izue*  
haiek                 *dizuee*

---

<sup>46</sup> *Mingain zatie ematen badiek zuloti etako aut.* (Azurmendi, X., 1993-1: 175).

<sup>47</sup> *Euk ez al dien ba esan atea ekartzeko?* (Azurmendi, X., 1993-1: 176).

<sup>48</sup> *Zeati ein diezu au?* (Azurmendi, X., 1993-1: 177).

<sup>49</sup> *Neska, esan mentzion Antonio Ormazaalek, au baño asto obea ekarko 'iña ta...* (Azurmendi, X., 1994-1: 204).

<sup>50</sup> *Esaiok erramintak utziko diun astoa perratzeko.* (Azurmendi, X., 1993-1: 163).

	HARI
nik	<i>diot, dioan</i> <sup>51</sup>
hik	<i>diok</i>
hark	<i>dio</i>
guk	<i>diogu, diou</i>
zuk	<i>diozu</i>
haiek	<i>dioe, die</i>

	HAIEI
nik	<i>diet</i>

Iragana

	NIRI
hark	<i>zien</i> <sup>52</sup>
haiek	<i>zian</i> <sup>53</sup> , <i>etziaten</i> <sup>54</sup>

	HIRI
nik	<i>nian</i>

	GURI
hark	<i>ziun</i>

	HARI
nik	<i>nion</i>
hark	<i>zion</i>
guk	<i>giondun</i> <sup>55</sup>
haiek	<i>zien</i> <sup>56</sup> , <i>zioen</i>

	HAIEI
nik	<i>nien</i>
hark	<i>ziesen</i>

<sup>51</sup> *Aurtengo negun neuk mantenduko diat. Ia santu gizajo orri lepo mee ori pixka'at gizentzen dioan.* (Azurmendi, X., 1997-b, *San Ixidorrekin eskean*).

<sup>52</sup> *Etxea ju' nitzenen, amak galdetu zien...* (Azurmendi, X., 1997-b, *Begikoa IV*).

<sup>53</sup> *Arten fregaderan ez genduken urik. Burue uretan sartu ta al non ondonona garbitze'non. Batzuk esaten tzian usteldu eiten dala bat busti ezkieo baño nik ez nien kasoik eiten.* (Azurmendi, X., 1994-1: 205).

<sup>54</sup> *Meikuk etziaten antzik ematen.* (Azurmendi, X., 1994-1: 206).

<sup>55</sup> *Ordun esaaldi au kantatze' giondun...* (Azurmendi, X., 1997-b, *Amona mantal gorria*).

<sup>56</sup> *-Nee ogie irraazi. Emendi aldeiten badiat, aizkorri orrek txikituko 'ik.*

*-Goazeak ai orti gurekiñ, -esan tzien bestek-, or baño errezago etako 'ek bizimodue ta.* (Azurmendi, X., 1993-1: 178).

Alegiazkoa [+ke]

	HARI
nik	<i>nioke</i>
guk	<i>genioke</i>

**2.2.1.8. EGIN (Nor-Nori-Nork erakoak)**

Iragana

	HARI
hark	<i>etzeion</i> <sup>57</sup>

Aginte aditzak

	NIRI
hik	<i>iek</i> <sup>58</sup> / <i>ien</i> <sup>59</sup>
zuk	<i>iezu</i> <sup>60</sup>
zuek	<i>iozute</i>

	HARI
hik	<i>iok/ion</i>
zuk	<i>iozu</i>
zuek	<i>iozue</i>

	HAIEI
hik	<i>iek</i>

**2.2.1.9. \* EZAN (Nor-Nori-Nork erakoak)**

Oraina

	HARI
nik	<i>dezaioan</i> <sup>61</sup>
hark	<i>dezaiola</i>

---

<sup>57</sup> *Gue auzon bazan sorgin famako emakuma 'at da norbeit ukullun txala ein bear tzon beie zaitzen eoten tzan auzoko atso onek begikoa ein etzeion.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Begikoa II*).

<sup>58</sup> *I, Pedro, kokoten zorrin bat tzeukiat, kendu iek.* (Azurmendi, X., 1993-1: 163).

<sup>59</sup> *Ekaien ur tintta 'at egarrik nion da.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153).

<sup>60</sup> *Eiezu burnizko makilla 'at, muturren txirringillokiñ.* (Azurmendi, X., 1993-1: 177).

<sup>61</sup> *Apil biribil*

*Ekaiek eun ta erdi.*

*Artzai oni kendu dezaioan*

*Eun ardi ta begi bakar ori.*

(Azurmendi, X., 1997-b, *Zozomikotek*).

haiek (ez) tezaioela<sup>62</sup>

## 2.2.2. Aditz trinkoa

### 2.2.2.1. EGON aditzaren adizkiak

#### Oraina

ni	<i>noo, no</i>
hi	<i>ao</i>
hura	<i>doo, do</i>
gu	<i>gare</i>
zu	<i>zare</i>
haiek	<i>dare</i>

#### Iragana

ni	<i>neon, nion</i>
hura	<i>zeon, zion</i>
haiek	<i>zeren</i>

#### Alegiazkoa

hi	<i>-eoke</i>
hura	<i>-leo, -lio</i>

Baldintzaren protasian, ‘-KE’ (*ba eoke*) agertzen da ondoko adibidean:

- *I re moituko itzeke nee lekun ba eoke.* (Azurmendi, X., 1993-1: 160)

### 2.2.2.2. ETORRI (Nor erakoak)

#### Oraina

hi	<i>ator</i>
hura	<i>dator, datorre</i>
gu	<i>gatoze</i>
haiek	<i>datoz, datotzeneen</i> <sup>63</sup>

#### Iragana

ni	<i>netorra</i>
----	----------------

<sup>62</sup> *Nee begik gaitzik ez tezaioela eñ.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Begikoa II*).

<sup>63</sup> *Sorgiñek etxe ‘atea datotzeneen, euzki loreen aantzak kontatzen asten die* (Azurmendi, X., 1997-b, *Antzina ahaztu ziren gauzak*).

hura	<i>zetorren, zitorren</i>
haiek	<i>zetortzen, zetozen, zetotzen</i>

Aginte adizkiak

zu	<i>atoz</i>
----	-------------

**2.2.2.3. ETORRI (Nor-Nori erakoak)**

Oraina

	HURA
hari	<i>datorkio</i>
haiei	<i>datorkie</i>

Iragana

	HURA
hari	<i>zetorkion</i>
haiei	<i>zetorkien</i>

**2.2.2.4. IBILI aditzaren adizkiak**

Oraina

hi	<i>alle</i>
hura	<i>daalle, dalle</i>
gu	<i>gailtze</i>
zu	<i>zailtze</i>
haiek	<i>dailtze</i>

Iragana

ni	<i>neillen</i>
hura	<i>zeillen, zellen</i>
haiek	<i>zeitzen</i>

Alegiazkoa

hura	<i>-leille</i>
------	----------------

**2.2.2.5. JOAN (Nor erakoak)**

Oraina

ni	<i>noa</i>
hura	<i>dijo</i>

gu	<i>goaz</i>
zu	<i>zoaz</i>
zuek	<i>zoazte</i>
haiek	<i>dijoatze, (d)ijotze</i>

Iragana

hura	<i>zizon</i>
haiek	<i>zijotzen, bazijoatzen</i>

Aginte adizkiak

hi	<i>oa</i>
----	-----------

**2.2.2.6. JOAN (Nor-Nori erakoak)**

Iragana

	HURA
hari	<i>zijokion</i>

**2.2.2.7. EDUKI (Nor-Nork erakoak)**

Oraina

	HURA
nik	<i>dauket</i>
hik	<i>daukek</i>
hark	<i>dauke</i>
guk	<i>dauku, daukuu</i>
zuk	<i>daukezu</i>
haiek	<i>daukee, dauke</i>
	HAIEK
nik	<i>dauzkian<sup>64</sup>, dauzkiala</i>
hark	<i>dauzke</i>
guk	<i>bauzkula</i> ‘ <i>badauzkagula</i> ’
zuk	<i>dauzketzu</i>

Iragana

	HURA
nik	<i>neukela</i>
hark	<i>zeuken</i>

<sup>64</sup> *Beitu iek muin danak zuri-zuri nola dauzkian burun.* (Azurmendi, X., 1993-1: 169).

guk                    *genduken*  
haiek                 *zeukeen*<sup>65</sup>

                              HAIEK  
hark                    *zeuzken*  
haiek                 *zeuzkeen*

#### Alegiazkoa

                              HURA  
nik                     *-neuke*  
hark                   *-leuke*  
guk                    *-genduke*  
zuk                    *-zenduke*

#### 2.2.2.8. EKARRI (Nor-Nork erakoak)

##### Oraina

                              HURA  
nik                     *dakarrean*<sup>66</sup>  
hik                    *dakarrek*  
hark                   *dakarre, dakar*  
zuk                    *dakartzu*

##### Oraina

                              HAIEK  
hark                    *dakatz*

##### Iragana

                              HURA  
hark                    *zekarren*

#### 2.2.2.9. EKARRI (Nor-Nori-Nork erakoak)

##### Iragana

                              HARI  
hark                    *zekarkion*

<sup>65</sup> [*andra-gizon batzuk*] *ume txiki 'at tzeukeen oso politte...* (Azurmendi, X., 1993-1: 176).

<sup>66</sup> *Zakun dakarrean oni eman estutu 'at.* (Azurmendi, X., 1997-b, *San Kristobal (Jentila)*).



### 2.2.2.10. ERABILI (Nor-Nork erakoak)

#### Oraina

	HURA
hik	<i>dallek</i>
zuk	<i>dailtzu</i>
zuek	<i>dailtze</i>

### 2.2.2.11. ERAMAN (Nor-Nork erakoak)

#### Oraina

	HURA
hark	<i>damarrela<sup>67</sup>, darama</i>
	HAIEK
hik	<i>damatzek</i>
hark	<i>baamatze</i>

#### Iragana

	HURA
nik	<i>nemarrela</i>
hark	<i>zemarren</i>

### 2.2.2.12. \*IO (ESAN) aditzaren adizkiak

#### Oraina

	HURA
hark	<i>dio</i>
zuk	<i>diozu</i>

### 2.2.2.13. IRUDI (Nor-Nork erako adizkiak)

#### Oraina

	HURA
hark	<i>dirudi</i>

---

<sup>67</sup> *Urtzulaitako Marie, ure' damarrela garie!* (Azurmendi, X., 1993-1:169).

#### 2.2.2.14. JAKIN (Nor-Nork erako adizkiak)

##### Oraina

	HURA
nik	<i>eztait</i> ‘ez dakit’, <i>dakit</i>
hik	<i>dakiñ</i>
hark	<i>daki</i>
guk	<i>eztakiu</i> ‘ez dakigu’
zuk	<i>dakizu</i>
haiek	<i>bakie</i> ‘badakite’

	HAIEK
hark	<i>dakitze</i>

##### Iragana

	HURA
hark	<i>zekin</i>
haiek	<i>zekien</i>

##### Alegiazkoa

	HURA
nik	<i>-neki</i>
hark	<i>-leki</i>

#### 2.2.2.15. JARIN aditzaren adizkiak

##### Oraina

	HURA
hari	<i>dario</i>
haiei	<i>dariela</i>

##### Iragana

	HURA
hari	<i>zerion</i>

#### 2.2.3. Aditz laguntzailearen alokutiboa

##### 2.2.3.1. IZAN (Nor erakoak)

##### Oraina

ni	<i>nauk</i>	<i>naun</i>
----	-------------	-------------

hura	<i>dek</i>	<i>den</i>
gu	<i>gaituk</i>	<i>gaitun</i>
haiek	<i>dituk</i>	

Iragana

ni	<i>nituan, nitzean</i>	<i>nintzenan</i>
haiek	<i>zitian</i>	

Alegiazkoa [+ke]

ni	<i>nitzekek</i>
----	-----------------

**2.2.3.2. IZAN (Nor-Nori erakoak)**

Oraina

	HURA	
niri	—	<i>zitan</i> <sup>68</sup>

Iragana

	HURA
niri	<i>zitean</i> <sup>69</sup>

**2.2.3.3. \*EDUN (Nor-Nork erakoak)**

Oraina

	HURA	
nik	<i>diat, diala</i> <sup>70</sup>	<i>diñat</i>
hark	<i>dik</i>	<i>diñ</i>
guk	<i>diau</i>	<i>(d)iñau</i>
haiek	<i>dia</i> <sup>71</sup> , <i>diaa</i> <sup>72</sup>	<i>diñaa</i> <sup>73</sup>

<sup>68</sup> *Jentillek esa' mentzion: Iritu zitan zamar txikin bat eztarrin pasau zatela.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153). 1993-lean *zatan* agertzen den arren, zuzenagoa dirudi 1997-b argitarapenean agertzen den *zitan*.

<sup>69</sup> *Iritxo berriti bera, Aizkorriñ ardik jaitxi ta netorrela, aurrekalden katue alajaña, miau ta miau ta miau biden erdin jarri zitean.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Katu beltza (I)*).

<sup>70</sup> *Eizen nellek errotarri au laun diala.* (Azurmendi, X., 1993-1: 178).

<sup>71</sup> *Batzuk esaten dia illargitan gaue, Abenduko eune baño argigoa este 'an.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Azeriaren hiru egiak*).

<sup>72</sup> *Mundue enian egin bear, ook mundue ni baño geio estimauko diaa.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Antzina ahaztu ziren gauzak*).

<sup>73</sup> *Ume ook ixildu itzen, sorgiñaan lengoajea eite' 'iña ta.* (Azurmendi, X., *Antzina ahaztu ziren gauzak*).

	HAIEK	
nik	<i>zituat</i> <sup>74</sup>	<i>zitunat</i>
hark	<i>zituk</i>	
guk	<i>zituau</i>	

Iragana

	HURA	
nik	<i>nian</i>	

	HAIEK	
nik		<i>nitunan</i>

Alegiazkoa [+ke]

	HURA	
guk	<i>genduke</i>	

**2.2.3.4. \*EDUN (Nor-Nori-Nork erakoak)**

Oraina

	NIRI	
hark	<i>ziek</i> <sup>75</sup>	

	GURI	
hark	<i>ziuk</i>	

	HARI	
nik	<i>zioat</i>	
hark	<i>ziok</i>	
guk	<i>zioau</i>	

Iragana

	NIRI	
hark	<i>zerean</i> <sup>76</sup>	

Alegiazkoa [+ke]

	HARI	
nik	<i>niokek</i>	

<sup>74</sup> *Jaso iek betazalak, otsak aitzen tzituat ta.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153).

<sup>75</sup> *Nei buruko miñek etaa ziek golpeka.* (Azurmendi, X., 1993-1: 169).

<sup>76</sup> *Erreal bateati sekreto bat aindu zerean [gizon batek].* (Azurmendi, 1993-2: 168).

## 2.2.4. Aditz trinko alokutiboa

### 2.2.4.1. EGON aditzaren adizkiak

<u>Oraina</u>		
ni	<i>niok</i>	<i>neon, nion</i>
hura	<i>zeok, zioak</i>	
gu	<i>gereak</i>	
haiek	<i>zerek</i>	

<u>Iragana</u>		
hura	<i>zioan</i>	<i>zeonan</i>

<u>Alegiazkoa</u>	
hura	<i>-leo</i>

### 2.2.4.2. ETORRI aditzaren adizkiak

<u>Oraina</u>	
ni	<i>netorrek</i>

### 2.2.4.3. IBILI aditzaren adizkiak

<u>Oraina</u>	
ni	<i>nellek</i>

<u>Iragana</u>	
haiek	<i>zellea</i> <sup>77</sup>

### 2.2.4.4. JOAN aditzaren adizkiak

<u>Oraina</u>		
ni	<i>nijok</i>	<i>nijon</i>

<u>Aginte aditzak</u>		
gu	<i>gaozeak</i> <sup>78</sup> ( <i>goazeak?</i> )	<i>goazenan</i> <sup>79</sup>

<sup>77</sup> *Erbie ia arrapauen tzellea ba orik!* (Azurmendi, X., 1997-b, *Joanito txixtularia ikusi dute-nek diotena II*).

<sup>78</sup> *Gaozeak Urtzulaita aldea.* (Azurmendi, X., 1993-1: 168). Antza denez, 'goazeak' beharko luke.

#### 2.2.4.5. EDUKI aditzaren adizkiak

##### Oraina

	HURA	
nik	zeukiat	
hark	zeukik	
guk	—	etzeukiñau
haiek	etzeukia <sup>89</sup>	

	HAIEK
nik	zeuzkiat

##### Iragana

	HAIEK
hark	zeuzkian

#### 2.2.4.6. JAKIN aditzaren adizkiak

##### Oraina

	HURA
nik	zekiat

#### 2.2.5. Aditzaren pluralgileak

Ataunen bezala, aniztasuna adierazteko hainbat aukera erabiltzen dira. Hain zuzen ere, honako hauek aurkitu ditut nik:

##### 2.2.5.1. Iragangaitzetako adizkietan

- (R)A**: *ga(a), za(a), dira* eta *die*.
- (RA) + TE**: *zate*.
- IÑE**: *giñen, ziñen*.
- RE**: *gare, zare, dare, zeren, gerek, zerek*.
- (T)Z**: *zaiz, zaitz; leizke, zeizken, zoaz, datoz*.
- (T)ZE**: *gatoze, datotzen, zetozen* eta *zetotzen, dijotze, zijotzen, zetortzen, zailtze* ‘zabiltza’, *dailtze* ‘dabiltza’, *gaitzen* ‘gabiltzan’.
- Z + TE**: *zoazte, zaitze* ‘zabiltzate’.

<sup>79</sup> *Goazcnan, goazenan oatzea* (sic),  
*goizen jaikiko gaitun ardatzea*.  
(Azurmendi, X., 1997-b, *Landatako neskak*).

<sup>80</sup> *Zatarain meikuk esan tziun, demonio tontok, Antzazuko prallek eren zentralandako etzeukia urik da zuei emango* ‘izue. (Azurmendi, X., 1994-1: 194).

### 2.2.5.2. Iragankorretako adizkietan

**-Z-:** *dauzketzu* ‘dauzkazu’, *bauzkula* ‘badauzkagula’, *dauzke*, *dauzkian*, *dauzkiala*, *zeuzken*, *zeuzkian*, *daizke*, *daizket*.

**-IT-:** *ditut*, *dituk*, *ditu*, *dituzu*, *ditue*, *gaituk*, *gaitun*, *zaitut*, *zaituet*, *nitun*, *nituen*, *zitun*, *zitan*, *zituat*, *zitunan*, *zituk*.

**-ET-:** *zetzunak*.

**-TZE:** *damatzek* ‘daramatzak’, *baazematze* ‘badaramatza’, *itzek*, *gintzen*, *ditzue*, *eztitzetzuenak*.

### 2.2.5.3. Agentearen aniztasuna adierazteko, iragankorretako 2. pertsona pluralean morfema bakarra agertzen da

**-ZUE:** *dezue*, *(d)itzezue*, *(d)izue*, *iozue*, *dailtzue* ‘darabilzue’...

**-ZUTE:** *iozute*.

### 2.2.5.4. Iragankorretako 3. pertsona pluralean, agentearen aniztasuna adierazten duten bi morfema agertzen dira

**-TE-:** *zuten*, *zezaten*, *etziaten*...

**-E-:** *nauela* ‘nautela’, *due* ‘dute’, *(d)itue* ‘dituzte’, *zuen*, *zioen*, *zituen*, *die* ‘diete’ (di-e-e > die), *dezen* ‘dezaten’, \**deza* + e -n’, *zezen* ‘zezaten’...

Zenbait alokutibotan, asimilazio baten ondoren pluralgilea ezkutuan gelditzen da: *diña* ‘dinate’, *dia* ‘diate’, *etzeukia*...

### 2.2.6. Aginteran, subjuntiboan eta ahalezkoetan, ‘egin’ erroa

Nor-Nork erako aditzetan, ahalezkoetan ‘egin’ erroa agertzen da:

- *Orreati gizona* ‘pakarrik’ (‘gizonak bakarrik’) *arrapau daike axarie*. (Azurmendi, X., 1997-b, *Azeria eta putrea*)
- *Ikusi deuna esan daikeu*, *ikusko deuna ez aik eta aua lurrez bete arte*. (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esaera, esaaldi eta atxotitz*)
- *Erleontzi atek ume at eo geio bota daizke urten*. (Azurmendi, X., 1994-1: 187)

Nor-Nori-Nork erako aditzetan, aginteran eta subjuntiboan ‘egin’ erroa agertzen da:

- *txala ein bear tzon beie zaitzen eoten tzan auzoko atso onek begikoa eiñ etzeion*. (Azurmendi, X., 1997-b, *Begikoa III*)
- *Ola eztiat ustuko potzuik, laundu iek*. (Azurmendi, X., 1993-1: 168)

- *Eldu iok zapoi buztanati.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esa-  
era, esaaldi eta atxotitz*)

### 2.2.7. *Partizipioetan, ‘-gi’ marka*

Partizipioetan ‘-GI’ marka ez da ezezaguna: *ebai, ebaitzaile. Ebagie* ‘ebakia, zauria’ ere ezaguna da Zegaman.

Baina, beste aldetik, *erabaki, jaiki* agertzen dira.

### 2.2.8. *-atu > (-adu) > -au*

Oinarria edozein dela ere ia salbuespenik gabe betetzen da: *abiau, akordau, aldeau* ‘alderatu’, *allau* ‘ailegatu’, *arrapau, asarrau, atzeau* ‘atzeratu’, *aurreau, banau* ‘banatu’, *bereanau* ‘beregianatu’, *eskau, deskantsau, geau* ‘geratu’, *gertuau* ‘gerturatu’, *gozau, kantau, konturau, menderau, ondorau, salbau, sekau, sobrau, soltau...*

Salbuespenak, gehien-gehienetan IS (Izen Sintagma)ren osagai dira: *amorratue, beiratukiñ, beiratu utsekiñ, erratue, eskatuz, gertatue, ia arrapatun, ikatuta, kantatuz, kastigatugoa, madarikatue, señalatuz...*

Beste salbuespen batzuk: *gertuatu zikon* (Adlatiboa + TU), *beinkatu dezala* (baita *beinkau* ere), etab.

### 2.2.9. *-itu > -idu*

Aipatu bilakaera ez da inoiz gertatzen Zegaman: *argitu, arritu, beitu, berri-  
tu, bizitu, elbarritu, eritu, estenditu, garbitu, gelditu, goritu, korritu, larritu, moi-  
tu, sentitu, partitu, zauritu...*

### 2.2.10. *Laguntzailea beti partizipioarekin*

Zegamako hizkeran, laguntzailea beti partizipioarekin agertzen da: *abiau gai-  
tezen, artu zezaten, beinkatu zezala, gelditu ez gaitzen, kantau zak, korritu daike  
korritu zezan, sartu deiñ...*

### 2.2.11. *Partizipioa -ta morfemarekin*

Partizipioa, ‘-TA’ morfemari erantsita agertzen da beti: *akauta, arrituta, artu-  
ta, aspertuta, aztorauta, beteta, biurtuta, elduta, enterrauta, ezita, galduta, giza-  
txarrituta, itxututa, izoztuta, kargauta, jantzita, jasota, jaulkita, jota, zabaldua...*



### 2.2.12. ‘Ari izan’

Oso arrunta da Zegamako hizkeran:

- *Beñ, Saadarren, Izarraako pagariñ, ikazkiñek enbor bat laurkitzen ai mentzien.* (Azurmendi, X., 1993-1: 154)
- *San Adrian azpiko metaliturriñ ure eraten ai zala, kaltzipurditi eldu ta airen jaso mentzon Barriolak.* (Azurmendi, X., 1997-a: 144)
- *Batzuk armak garbitzen ai zien.* (Azurmendi, X., 1993-2: 157 eta 1997-a: 144)

### 2.2.13. Komunztadura

#### 2.2.13.1. Aditz trinkoetan beti betetzen da:

- *Begik urdiñ-urdiñe’ zeuzken.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Euskaldunek zeltentzat gorrotoa. Ipuinek ala diote*)
- *(...) betillek gorrik tzeuzkelako.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Euskaldunek zeltentzat gorrotoa. Ipuinek ala diote*)
- *Orrek baamatze geo eperrak!* (Azurmendi, X., 1993-1: 158)
- *Axarik, esaerea danez, laroei ta beatzi tranpa dauzke.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Azeria eta putrea*)

#### 2.2.13.2. ‘Nor-Nori’ erako aditzetan, komunztadura ez da sekula betetzen:

- *Bein Zeamako parrokoai aspalditi ezkondata zeren andra-gizon batzuk etor mentzikon.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Ezkontza haustea*)
- *Une beren Goñiko zaldunei kateak autsita eroi zikon.* (Azurmendi, X., 1993-1: 188)
- *Ako pago ari asi zako ostok jaiotzen.* (Azurmendi, X., 1994-1: 192)
- *eliztar danak inpernua jungo zat.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Elizako San Martin*)

#### 2.2.13.3. ‘Nor-Nork’ eraoetan, berriz, komunztadura beti betetzen da:

- *...otsak aitzen tzituak eta.* (Azurmendi, X., 1993-1: 153)
- *Sekulako abarkak eama’ mentzitun jantzita.* (Azurmendi, X., 1997-b, *San Martin Txiki. Artoa nola erein*)
- *Laixter iru motil orik arrapau zituen.* (Azurmendi, X., 1993-1: 160 eta 1997-a: 147)

#### 2.2.13.4. ‘Nor-Nori-Nork’ erako aditzetan ez da betetzen<sup>81</sup>:

- *Jaso iek betazalak* (Azurmendi, X., 1993-1: 153)

---

<sup>81</sup> G. Bährrek singularerako eta pluralerako forma berberak bildu zituen.

- *Semek labe agea artu ta betazalak jaso mentzion* (Azurmendi, X., 1993-1: 153)
- *Diru ok arrapau zioat kutzei, eamaiok.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Aizkorriko Gurutzearen zenbait berri*)
- *Artzaiai ardik eo arkumak ee arrapatzen tzien.* (Azurmendi, X., 1993-2: 158 eta 1997-a: 145)

#### 2.2.14. Aditz izenak<sup>82</sup>:

Aditz izenak ‘-T(Z)E’ morfemaz agertzen badira ere, ‘-TAN’ ez da erabat ezezaguna Joxepa Azurmendiren galderak eta ondorengo ‘kantak’ erakusten dutenez:

- *Jaune artuta gero ze ao pentsatan?* (Azurmendi, X., 1997-b, *Landatako neska*)
- *Neskek eantzun mentzien.*  
*Ba... neon pentsatan,*  
*Iltze’ naizenen*  
*Lau motillek eamango nauela andatan,*  
*Apaiz zaarra aurren duela kantatan,*  
*Nik parrei nola eutsi dioan nion pentsatan.*  
 (Azurmendi, X., 1997-b, *Landatako neska*)

*Pentsatan* (‘pentsatzen’; hiru bider agertzen da) eta *kantatan* ‘kantatzen’ dira aditz izenak.

#### 2.2.15. Sinkopak

Sarritan agertzen dira Zegamako hizkeran honelako sinkopak: *etor tzien*, *etorko zien*, *ekarko zitun*, *ibil be*, *ipin tzion*, *ibilko aiz*, *ibil tzan*...

#### 2.2.16. ‘Igo’ aditza

Beti ‘izan’ aditzaz agertzen da:

---

<sup>82</sup> Kontakizunetan zehar, *-atu-z* amaitzen diren aditzen aditz-izenak *-aitze* amaieraz agertzen dira sarritan. Besteak beste: *bukaitzen* (eta *bukatzen*), *salbaitzen*, *botaitzen* (baita *botatzen* ere), *luzaitzen*, *pentsaitzen* (baita *pentsatzen* ere), *arrimaitzen*, *tapaitzen* (eta *tapatzen*), *esnaitzen*, *kontaitzen* (eta *kontatzen*), *aukeraitzen*, *billaitzen* (eta *billatzen*), *libraitzen*, *prantaitzen* (eta *prantatzen*), *geaitzen* (eta *geatzen*), *eskatzen* (baita *eskatzen* ere), *tragaitzen* (baita *tragatzen* ere), *txupaitzen* (eta *txupatzen*), *tiraitzen*, *anuntziatzen*, *abixaitzen*, *banaitzen* (eta *banatzen*), *kargaitzen*, *gertaitzen* (eta *gertatzen*), *errezaitzen* (eta *errezatzen*)... Baita *beaitzen* ‘behatzean’ ere.

Dena den, Xabier Azurmendik berak idatziz adierazi didanez, forma horiek huts baten ondorio lirateke eta berez Zegaman ez omen dira (ez dira!) aipatutako forma horiek erabiltzen. Hortaz, *eskatzen*, *tragatzen*, *banatzen*... bezalako formak besterik ez dira agertzen Zegaman.

- *Putrea al tzon gorana igo zanen...*(Azurmendi, X., 1997-b, *Txepetxa eta putrea*)
- *Deabrue piku gañea igo zan.* (Azurmendi, X., 1993-1: 186)

### 2.2.17. 'Irten' aditza

Iragankor nahiz iragangaitz gisa erabilia agertzen da. Iragangaitz gisa agertzen da honako adibideetan:

- *Ametzarie (semental) re berotu zan da aurreko ankakiñ otsoa degollatzea irten tzan.* (Azurmendi, X., 1997-b. *Aizkorriko aizkeneko otsoa*)
- *Beste 'aten txerri kumak ee irten mentzien.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Animaliak eta hildakoak*)

Iragankor gisa, berriz, ondokoetan:

- *Irten tzuen kanpoa ta...* (Azurmendi, X., 1993-1: 152)
- *Apaizek prallen atzeti irten tzon.* (Azurmendi, X., 1993-1: 158)
- *(...) da sasiti erbi'atek irten tzon igesi.* (Azurmendi, X., 1993-1: 161)
- *Bee kueba zolon (sic) aurreaka irten bear do.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Aketegiko dama. Mari*)
- *Nola irten tzuen ez mentzien konturau.* (Azurmendi, X., *Ikeizko Maria Jexux II*)

### 2.2.18. 'Behar'

Beti \*EDUN laguntzaileaz agertzen da:

- *Ik pazientzikin konformau bearko 'ek.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Mundua nola egin zen*)
- *San Ixidrok ba mentzekin noiz il bear tzon.* (Azurmendi, X., 1993-1: 164)
- *Barrun sue beti indarren eon bear tzon.* (Azurmendi, X., 1992: 175)
- *Amabost eun lanen eiten banitun beste amar eun erdi gaxo eon bear izate non.* (Azurmendi, X., 1994-1: 206)
- *Urrengo eunen Antzazua jun bear gendula euri eske.* (Azurmendi, X., 1994-1: 194)



### 3. JOSKERA

#### 3.1. 'Bi' zenbatzailea

Zegaman 'bi' zenbatzailea ia beti izenaren ezkerrean agertzen da: *bi idi narrru, bi feriano, bi eskuk, bi alper orik, bi animalik, bi puntatan, bi erlen...*

Hala ere, badira zenbait salbuespen: *anka bik*<sup>83</sup>, *gizon bi oriai, begi bitako*<sup>84</sup>, *erreal bi*<sup>85</sup> ...

#### 3.2. Aditza galdegai denean

Aditza galdegai denean 'EGIN' erabiltzen da:

- *Au aitu zonen Martsue asarrau ein mentzan da apillei esa' mentzoin.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zozomikotek*)
- (...) *ontan, gue atte ezautu ein tzon lapurrek.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Eguzkitzeko Joane*)
- *Txondarra ondo egosteko tapau eiñ bear tzan.* (Azurmendi, X., 1992: 174)

#### 3.3. Galderetan 'al'

'Bai-ez erako perpausetan', 'AL' ageri da Zegaman ere:

- *Uretan da buziñetan sartu al dik burnie?* (Azurmendi, X., 1997-b, *San Martin Txiki (Burnia nola tenplatu)*)
- *Zuri kalte aundik eiñ al dizu?*(Azurmendi, X., 1993-2: 158 eta 1997-a: 146)

---

<sup>83</sup> *Goizen Tortok atea iriki mentzon da ate aurren anka bik zabaldua jarri mentzan.* (Azurmendi, X., 1993-1: 155).

<sup>84</sup> *Begi bitako argie kostat zat* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esaera, esaaldi ta atxotitz*).

<sup>85</sup> *Ezkondur ezkiu peztek erreal bi balio 'itu.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esaera, esaaldi ta atxotitz*).

- *Jungo al itzeke beiz San Adriana?* (Azurmendi, X., 1993-2: 160 or. eta 1997-a: 147)
- *Nee galderak pronto al dare?* (Azurmendi, X., 1997-b, *Errege probintzialak*)

### 3.4. Konpletiboak

‘-(E)NA’ menderagailuaren aztarnarik ez dut aurkitu. Konpletiboak osatzeko, ‘-(E)LA’, ‘-(E)NIK’ (*Erlea galtzen baa sekula ezta esan bear akau ein danik, il ein dala esan bear da* (Azurmendi, X, 1994-1: 186)) eta ‘aditz izena + -ko’ egitura agertzen dira.

### 3.5. Konparazio perpausak

Konparazio perpausetan, ‘bezain’, ‘-ago’ eta ‘baño ...-ago’z gainera, ‘lain’ ere agertzen da:

- *Jana eiteko ta erateko lain̄ ur izaten tzan etxaolan.* (Azurmendi, X., 1992: 172)
- *Ure, ikatza larrañea etatzekon kontu aundiz ibil bear tzan, sue itzaltzeko lain̄ bota ta kito.* (Azurmendi, X., 1992: 175)
- *Eroa bustitzeko lain̄ euri ai do.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Zegamako zenbait esaera, esaaldi eta atxotitz*)

### 3.6. Kausazkoak

Kausazko perpausetan, gehien-gehienetan ‘eta’ erabiltzen den arren, ‘BAIT’-en aztarnarik ere bada:

- *Eskuk moitzen bazitun, benetako San Bartolome etzala konturauko bai zan jendea.* (Azurmendi, X., 1993-1, 160)

### 3.7. ‘Ala’ hautakaria

Galde-perpausetan nahiz adierazpen-perpausetan agertzen da:

- *erregekiñ idi-narru ‘at bete diru apuestoa ein tzuen, zein leenao iturriti etorri, eiztarie ala neskame ura.* (Azurmendi, X., 1993-1: 179)
- *da ikusko diau danok emen garen ala ez.* (Azurmendi, X., 1997-b, *Aiuntamentuko aulkia*)<sup>86</sup>
- *Eroiko nauk ala ez?* (Azurmendi, X., 1993-1: 173)

‘X ala?’ egitura ere agertzen da:

– *Au irea izango ‘ek ala?’* (Azurmendi, X., 1993-1: 164)

---

<sup>86</sup> Azurmendi, X., 1993-1: 161 orrian, *ala*-ren ordez *eo* agertzen da: ...*ikusko diau danok emen gauden eo ez.*





## 4. HIZTEGIA

### 4.1. Gipuzkerako eta inguruko hizkeretako hitzak

Gipuzkerako eta inguruko hizkeretako zenbait hitz agertzen dira: *attona, amona, eskubi, garo, mingañe, triku, urruti...*

Beste hitz batzuk, bizkaieraz izan ezik (nahiz batzuk hemen ere ezezagunak ez diren), euskalki guztietan erabiltzen dira: *aixa, arras, baatzuri, bezela, bezelako, erori, eskale, etsai, gaizto, galdetu, guraizak, itzali, itz egin, nai, oatzea, zalle...*

Zegaman *aran* ‘ciruela’ adierarekin agertzen da. Mendebaldean, berriz, *aran* ‘endrina’ adierarekin erabiltzen da (*aran* ‘endrina’/ *okaran* ‘ciruela’).

### 4.2. Mendebaldeko hizkerekiko hurbiltasuna duten hitzak

Mendebaldeko hizkerekiko hurbiltasuna duten hitzak ere agertzen dira Zegaman: *alkondara, artaazi, abade* (baita *apaiza* ere), *bekoki, emendau, izara, okelea* (baita *aragi* ere), *txistue* ‘tua’, *zapatue...*

### 4.3. Maileguak

Oso ugari dira: *anuntziok, apeadero, bueltea, deskantsau, disparau, erremin-tea, errentea, feriano, formalidadea, gastau, kaltzada, kantina, kargau, koadrilla, konbertitu, kontestau, kontraando* ‘kontrabando’, *konsiderazio, kontzejal, lazoa, ofizio, palanke, patzen* ‘pagatzen’, *pipea, poltsea, presentatzen, proatzen, promes(a), sentitu, soldadu, sospetxau, sotana, sozio, tiau* ‘tiratu’, *tiro, zerra, ziarro...*

Mailegu gehienak gazteleratik hartuak diren arren, badira latinetik zuzen zuzenean hartutakoak ere: *keiza* (lat. Ceresia), *ganbara* (lat. Camara), *barkau* (lat. Parcere)...

### 4.4. Izenaren morfologia

Dagoeneko ikusi dugunez, kontakizunetan zehar sarritan agertzen dira izen

eta izenondo elkartuak eta eratorriak: *artaazie, artzai, astaeme, autsi-uneti, basa porrue, begiortz, betazala, bidekutza, etxebizitzak, gordeleku, itz joku, jentille-txe, kanpai otsa, labe agea, lixibajotzalle, lizar ostoia, lizar zotz, mandazai, mugarrrie, ozkarea, porrazirie, su-arrie, tellakaskoa, txikillerie, txondar egosle, ziarro papela...*

#### 4.5. Asteko egunak

Ondoko hauek bildu ditut: *astelena, asteaizkena, osteune, ostiala, zapatue, igandea* eta baita ere *jaie* 'igandea' adieraziz.

#### 4.6. Hilabeteen izenak

Aztertutako testuetan hauek agertzen dira: *ilbeltzen, otsaille* eta *otsaalleen, martsue, apille, maietza, uztaile, agostu, urrilleko, abendu*. Horiezaz gainera, beste hauek ere ezagunak dira Zegaman<sup>87</sup>: *garagarrille* 'ekaina', *agorra* 'iraila', *azaroa*; *uztailleren ordez, uztea* jaso nuen.

Urtaroen izenak, berriz, beste hauek: *udaberri, uda, udaizkena* eta *udaitzenen, negue*.

---

<sup>87</sup> Rufina Otaegik emandako hilen izenak hauek dira: *ilbeltza, otsaille, marsue, apiille, maietza, garagarrille, uztea, abuztua, agorra, urrie, azaroa* eta *abendue*.

## 5. ONDORIOAK

### 5.1. Erdialdeko eta mendebaldeko hizkeren arteko ‘zubi’ lana

Gipuzkerak sortutako zenbait berrikuntza eta erdialdeko beste ezaugarri batzuk aurkitu ditut Zegaman, baina, era berean, mendebaldeko hainbat ezaugarri ere indarrean agertzen dira. Esan daiteke, beraz, Ataungo euskarak bezala, Zegamakoak ere ‘zubi’ lana egiten duen hizkeraren egoera islatzen duela.

Ataungoak ez dituen erdialdeko hizkeren ezaugarri bat edo beste baldin badu ere, Zegamako euskarak, oro har, eta behean zehazten dudanaren arabera, mendebaldeko ezaugarri gehiago gordetzen ditu.

### 5.2. Oinarrizko ezaugarriak

Bonaparte printzeak oinarrizkotzat jo zituen ezaugarriei dagokienez, bizkaieraz eta Araban indar handia duen ‘-a + a > -ea’ bilakaera, singularreko kasu guztietan ia sistematikoki agertzen da Zegaman.

Bizkaian eta Nafarroa Garaian bezala, indartsu dago ‘-a > -e/i, u \_\_’ bilakaera.

Beste aldetik, erdialdeko hizkeretara<sup>88</sup> hurbilduz, asimilazio bustidurak indar handia du (Ataunen adinakoa ez bada ere; esaterako, hortzetako herskari ahoska-bea ez da inoiz bustitzen Zegaman) eta sudurkariaren, albokoaren eta batzuetan dardarkari bakunaren ondoren txistukari afrikatuaren aldeko neutralizazioa erabatekoa da.

### 5.3. Gipuzkerak sortutako berrikuntzak

Zegamako hizkeran ez dira falta gipuzkerak sortutako zenbait berrikuntza:

- Nor-Nori-Nork erako saila, -I- erroaz agertzen da.
- [x] ebakera hitz hasieran.

---

<sup>88</sup> Bizkaiko ekialdeko, Gipuzkoa osoko eta Nafarroa Garaiko zenbait hizkeretara, hain zuzen.

- \*Edun aditza, -E- erroaz agertzen da.
- Joan aditzaren NIJOA, DIJOA, ZIJOAZTEN... sarritan agertzen dira.
- d > r bilakaera.
- f > p bilakaera.
- NOR izenordain galdetzailearen ordez, ZEIN erabiltzen da.

Hiruzpalau ezaugarritan, ordea, ez dator bat beste hizkera giputz batzuekin:

- Partitiboan ez da -IKAN agertzen, -IK baizik.
- Ablatiboan ez da -TIKAN agertzen, -TI (eta inoiz -TIO edo -TIK) baizik.
- Hitz amaierako -a-ri, i bokalaren ondoren izan ezik, eutsi egiten zaio.
- ALA hautakaria ez da galdu oraindik.

#### 5.4. Mendebaldetik aldentzen duten zenbait ezaugarri

- 'I'-dun aldaerak baizik ez dira agertzen Zegaman: *irin, iri, iltzea, irten, ille, igel...*
- Txistukarien bi sailak ondo bereizten dira.
zeekiñat [dakin]	zekiñat [dakin]	zekiñat [dakin]	zekiñat [dakin]	zekiñat [dakin]
zeekin	zekin	zekin	zekin	zekin
zeekiñau	zekiñau	zekiñau	zekiñau	zakiñau
—	—	—	—	—
zeekiñea	zekiñe	zekiñe	zekiñee	zekiñea
zeekitzeat [dakitzek]	zekitzeat [dakitzek]	zekizkiat [dakizkik]	zekitzaat eta zekitzeat [dakitzek]	zekitzeat [dakitzek]
zeekitzek	zekitzek	zekizkik	zekitzek	zekitzek
zeekitzau		zekizkia	zekitzeau	zekitzeau
—	—	—	—	—
zeekitzea		zekizkea	zekitzee	zekitzea eta zekitzee
zeekitzenat [dakitzen]	zekitzenat [dakitzen]	zekizkiñat [dakizkin]	zekitzenat [dakitzen]	zekitzenat [dakitzen]
zeekitzen	zekitzen	zekizkiñ	zekitzen	zekitzen
zeekitzenau	zekitzenau	zekizkiñau	zekitzenau	zekitzenau
—	—	—	—	—
zeekitzenea	zekitzenee	zekizkiñea	zekitzene	zekitzenea

### ERANSKINA 3

Xabier Azurmendi Agirre zenaren *Atzoko Zegamako* zenbait kontakizun eta esaera zahar ekarri ditut hona. Kontakizunen ingurukoak, beste esaera zahar batzuk, makina bat istorio eta Zegamako gora behera jakin nahi dituenak jo beza aipatutako *Atzoko Zegama* liburu ezin interesgarriago (*Zegamarrentzat* batez ere, baina baita *zegamar* ez den edonorentzat ere) horretara. Hona ekarri ditudanak, ikerketa lan hau burutzeko aztertu ditudan testuetako batzuk besterik ez baitira.

Esan bezala, testu hauek Xabier Azurmendi zenak bildu zituen eta, beraz, berari zor diot/diogu hona ekarri dudana (eta ekarri ez dudana ere) bilduna eta, baita ere, nire lana egin ahal izateko eskaini zidan aukera.

#### *Atzoko Zegama:*

#### AKETEGIKO DAMEA

Beñ Aketegiko zuloa neska'at jun mentzan ardian atzeti ta kueben ondon urrezko orrazi 'at billau mentzon.

Neskek orrazie etxea eaman tzon baño Aketegiko Damek etzion paken uzten, eunero ala esate'mentzion.

Mañaxi,  
Mañaxi,  
Ekarri neri orrazi,  
Bestela zure familiari  
Kenduko diot grazi.

Neskek bildurtuta beiz ê orrazie kueben ondon utzi mentzon.

*Jexux Altzagari* 1981-7-5ean jaso.

Aketegiko Damea idin forman azaltzen ikusi izan mendue sarri sudurtzulotati sue dariola.

*Jexux Altzagari* 1981-6-4an jaso.

Aketegiko Damea batzutan îtaien forman da beste askotan suzko bolen forman ê azaltze'men da.

*Agustin Arakamari* 1980-1-27an jaso.

Aketegiko Damea Aizkorrin donen egoaldi ona eite' mendo urte guziñ, Aralarren donen beiz txarra.

*Hipolito Arrondori 1981-4-2an jaso.*

Aizkorrin gañen laño txuri'at agiri danen Aketegiko Damea lixibea ta labe sue eiten ai dala esaten da ta laixter egoaldik txarrea eingo dola.

*Hipolito Arrondori 1981-5-3an jaso.*

Aketegiko Damei beti ika ein bear tzako itz.

Bê kueba zolon aurreaka sartu ta atzeaka irten bear do.

Lege ok betetze'ezpadie, Damek suerte txarra eman daike.

*Tomasa Agirrerri 1981-6-3an jaso.*

Aketegiko Damea asarratzen danen, pasatzen dan lekun arbolak eta arbolan adarrak autsiz jutun dala esaten due.

Gaur ê gue gaztiñarin Damea pasau da", esaten tzon gue atxonak, aizek adarren bat eo beste gaztiñariñ austen bazitun.

*Tomasa Agirrerri 1981-3-lean jaso.*

Beñ Iruxtako Erramun gurdie aurreti zola zijon. Oso leku zelai baten gurdie irauli zikon, leku aldapatsu ta murkats galantak pasau bear izan tzitun gero baño etzikon ezer pasau.

Au Aketegiko Damen gauzea izango zala pentsau zon Erramunek.

*Ramon Zabaletari 1981-4-5ean jaso.*

## AKETEGIKO DAMA NOLAKOA DEN

Suzko pelota'aten antzekoa da sue dariola.

*Maria Zabaletari 1981-4-6an jaso.*

Belen forman ê azaltzen da aitzulotan batez ê.

*Ramon Zabaletari 1981-5-2an jaso.*

Geianetan itaien formea eukitze`'o.

*Ramon Zabaletari 1981-5-2an jaso.*

Urrezko orrazikiñ illea orrazten do.

*Jexux Alzagari 1981-3-6an jaso.*

Garbiketea ta jatekoa ostialan eite''itu.

*Hipolito Arrondori 1981-4-1ean jaso.*

Nai donen ekaiztek eta tximixtak sortze''itu.

*Ramon Zabaletari 1981-2-7an jaso.*

Arin gañen jarrita ikusi izan due Aketegiñ.  
*Ramon Zabaletari* 1981-3-6an jaso.

Kuebako sarreran ikusi izan due illea orrazten.  
*Roman Otaegiri* 1981-4-3an jaso.

Aketegiko Damea oso leku aberatsen bizi'a, lo urrezko oian eiten do.  
*Doroteo Otaegiri* 1981-3-6an jaso.

Aketegiko Damei iru aldiz eskatzen tzakon gauzea, seguro emate' mendo.  
*Joxe Alustizari* 1981-4-8an jaso.

Aketegiko Damei Marigaizto re, otseiten dio jendek.  
*Tomasa Agirre* 1980-5-23an jaso.

Antzazuko pralle'at urtero juten tzan gue umedenboran Aketegia sorgiñei konjuroa eitea.  
*Tomasa Agirre* 1980-6-3an jaso.

Zeamako bi abadegai (Jorje Agirre ta Gregorio Arakama) oañ ia larogei urte, kandelak piztu ta Aketegiko zulon barrua sartu mentzien.  
Kandelak itzali ziten da ezin geio piztu âl izan tzituen, etzeren kandelak beinkauta.  
Bela otsak aitzen tzituen da sekulako usai txarra aguantau ezin da irten ein bear izan tzuen bik zuloti.  
*Tomasa Agirre* 1979-2-22an jaso.

Mari Erromako zupie ikutu zon Zeraingo Olabideko neska 'at menda.  
*Migel Urbizuri* 1980-4-13an jaso.

## TARTALOEN ERREGA

Tartaloetxetan bizi mentzan Tartaloan erregea.  
Alaba 'at mentzeuken da alaba orrek aixkirea ein mentzon.  
Attek esa' mentzion orde, bera baño iru gauzatan indartsugoa zan suie bear tzola.  
Aren aixkirea ainbeste bazala mentzion alabak, da iru gauzak aukera zeizkela.  
Lênbiziko lana pago 'at eskuz nork etâko, mentzan.  
Erregek gerri-gerriti eldu pago aundi'ati ta oso-osoik etâ mentzon Izarrako pagariñ.  
Suigaiek, ariberdarona artu ta, beakin pagari guztie ingurau mentzon.  
-Ze eitea zoaz ôla? -galdetu mentzion erregek.  
-Pagari guztie etâtzea.  
-Ez ôlakoik eiñ, egur bê ta ardian abarolekuik bê geau ez gaitzen.  
Bigarren lana, palankan zeñek geio eiñ.  
Erregek palanke urrutia bota mentzon.  
Suigaie, bê palanke eskun tzola, asi mentzan oiuka:  
-Ahí va la palanca hasta Salamanca.

-Ez ôlakoik eiñ -esa' mentzion erregek- nê adreri guztie Salamankan dauket eta.  
Irugarren lana zeñek arrie urrutiago bota.  
Erregek oso urruti arri 'at bota mentzon.  
Suigaiek, kolkoti zozo 'at etâ ta egaka bialdu mentzon.  
Zozoa Akama alden izkuta mentzan.  
Ordun erregek bê alabai gizon arekiñ ezkontzeko baimena ema' mentzion.  
Zegamako Zubieta baserriko *Jose Mari Aseginolazari* 1957an jaso.

## ELIZAKO SAN MARTIN

Zeamako Elizan don San Martiñek morroiak lapurreta bialtze' mentziton San Adriana. Bera re lapurre ta gaiztoa iza' mentzan.

Jendea nola nai iltze mentzon dirukati, baño zeukenai kendu ta etzeukenai ematen ê bamentzekiñ.

Zeamako parrokoa oso laune mentzon. Gauen askotan San Martin parrokon etxea kafea artzea jute mentzan.

Eun baten parrokoa trixte mentzion.

San Martiñek zer tzon ba, da parrokok eantzun mentzion:

-Erri guzie pekatu gorriin dalle, eliztar danak inpernua jungo zat ta neu nola salbauko naiz?

Ori konponduko deu gizona, esan tzion San Martiñek, ta kafea artu ta San Adriana jun tzan.

Urrengo eunen, jaien, goizen goiz San Martin parrokon etxen presentau zan.

Zartain baten ikatza tontorka jarri ta su eman tzion.

"Inpernuko sue", eskau zuk tarteka sermoian da ikusko'ezu jendea nola konbertitzen dan.

San Martin zartañe eskutan tzola Elizako ganbara jun da zulo 'aten ondon jarri zan.

Poliki-poliki jendea Eliza etor tzanen abadek mezea asi zon.

Sermoikon ala zion karraxika:

-Erri ontako jendea! danok inpernua zoazte, pekatari aundi 'atzuk besteik etzate. Jangoikoa, bota jende oni inpernuko sue, zion karraxika.

Parrokok inpernuko sue, deabrun kalderak eta beste milla gauza aitau ondon, beiz e ala eite' mentzon karraxika:

-Jangoikoa, bota jende oni inpernuko sue.

San Martiñek txingar danak batea bota zitun zuloti.

Elizan jendea lau gorriin tzion.

Parrokok beiz e:

-Bota su geio jende gaizto oni.

San Martiñek ganbarati:

-Jaune, ne suk gastau die.

Jendea orduntxe lasaitu mentzan.

---

San Martiñek aizkeneko eunetan Jangoikokiñ e pakek ein nai izan tzitun.

Elizea aunditzeko dirue berak ema' mentzon.

Zeukenai kendu ta etzeukenai eman, Elizako San Martiñek eite mentzon.



Orreati do Zeamako patroï ein da, gero Elizako atalburun jarri zuen.  
Eliza dana ez mentzon eiñ, erdi pareti aurreakoa bakarrik.

*Doroteo Otaegiri jaso 1980-8-7*

## EUZKITZEKO JOANE

Gue atte zanak Joane zon izena, karlistan gerraten ibil tzan Euzkitzen asistente. Ba mentzon beste laun bat e Tolosa aldekoa.

Gerra ondón zeozer ein bear da Somorrostroko minatan tolosar onek eta bik lana ein mentzuen.

Txanpon batzuk irazi zitunen, gue atte bizitzen Euzkitzen jarri zan ezkondata.

Eun baten, Arabati zetorrela, San Adriango Portun lapur batek irten tzion bidea.

Emaiek diruk, esa' mentzion lapurrek, ontan, gue atte ezautu ein tzon lapurrek.

-Kontxo, jarri ai emen, motel, i alako aiz. Ze eitek?

-Emen nellek - gue attek ezkondu nitzean, da famillie azten ai nauk nola o ala.

Lapurrek, Somorrostron lana eitek etzola mezi ta Sandratin lapurretan tzellela esan tzion. Emen dirue minatan baño errezago irazten tzala ta olako kontuk.

Pañuelokara 'at ontzako urre eta mentzon poltsikoti.

-Ik ê artu zak zeozer, esa' mentzion.

Gue attek artu nai ez.

Ontzako'at ema mentzion da Urkiola(\*\*)alden izkutau mentzan.

Laun aren berrik geio ez mentzon jakiñ.

Amaika aldiz esan oi zon, ontzako arekiñtxe erosi zola lenengo idi para.

*Joxe Mari Arakamari jaso 1977-8-4.*

## SAN ADRIANGO LAPURRA

San Adriandi barrena mandazai bat mentzizon mandoa urrez kargauta zola.

Atzeti norbeitek seitzen tziola konturau zan mandazaie, baño aurea seitu zon.

Alakon baten Opakua gañea allau zanen, seitzen tzetorkionak "alto" bota zion mandazaie ta dirük eskau.

Mandazajek txoakilloa mandoi kendu, lapurre jo burun da ill ein tzon.

Lapurre Santi Espituko frallea izatea gertau zan.

Orduti galdu mentzan Espitu Santuko kombentue.

*Doroteo Otaegiri jaso 1990-5-7an.*

## SANTI ESPIRITUKO PRAILEA

Aratz azpiñ, oañ arrik daren bezela, lênao mea o burni gai pusketak mentzeren.

Beiñ olagizon bat ai mentzan burnie biltzen.

Santi Espituko pralle'atek ori ikus tzonon, aballan arri'at ipiñi ta tiaü, jo burun da seko utzi mentzon gizona.

Fralle ok etzuen errukik pobrekin.

Espitu Santuko prallek gizon txarrak mentzien.

*Bernardino Asurmendiri aspaldi entzuna*

## EGURTZEKO JOANE (I)

Karobie eiten aitu mentzan eun guztiñ Egurtzeko Joane.

Gauen arrebai esa'mentzion.

-Neska, geio lanik ein bearrik etzeukiñau. Kaja urrea billa 'iñat.

-Eztek egie izango!

-Bai, Txaparrin billa'iñat eta bertati Aizkorriko Kûtzea ikuste`en.

Urrengo eunen Joane, bê launekin, karobie eitea jun tzan.

Karobiñ arkue ezin tzon eiñ argiñek eta Joane pikotxen jarri mentzan arkui eusteko.

Giltzarrie jartzeko momentun, arkue eroi ta arrik azpiñ artu zuen Joane, ta bertan lertu ta il tzan, bê asmo ta amets ta guzi.

Jendea gauen illargitan askotan ibilli iza' menda urre billa Txaparrin.

Iñok ezto ezer billau oañ arte.

*Bernardino Azurmendiri* askotan entzuna.

## KAJA URREA (II)

Aizkorriñ ardik larren diamantea zapalduz mendaitze.

Artzaiek, aleñek eiñati ez tue diamante ori billatzen.

Bedaio Aizkorrondon urrea billau mentzon baño jasotzea juteako ill ei' mentzan.

Bedaion urrea Urtzelaitati ikuste'menda.

*Jose Alustizari* 1981-7-5ean jasoa.

## KAJA URREA (III)

Arrabiolako paren kamiñon, eun baten gizon bat geau mentzan kamiño 'aztarren.

Poltsikoti papel pusketa 'at etâ ta denboratan kontuk eiten eo' mentzan.

Alako ordutan da lekutan da eunetan, euzkik jotzen tzon lekun beitu zon da kaja urrea billau ta ju'mentzan.

Jendea arrituta utzi zon.

*Inazio Urbizuri* 1980-8-3an jasoa.

## KAJA URREA (IV)

Zumitz Urkullu gañen do Ojaola. Beiñ Ojaolati bêra zetortzen Antzaza ta Goiene.

Goienek Antzazai Frantzin tzelleneko gertakizun au kontau mentzion.

-Ni Frantzin nellela, gizon bat billau nian sekulako premiñ.

Erreal bateati sekreto 'at aindu zerean. A ze esan tzien.

Ojaolako zulon kaja urrea ziola. Arkazi'at ikusko nola espartsu soka'at bueltan lotu-ta zeukena. Arbolen azpiñ aurreaxio losa'at tziola ta losa orren azpin kaja urre 'at.

Beida jarri zien da arkaziñ espartsu sokea ikus tzuen da aurreaxio losea re bai.

Bi gizonak losea jasotzen asi zien da Antzaza gerrin zartarea ein tzikola ta lurrea eroi zan.

Goienek Antzaza etxea eamanda utzi zon.

Urrengo goizen jun tzikon Goiene Antzazai, Ojaola jun bear tzuela ta, baño Antzazak gauze etzan papela ein tzion.

Aizkenen, astelenean goizen goiz Ojaolâ jun tzieneako, anai bik, Antzazak eta Osintak kaja urrea billau ta jasota zeuken.

Goiene aua bete ortzekiñ utzi zuen.

*Inazio Urbizuri 1981-4-7an jaso.*

#### KAJA URREA (V)

Oltzen, kueba'aten, kofre'at mentzion urrez beteta.

Kuebea seguro zein dan iñok eztaki.

Muñoko Dominika' zionez, kofrea aspaldi eama'mentzuen.

Besta 'atzuk oaindio an dola esaten due.

*Ramona Azurmendiri, 1993 - 6 - 18an jaso.*

#### MUSASO ZAHARRA ZEAMAN

Zeamako ipuinetan, erriko etxeik zârrana Musaso zala esaten due.

Musasoko lénengo biztanlek Jentillek mentzien.

Dilubion ondon, Jentillek etxebizitzak menditan ein tzituen, dilubio berrin bat etor-tzen bazan ê, Musason, Sâdarren, da Santi Espitun jarri zien batez ê bizitzen.

Santi Espituko Jentillek eta Sâdargok asarratzen tzienean, mendi'ateti bestea arrika ai-tze' mentzien.

Santi Espitun mendare enterrauta Jentillek.

Jentillek sarri aitzen tzien pelotan, Aizkorri frontoitzat eta Arri Aundi pelotatzat artuz.

Jentillek kastau zienean, Musason abadea jarri zan bizitzen.

Gaur Zeaman Elizea don lekun, garai artan altzak eta txarak bakarrik tzeren.

Musasoko abadek mezea Andutzako Elizan ematen tzon.

Abadea mezea ematea eskopetekin da goardikin juten tzan.

Zeaman garai artan otso asko zion da basoz estalita zeren mendik.

*Eduardo Irastortzari jaso 1980-6-9*

#### MUSASOKO ABADĒA (I)

Musasoko abadek kalendarioik ez ta jaie noiz tzan jakiteko, eunen saski 'at eite men-tzon.

Seigarren saskie eiten tzonean, urrengo eunec jaie zala bazekin da Andutzâ mezea ema-tea juten tzan.

Garai artan Zeaman baso aundik tzeren da otso asko zion da bâzpare goardie ta esko-petea ematen tzitun.

*Eduardo Irastortzari jaso 1980-6-9*

## MUSASOKO ABADEA (II)

Musasoko abaden sankristaue, eun baten, Maiñamendi aldea ju' mentzan egurretá.

Abadek galdetu mentzion.

-Nun izan aiz?

-Maiñamendiñ otaka'atzuan billa, labe sue eiteko. Aizu-esa' mentzion sakristauek abadei, sâtsa loran do ta garizumea ez teu ia urrutiñ izango.

-Garizumea ba ote diau bâ? Jun ai Tolosa aldea, or jendea gu baño aurreago ibiltze'ek, jaki' zak Garizuman noiz sartzen gan.

Sankristaue Tolosâ allau zanen, orduntxe ai mentzien aste santuko prosesioa eiten.

Sankristaue Zeamâ bueltau zan da abadei ikus tzonan kontu eman tzion.

Abadek esa'mentzion:

- Motell, aurtengoa jun dala kontu, guk datorren urten ein bearko diau Garizumea.

*Eduardo Irastortzari jaso 1980-6-9*

## MUSASOKO ABADEA (III)

Musasoko abadea asto gañen ju' mentzan beiñ Andutzâ mezea ematea ta abadea mezea ematen ai zan bitarten, astoa Dînti aldea larren jun tzikon.

Astoik agiri ez ta azalduko zala ta abadea oñez ju' mentzan etxea.

Bitarten astoi otsoa azaldu zikon.

-Jan ein bear aut -esan tzion otsok astoi.

-Itxoizak pixka'aten, Andutzan mezea entzuten utziek ondo iltzeko -astok otsoi.

Astok mezea entzuteko permisoa artu zonen, Andutzako Elizan sartu ta atzeko bi ankakin jo ta Elizako atea itxi zion otsoi.

Elizati astok otsoi ola kantatze mentzion.

Otso zârria gazie,  
gaztetan gaizki azie.  
Gero jango banauk ere  
Seguro diat bizie.

Otsok astoi.

Asto zârria mukizu,  
sobre ta geio dakizu.  
Urrena ikusten tzaituanen  
mezaik entzungo ez tezu.

*Eduardo Irastortzari jaso 1980-6-9*

## MUSASOKO ABADEA (IV)

Musasoko abadek, esan deun bezela, sei saski eiten tzitunen jakiten tzon jaie noiz tzan.

Beiñ aste barrun, neskamek saski 'at arrapau zion ixilka saltzeko.

Aste artan jaiko partez, astelenen jun mentzan Musasoko abadea Andutzâ mezea ematea.

*Eduardo Irastortzari jaso 1980-6-9*

## SAN JOSEREN IPUINA

San Jose zârtuta ezkondu mentzan.

Egitoa mentzijen Jesus umea besotan tzola ta asto gañen, Ama Birjiñek biai seitze'-mentzien oñez aston atzeti. Ama Birjiñek Jose zârta zala ta gizonai utzi zion asto'gañen jûtea.

Jende guzie San Joseati gaizki esaka ai mentzan.

-Ori gizon kaikue, bera asto gañen da andra gaxoa oñez zemarrek.

San Josek Ama Birjiñea asto gañen ipiñi ta bera oñez asi mentzan ibiltzen.

-Ori emakuma errukigabea,- esate'mentzon jendek, bera asto gañen da agure zârta atzeti oñez.

San Josek esa'mentzion Ama Birjiñei:

-Beida Maritxu, emen gizonan gustoik eiteik ezto ta ein dezaun Jangoikona.

*Justo Aldanodori 1996-3-18an jaso.*

## LURRAREN LANAK

Jangoikok mundue ein tzonek, lurrei ala esa'mentzion.

-Landarak, animalik eta gizonak i ao mantendu bearren.

Lurrek lan ori bêtao geiegi zala esan tzion.

Jangoikok kontestau mentzion:

-Bai ori dana lan aundie dek itako, baño aizkenen danak eorrek jango 'ituk.

*Inazio Urbizuri 1981-9-5ean jaso.*

## MUNDUA NOLA EGIN ZEN

Jangoikok mundue ein tzonek, abadea, prallea ta baserritarra ein tzitun.

Abadea jun tzikon lënbizi eskabidekiñ.

-Ze nai dek? Galdetu zion Jangoikok.

-Bizimodu ona.

-Artu zak ba, iñok oaindio etziek eskau ta.

Laxter prallea re an etor mentzikon gizajoa, Jangoikoi bizimodu ona eskatuz.

-Bizimodu ona abadek eaman dik, esan tzion Jangoikok, ik pazientzikin konformau bearko'ek. Pazientzikin naikoa trixte erretirau zan pralle gizajoa komentua.

Aizkenen Baserritarra etor tzikon Jangoikoi bizimodu onan billa.

Jangoikok esan tzion:

-Abadek eaman dik.

Baserritarrak ordun pazientzie eskau zion.

-Pazientzie-esan tzion Jangoikok-prallek eaman dik. Iri lana emango diat bi alper orik mantentzeko.

Au dala ta baserritarrak ainbeste lan ein bear izate'mendo.

*Jesus Mazkiarani 1981-2-8an jaso.*

## GIZONA, ASTOA ETA TXAKURRA

Jangoikok mundue ein tzonek, lendabizi gizona, astoa ta txakurre ein mentziton.

Bakoitzei berroeiña urteko bizie eman tzien.  
Astok, astoa izatekotan ogei naikok tzitula esan tzion.  
Gizonak astok nai etzitun urtek eskau zion Jangoikoi ta onek eman ein tzion.  
Txakurrek ê, ogei naikok tzitula txakur izateko ta beste ogei urtek nai zitunandako utzi zitun.

Ogei urte orik ê, gizonak Jangoikoi eskau ta onek eman ein tzion.  
Orreati gizonak, lénengo berroei urte' titu gizonanak.  
Berroei iruroeira famillie kolokauko bo sekula baño lan geio ein bear izaten do ta urte orik astonak eo astoi artutakok menditu.  
Iruoeiti laroeira, gizona gizatxartuta ta eozin gauzakati armonin da muturka ibiltzen dalako, urte ok txakurrei artu' tiela esaten da.

*Jexux Mazkiarani 1981-2-8an jaso.*

## ZAPOAREN ETA SATORRAREN TRATUA

Oañ urte asko, zapok begik ez mentzeuken da buztan luzea lurren tarraka zola ibiltze mentzan.

Satorra beiz, sekula argik ikus bê ta lur zamarrak begitati etâ ezinda zellen lurpen.  
Bein bik tratu'at ein tzuen.  
Satorrak zapoi lurpen bear etzitun begik eman tzion da zapok berak bear etzon buztana satorrai.

Tratukin bi animalik gustora geau mentzien.

*Frantzisko Azurmendiri 1981-9-5ean jaso.*

## GURASOEKIN NOLA PORTATU

Etxe 'aten bein, semek atte zârra ospitalea eamatea erabaki zon, danandako asko bear tzala ta.

Atte zarra ta ezin tzan ibilli ta semek bizkarren artu zon.

Ibillin seme ori re nekau zan da arri'aten gañen jarri zan deskantsatzen.

Atte zârak ordun nearrai eman tzion.

-Atte ospitalea nemarrela ementxe deskantsau nitzean ni re.

Semek ori aitu zonen, atte bizkarren artu ta beiz e etxea eama' mentzon.

*Jose Alustizari 1981-8-7an jaso.*

## ERREGEREN ZALDIA

Beñ erregei zaldie akâu zikon da esa'mentzon abixo ori berai ekartzen tziona ill eingo zola.

Amorratue, aitu bearke 'ik pâ abixoa neuk esanda, esa' mentzon soldadu 'atek.

Jun tzako ta ala esa'mentzion erregei.

-Zue zaldie etzanda do.

-Ta zer?

-Sudurreti eulik sartzen tzako ta ipurditi irten.

-Ordun akauta eongo 'ek?  
-Zeuk esan dezu dana.  
-Koño, esa' mentzon erregek, au baño tontogok bazeuzkiat nê ingurun, da ministro ei' mentzon.

*Eduardo Irastortzari 1980-8-9an jaso.*

## SALOMON ERREGEA

Salomon errege izatea allau mentzan.  
Atte oso ganadero aberatsa zon da asko matte mentzon.  
Askotan bialtze' mentzon morroien ê bat atte nola zion ikustea.  
Bein Salomonek esa' mentzon:  
-Nê atte il dan abixoa ekartzen diena ill eingo 'et.  
Atte orire noizpait il mentzan.  
Iñor ez mentzan atrebitzen Salomoni berrie ematen.  
Euskaldun batek esa' mentzon:  
-Neuk esango zioat.  
Ju' mentzan Salomoneana ta esa' mentzion:  
Asteliñaute il bera.  
Asteariñate il berri.  
Ire atte eztek ez gose ta ez egarri.  
-Beraz il dek.  
-Ori beorrek dio.

*Joxe Alustizari 1995-3-20ean jaso.*

## ERREGE GAIZTOA

Eri'aten oso errege gaiztoa zeuken. Jende guzie erregea ilda ikusteko deseaten tzion.

Andra xâr batek bakarrik errezatze mentzon eunero erregea ill etzeiñ.

Erregek au aitu zonen, andra ori bê aurea ekartzeko aindu zon.

Erregek andrei galdetu zion:

-Jende guzik ni iltzea nai do ta zuk zeati errezatze''ezu ill ez naiñ?

-Beitu jaune, kontestau zion andrek, nik zue attona ezautu non. Gaiztoa zan oso ta danok ilda ikus nai gendun. Aizkenen il tzan da zue atte jarri zan aintzen, zue attona baño askoz okerragoa.

Gero zue atte iltzea nai gendun da eaman tzon ura re gue Jangoikok. Urrena zu etor tziñen aintzea ta aurreko bi' paño okerragoa zâ. Jakizu oan zeati eunero errezatzen dian zue osasunen alde.

*Jesus Mazkiarani 1981-3-4an jaso.*

## ERREGE PROBINTZIALAK

Españiñ errege probintzialak eon tzienen, aizkenekoa, moroa Granadan eon mentzan.

Palazion aurren emakuma txarrân etxe ‘a’ tzion da askotan autza juten tzan erregea. Bein maritxu (\*) âtako ‘atek ala esa’ mentzion.

-Or ondoren daren pralle orik, (gertun komentua ‘a’ mentzion) emendi biali beaitzezu, jan besteik eztue eiten da.

Erregek ori zalle zala esaten tzon bañõ maritxuk esan tzion iru galdera eiteko pralle-ai, emateko illabeteko astie asmatzeko ta asmatze’ ezpazituen, bialtzeko andi.

Iru galderak o’ tzien.

I) Nik zembait balio diat?

II) Zemait denboran mundui bueltea emango niokek?

III) Zer tzeukiat burun?

Galdera ok biali zitun komentua, illabeten barrun eantzuteko ta kontestazioik ezpazan, prallek Granadati irten bearren tzeren.

Illabete ortan aztorauta ibil mentzien pralle gizajok, iñok jakintsuanak ê ez mentzonen ezer asmatzen.

Gernikako lego’at ba mentzion komentun da ala esa’mentzonen:

-Nik erantzungo diet erregeen galderai.

Erregei erantzuteko eune allau zanen, lego orrek jantzi ‘o nausiñ abiturue ta irten dio tokatzen tzan bezela erregei.

-Nê galderak pronto al dare? Galdetu zion erregek.

-Baietz.

Erregek galderak asi zitun.

I) Nik zemait balio diat?

Jesukristo oi ta amar diru zillarretan saldu zien, da ire balioa geianea jota oi ta beaitziñ utzi leikek.

II) Zemait denboran mundui bueltea emango niokek?

-Euzkin gañen jartzen baiz oi ta lau ordun.

III) Nik zer tzeukiat burun?

-Ik ni emengo nausie naizela daukek burun sartuta ta izatez komentuko legoik tontoana nauk.

-Au tontoana bek, esa’ mentzonen erregek, ze izango ete ‘ek listoana?

-Noan emendi ta pralleai paken utzi ta andi alde’ mentzonen.

*Eduardo Irastorza* 1980-6-9an jaso

**(\*) Maritxu Zegaman emagalduren eufemismo bat da.**

## ASTOA

Jangoikok mundue ein tzonean, animalia guztiai, bakoitzei tokatzen tzikon izena jarri zien.

Andi denboratâ, animalia guzik beiz bildu zitun Paraisoan da bakoitzei bê izena galde-tu zien, baten batek aztu ete zon jakiteko.

Astona allau zanen, astoa etzan bê izenakiñ akordau ta -âztu ein tzat- esan tzion Jangoikoi.

Jangoikok ordun esa’mentzonen.

Aztu e? Emendi aurrea “aztua” izango ‘ek izena.

*Jesus Mazkiarani* 1981-5-8an jaso.



## BELEAREN ESAOLA

Artzai zeren bi motiko atsalden. Talok etâ zituen kolkoti merindatzeko.

Esola'aten gañen belea ikus tzuen, aren atzeti abiau zien baño, arek ies ein tzien.

Motikok okelea eon tzan lekun koipe pixkân bat geauko zala ta esolan igortzi zuen taloa, jan baño lên.

Etxea jun tzienen amai pasaizoa kontau zien da amak bijili eune zala eun ura ta konfesatzea bialdu zitun.

Emendi mendatorre esaerea: Ori belea eondako esolea baño obea zio.

*Eduardo Irastorzari 1981-3-6ean jaso.*

## ZORRITSU

Andra'atek gizonai zorritsu otseiteko oiturea zeuken, da gizonandako beiz ez mentzion itz orre' paño amorru aundigoik ematen tzion gauzaik.

Amaika bizkarreko ematen tzion gizonak baño alperrik, arek beiz ê zorritsu ta zorritsu.

Eun baten andrei eldu ta bozaderan gerriaño sartu zon, beiz zorritsu esaten bazion bertan itoko zola ta.

Zorritsu ta zorritsu atsoa ala re.

Okotzeaña uretan sartu ta atsok igoal, zorritsu ta zorritsu.

Sartu ezpañetaño ta berdiñ.

Eldu mototi ta sartu mentzon uretan buru ta guzti ta glu, glu, glu.... eñez, beatz aunditako bi azkazalak bilduz, zorrik iltzeko planteia eite'mentzion gizonai.

Ala il mentzan atso ura bereti irten bê.

*Jexux Mazkiarani 9-5-1980ean jaso.*

## SATORRA ETA TRIKUA

Bein satorra bê zulon tzion, bero bero.

Negue zan da sekulako izoztea ai zon.

Triku'at etor tzikon, ia izoztuta ta leku pixka'at bê ondon eiteko erreguka.

Satorrak lekue ein tzion.

Ontan, satorrak lo artu zonen, trikue aztarketan asi zan oia eiten, buelta ta jira.

Sator gizajoa zulau eiten tzon trikuk bê ezten tzarrakin da miñ ematen tzion.

-Autzago jun ai, miñ ematen diek, esaten tzion satorrak: - Eztiak bizitzen uzten.

-Ni ondo niok -kontestau zion trikuk, -gaizki bao jun ai nai dian lekua.

Sator gizajok biziko bazan, bê zuloa utzi ta izotzetâ irten bear izan tzon.

*Frantzisko Azurmendiri 8-9-1980an jaso.*

## KAMINEROA

Kamiñero'at bein, lanen nekau ta deskantsatzen jarri zan.

Alkondarea atxur kirtenân gañen zâldu ta izardie leortzen jarri zon.

Erregea andi pasatzea suertau zan zaldi gañen da deabrue beti jolas txarrak eiten nola

dallen, aize bolara'atek atxur kirtenen tzion alkondarea moitu zon da zaldik iruipenen bat artu ta erregea lurrea bota zon.

Erregek lurreti jaiki zanen galdetu zion kamiñeroi:

-Nola zioan or zapi ori?

-Izarditan busti ta leortzen jarri'et jaune. Kontestau zion Kamiñerok.

-Ikuste'ek ze itxuratan geau naizen? Erregek.

-Beitu kamiñero.....esan tzion erregek -geio ez aiz sekula izardituko, aitze 'ek?

Ordun Erregek bando au eman tzon:

-Todo kamiñero sudau,

Será fusilau.

Arrazkio kamiñeroik ez menda izarditu.

*Jesus Mazkiarani 7-8-1980an jaso.*

## ERREGEREN ALABA

Erregen alaba beñ ia illen mentzion.

Meikuk konforme bizi zan pertsona 'aten alkondarea jantzita sendauko zala, esa'-mentzion erregei.

-Ori errexa 'ek, esan tzon erregek, -ori besteik bear ezpõ alaba laster sendauko diau.

Morroiai enkargu au eman tzien:

-Billau zue Palazion gustora bizi'an bat da eskaiozue soñeko alkondarea.

Morroiak ministroai asi zien ia konforme bizi zien galdezka.

Batek baietz esaten tzon baño semekin disgustok zeuzkela.

Bestek baietz konforme bizi zala baño andren menden.

Besta'atek baietz konforme baño zartzen tzijola.

Aizkenen beintzet erabat konforme bizi zanik etzuen billau palazion.

Munduz mundu asi zien morroiak, konforme bizi zan gizonan billa.

Aizkenen, mendi izkutu 'aten gizon bat ikus tzuen ikatza eiten.

-Orrixe galdetu bear tzioau, konforme bizi 'an.

-Bai zea, ori nola biziko'e' pa konforme? Esan tzion bestek; ikazkiñe ta konforme?

-Motel eztek bate kostatzen da galdetzea nijok ni beintzet.

Galdetu zien ikazkiñ orri ia konforme bizi zan da ikazkiñek:

-Baietz oso konforme bizi zala bera, etzeukela ezen faltaik.

Ordun erregen morroiak ikazkiñei alkondarea kentzen asi zien baño etzeuken alondaraik ikazkin gizajok, bluxazâr bat besteik etzemarren jantzita.

Erregen alaba gaxoa ill ei' mentzan.

*Franzisko Azurmendiri 9-6-1980an jaso.*

## ERREGEAREN AURPEGIA

Bein, mendi baztar baten, ikazkin bat bizi mentzan, andrea, gurasok eta seme-alabakiñ.

Erregek beñ, eizen tzellela, familli arekin topo ein tzon, da ikazkiñei nola bizi zan galdetu zion.

Ikazkiñek oso ondo bizi zala kontestau zion, taloa ta babea jaten tzitula, ta iturriko ur garbie eraten tzola.

-Zemait irâzte ezu, galdetu zion, erregek.

-Eunen bi erreal irâzte`itut, illen aizkenen iru duro.

Ain diru gutxikin nola bizi zan, galdetu zion erregek.

-Beitu jaune, kontestau zion ikazkiñek, nik diru onekin nê famillie mantendu, ta ga-  
ñea zorrak pâu, geroko dirue gorde, ta sobratzen tzatena leiotti botatze`et.

-Erregek ori nola zeiken, galdetu zion.

Ikazkiñek erantzun tzion:

-Atte ta ama zârrak mantentze`ituanen, zorrak pâtzen ai naiz, alaba`a`tauket, eoziiñ  
eunetan txoriburun batekiñ ezkonduko zat, ori mantentzen dianen, dirue leiotti botatze`et,  
seme `at ê bauket, da ori mantentzen dianen aurreatze`et dirue. Seme orrek jasoko nau  
eunen baten, nik gurasok jaso`ituan bezela, o` tie nê kontuk.

Erregek esan tzion ikazkiñei:

-Nekiñ eon aizela ta ze irazten dian iñoi esaten badiok, nê arpegie beiz ikus baño len  
ill eingo aut.

Bestei` pê erregea bê biden jun tzan.

Erregea minixtrokin bildu zanen, gôr ekin tzion oni:

-Nê erreinu guztiri i ta ire mûko `atzuk ai zate lur jo eraiten, ala ta guziz, ordea, ba-  
zeok nê mendekoan arten gizon bat zorionen bizi `ana, langillea, leiala. Arek zembait irâz-  
ten don ik jakitea ta gizon ura bezela nê mendeko guzik bizitzea nai diat.

Minixtroa gizon orren billa ta billa asi zan, da aizkenen billau zon ikazkiñ ori, bê  
umekin da andrekiñ ikatza eiten ai zan.

-Ze irâzte ek? Galdetu zion minixtrok.

-Ez esateko ordenea zeukiat. Erregek bê arpegie beiz ikus baño lèn nê irazian berri  
iñoi ematen bazioat, ill eingo nauela esan tziek.

-Erregen arpegie emen daukek urrezko diru ôtan. Artuitzek diru ok, da esaiek ze  
irâzten dian.

-Erregek kontu artzen baziek ze esan bear tzioat?

-Beitu, erregen arpegie ikus dek urrezko dirutan, itze bete `ek. Erregek ez au ilko.  
Zemait irazte ek?

Ikazkiñek minixtroi ze irâzten tzon esan tzion aizkenen.

Erregen belarritâ laxter allau zan kuebako ikazkiñen kontue, ta amorru biziñ otsein  
tzion oni.

Ikazkiñe ikus tzon orduko asi zan erregea derrepente il bear tzola esanez.

Ikazkiñek esan tzion:

-Jaune, zue arpegie ikus dian arten, iñoi eztiot nê irâzian berrik eman.

-Nun ikus de` pâ nê arpegie?

Urrezko diruk erakutsiz, kontestau zion ikazkiñek:

-Diru ôtan Jaune.

Erregea ordun lasaitu mentzan.

*Migel Urbizuri 1980-6-9an jaso.*

## EZKONTZA HAUSTEA

Bein Zeamako parrokoï aspalditi ezkondata zeren andra-gizon batzuk etor mentzi-  
kon: lènao ezkontzaz lotu zitun bezela, beiz apartatzeko eskatuz.

Andra-gizonak esaten tzuenez, eren etxea inpernue baño milla aldiz okerragoa zan da  
an bizitzeik etzion.

Abadek apartau nai zuen andra-gizonak ezkondu zitun aldaren aurea eaman tzitun, berak sotanen gañeti roketea jantzi zon da ixopoa eskutan tzola “Pater noster” ak erreza-tzen asi zan.

“Pater noster” bat akâtzen tzon bakoitzen, kinki-kanka burun ematen tzien andra-gizonai kolpe on bana. Asieran bikotea lasai zion errezoa laxter akauko zalakon, baño abadek segi ta segi, lêngengo ordubete ta gero bi ta okerragoa, bukatzeko itxuraik ê etzeuken errezok.

Errezo ura noiz akâtzen tzan galdetu zien parrokoï.

-Ezkontzek bat ill arten irauten tzola, ta berak errezon seitu bearra zeukela, bitan bat ill arten, kontestau zien.

Inpernu ura baño etxekoa naigo zuela ta senar-emaztek etxea ju’mentzien.

*D. Jose Antonio Arakamari aspaldi entzuna.*

### KAMIÑERON IZARDIE

Bein erregen alabak sekulako gaitz txarra arrapau mentzon da meikuk kamiñeron izardikiñ emandako masajek bear zitula esa’ mentzon.

Asi mentzien kamiñeron izardiñ billa.

Ez mentzuen iñun izardi ori billatzeik konsegitu.

Erregen alaba gaxoa il ein mentzan.

Kamiñeroa menda izardik ezton gizon bakarra.

*Frantzisko Azurmendiri 1980-3-9an jaso.*

### ZEGAMAKO TXIXTULARIA

Bein, txixtulari ‘at ju’mentzan Zeamati Naparroko erri txiki ‘atea pestatan txixtue jotzea.

Pestak pasau zienen, soldaten partez, zaku ‘at gari eman tzien txixtulariri.

Erria zetorrela, biden kantsau ta taberna ‘atea sartu zan arrantxoia eitea. Bitarten txixtularie konturau bê, xagu ‘atek zakue zulau zion.

Pixka ‘at gosea il tzonen, zakue beiz ê bizkarren artu ta biden abiau zan.

Poliki poliki, bera akordau zaneako, garik geianak biden galdu zikon.

Etzan bate asarrau, datotzen gari berritan etorko nauk, da lasai asko etxea jun tzan.

Urrengo uztaillen itaie artu ta garie galdu zikon lekua jun tzanen, galdu zikon gari dana erne, azi ta ebaitzeko garaien tzion.

Ontan basaurde’atek irten tzion gari artea ta txixtularik itaie tiau ta kirtena ipurdiko zulon sartu zion.

Basaurde ori asi zan korrikan da itaiekin garie ebaitzen tzon, ankapen jota jaulkita uzten tzon bitarten. Sudurreko aizekin gari dana garbitu zon da aizkenen, zellen zellen, anakikiñ ale guztie bildu zon, txixtularie sekulako garik etxea eaman beste lani’ pê utzi zon.

*Frantzisko Azurmendiri 1981-4-7an jaso.*

### ZEGAMAKO PRAILEA

Zeamako Erretorek beste askotan bezela, Antzazuti pralle ‘at ekar mentzon San Bartolome eunen sermoia eitea.

Neskamek bi eper jarri mentziton lapikon da bazkarie jartzen ai mentzan elizgizon-  
ândako.

Ontan neskei aixkirea etor mentzikon da kazuelan zer tzeuken da bi eper tzeuzkela  
ba, ta proatzen asi ta poliki-poliki eper orik jan ein tzituen.

Motille jun tzanen neskek bê burue bakarrik billau zon.

Larri asko zerbait asmatzen asi zan.

Ontan prallea etor tzan da jarri zan maien.

Neskek esan tzion:

-Beida Jaune, gue nausik oitura'at oso txarra 'auke, maien jartzen danen kotxilloa  
zorrozten asten bâ, belarrik moztuko dio.

Prallea, ze ikus bearko ete zon, larritu zan.

Ontan etor tzan Errotorea re etxea, maien jarri ta asi zan bazkaltzeko kotxilloa zo-  
rozten da baita prallea re igesi larri asko.

Neskek esan tzion Errotorei:

-Orrek bamatze geo eperrak!

Apaizek prallen atzeti irten tzion.

Bik ezpazien, bat beintzet emateko eskatzen tzion.

Prallek belarri'at eskatzen tziolakon, laxter ei' mentzon Antzazuako bidea.

*Santiago Azurmendiri 1981-9-6an jasoa.*

#### AIZKORRIKO PUNTA

Bein zeamar bat trenen tzetorren Ormazteiti gora, erdeldun bat ondon tzola.

Izketan asi die ta erdeldunek zeamarrai nungoa zan da onek zeamarra zala ba.

Erdeldunek Zeama nun tzion, galdetu mentzion.

Zeamarrek burun tzemarren txapela erantzi ta esku 'aten gañen zâl-zâl jarri mentzon  
txapel ori ta ala esa'mentzion erdeldunei txapela señaletuz:

-Esto ser mundo: -eta gero txapelan puntea erakutsiz-, esto Aixkorriko punta y aqui  
abajo Zeama.

*D. Jose Mari Agirrebaltzategiri 1980-9-7an jasoa.*

#### JOXEPAIÑAXI IA HILEAN

Joxepaiñaxi izeneko andra 'at mentzion bein Zeaman ia illen.

Besteko Joanamari an mentzellen gaxoa, ama zanak ill aurreti zulon baten gorde zon  
burruntzin billa buru belarri, ama zana il tzaneti.

Aspertu zanen, bestekoa jun da ôla itz ei' mentzion iltzen tzion besteko amonaxoi:

-Joxepaiñaxi, Joxepaiñaxi, etzâ ilko baño ilko baziñe, etzâ zerua jungo baño jungo  
baziñe, eztezu ikusko baño ikusko bazendu gue ama, esaiozu papel punta 'at bialtzeko es-  
krituta, burruntzie nun gorde zon esanez.

*D. Jose Maria Agirrebaltzategi 1980-9-7an jasoa.*

#### ZEGAMAÑO ELIZA NOLA HAZI ZEN

Zeaman elizea txikitxoa zeukela ta azitzea pentsau mentzuen.

Erri guztiko asto danak bildu ta Urbiti ximaur karreon asi mentzien.  
Ardi ximaure ekarri alan, elizako paretei jartze' mentzien lurren, azak eo artok beze-  
la, elizea re aziko zalakon.

Aste oso onson aitu mentzien lan ortan, da aizkenen paetak erdi pareño ximaurrez es-  
tali mentzitzen.

Zapatu gauen sekulako eurik ein, da ximaurre urekin bajau ein mentzan, paetatan ba-  
jaunen markak utziz.

Zeamarrak gustora mentzien, ximaurrek eta eurik elizea azi zuela ta.

Erria zetorren jendei elizako paetea erakuste' mentzien, da ximaurren markea, elizea  
zemait azi zan ikus tzezen.

### CON UN TIKILI-TON

Zeamako kanpantorren sekulako kanpaia mentzion baño bakarra.

Beti kanpai bera jo bear izaten tzan, naiz meza nausin naiz bezperatan, sutea eo ago-  
nikoa bazan ê berdiñ.

Eun baten erri dana bilduta, kanpai bakarrakiñ iru txikigok eitea erabaki zuen.

Gurdir Bitoria biali due kanpaia, sakristaue itzai zala. Ura mentzan errin erderaz tze-  
kin bakarra.

Fundizioa allau zanen ia ze nai zon bâ ta, bai azkar asko Zeamako sakristauek eran-  
tzun ê:

-Con un tikili-tikiliton tres tikili-tikilitones.

*Franzisko Azurmendiri 1981-8-6an jaso.*

### SAN BARTOLOMETAKO SERMOIA

San Bartolome eunen lenao, erriko seme 'atek sermoia eiten tzon Zeaman.

Ara, bein batek nola asi zon berea.

-'Zer dira, Segurako Xanti, Motilloko Pello, Zeraingo Mari, Izalgo Blax ta Gabiriko  
Roke, gure Arbeleko San Bartolome Aundiarekin konparatzeko?

*Franzisko Azurmendiri 1981-8-4an jaso.*

### SAN BARTOLOME BEZPERAKOA

San Bartolome bezpera 'aten, errotorea ta sakristaue Andutzako ermitan santue  
apaintzen ai mentzien, urrengo euneko prosesiorako.

Deskuidon baten San Bartolome ori lurra eroi ta autsi ein tziten.

Urrengo eunen ze ingo ete zuen larri zeren bik.

Aizkenen Parrokok gauzea konpontzeko modue billau zon.

San Bartolome goizen, sakristaue jarri zon abadek santun andatan, kotxillo aundi'at  
eskutan tzola. Gañea arpegie eztiz igurtzi zion santun kolorea artu zezan.

Prosesioa oso ondo ein tzuen, engañukiñ etzan iñor konturau.

Errotorek sermoia asi zonen, sakristaue an tzion tente asko, eskubiko eskun kotxilloa  
zola.

Etsaie ez menda lo eoten da eztiñ usaira erlek etortzen asi zikon sakristauei.

Sakristau gizajoa elorrio ikusten ai zan erlek tziela ta etziela. Eskuk moitzen bazitun, benetako San Bartolome etzala konturauko baizan jendea.

-Orra, zion sermolarik, orra or Arbeleko San Bartolome.

-Beida iozue, bizik dola dirudi, moitzen dala esan leike.

Sakristauek erlean miztokaraz aspertuta ala kontestau mentzion.

-I re moituko itzeke nê lekun ba eoke.

*Franzisko Azurmendiri 1981-9-4an jaso.*

## SAN BARTOLOME BEZPARAKOA

San Bartolome bezperan bein, sakristauek eta errotorek Zeamako elizea atsalden apaiñ-apaiñ utzi zuen.

Sakristauei Elizea ixtea âztu zikon da gauen auntz bat Elizan sartu, lora guzik jan da baba mordo'at aldara aurren ein da iges ein tzon.

Urrengo goizen, abadea Elizâ jun tzanen auntzen babak billau zitun.

Sakristaue, otseinda Elizâ ekar tzon.

-Ikuste'ek? Ok San Bartolomen erregalo' tituk. Bildu itzek kuidaduz.

Sakristauek babak bandeja 'aten bildu ta erlikik bezela gorde zitun.

Urrengo eunen, jendea Elizâ etor tzanen, errotorek esplikau zien gaueko erregaloan berri ta sakristauei bandeja ekartzeko aindu zion.

Errotorek jendei komulgatorion jartzeko aindu zion.

Bandeja artu ta eliztarrai San Bartolomen erregalok aura ematen asi zan, itz ok esanez.

Ok eta mok,

Aita San Bartolomen erregalok,

eztie gorputzendako oso gozok

bai animendako probetxosok.

Jendek auntzen babak debozioik aundianakiñ artu zitun.

Erregalok banau zituenen, bost eo sei auntz baba geatzen tzien oaindio bandejan.

-Ok itako 'ituk, -esan tzion errotorek sakristauei-,jarri ai belauneko.

-I elizgizona aiz ta iri erregalok latinez emango diat.

Eskukara babea sartu zion auan esanez:

Accipite kakimine prost,

i elizgizona aiz ta otxo lau eo bost.

*D. Jose Munduateri aspertu artean entzuna.*

## AIUNTAMENTUKO AULKIA

Zeamako Elizan, garai baten, Aiuntamentuko aulkie txikigie mentzion da aundigo'at ein bear tzala aindu zon alkatek.

Aulkie ingo bazan egurre bear tzala ta arbola'at botatzea jun tzien erriti Partzoneria sei gizon.

Aizkorai' pê jun tzien ordea.

Ordun arbolea buelta guztiñ eztenez zulau zuen, ia eroitzen tzan bañio alperrik, arbolek zuti iraun tzon.

Ordun gizon bat arbola adar bateti zintzilika jarri zan da aren ankatati beste bostak bata besten ondoren zintzilikau zien.

Ainbeste gizonen pixuz arbolea eroiko zala uste zuen.

Denbora pixka'aten ôla eon tzien, baño adarra elduta ziona, danan pixui eusten nekau ein tzan.

Bê launai esan tzien:

-Motillek, eskuai txixtue ematea nijok da eon zuek irmo.

Onek eskuk soltau zitunen danak sasia eroi zien da sasiti erbi'atek irten tzon igesi.

Ara! Baten bat il dek emen -esan tzon batek-,baten baten animea jun dek orti zear itxumustun.

Iñor il tzan ikusteko, batek koadrillea kontau zon, baño bê burue kontatzea âztu zikon da, jakiñe, bat falta.

Ordun Mattoloi esan tzien kontau pasara'at eiteko, bera zala erriko gizonik argiana ta.

Mattoloi ê bê burue kontatzea âztu zikon da ala esa'mentzon;

-Motillek, emen bost gerek.

-Iñor falta dan garbi jakiteko,-esan tzon Mattolok- gauza biun baten beatzak sartuko zitua ta ikusko diau danok emen garen ala ez.

Ontan kaka pilla 'at ikus tzuen da:

-Ia motillek! sartu beatzak!

Raaa...! Ta danak beatzak sartu zituen kakatan.

Kontau zituen zulok da sei zeren.

-Ai demonio!!!-esan tzon Mattolok-.Bation batek bi beatz sartu zituk emen. Zein dan baneki!!

Aizkenen etzuen jakin zeñ il tzan.

-Biarko jakingo diau zeñ il dan,-esan tzon Mattolok-,gizona falta 'an lekun etxekok akordauko 'ituk.

Danak gauen etxea jun tzien, baño urrengo goizen iñun etzan azaldu gizonan faltaik.

Arbola ori nolabait bota mentzuen beintzet eta ôlak ein da aulkie re ein da jarri zuen Elizan.

Jaien aiuntamentuko gizonak ju' mentzien en kapa aundikin meza nausia ta ez mentzien aulkin kaitu.

Urrengo eunen aulki ori luzau ein bear tzala ta plazâ etâ mentzuen, da alde bakoitze-ti idi pare 'at lotu mentzien.

"Aida" alde bateti ta "Aida" besteti, aulki ori tiraka ebali mentzuen, luzauko zuelakon.

Naikoa izango zala ta geiegi aulkie luzatzea re etzala komeni ta lanen aitu zien amar gizonak jarri mentzien aulki ortan da ondo kaitze mentzien.

Langillek ordea alkondara utsen tzeren, ez kapa ta ez sombrero.

Lana ondo ein tzuelakon aulki ori Elizan jarri zuen beiz ê.

Urrengo jaien beatzi kontzejal da alkatea eren kapakiñ etor tzienen beiz ê etzien kaitzen.

Beiz ê urrengo asten, idi pare lotu ta aulkiri tiraka ibil mentzien. Alkondara utsen ondo kaitzen tzien langillek beiz ê baño, urrengo jaien kapadun alkate ta kontzejalak kaitzen ez.

Aizkenen beintzet, nolabait moldau bear da kontzejal bat Aiuntamentuti biali ta ein mentzuen aulkin danandako lekue.

*Franzisko Asurmendiri 1981-8-8an jaso.*



## JOAN MUÑO

Asurmendi Muñon ba mentzan Joan izeneko gizon bat.

Karrille eitekon bi lixteroi izena emate' mentzien da illen aizkenen bi jornal kobratze' mentzitun.

Bein Segura ju' mentzan markesai errentea pátzea.

Markesa trixte billau mentzon, txakurrek etziola jaten da.

Joan Muñok markesai lasai eoteko esan tzion, txakurre berak sendauko ziola ta.

Markesak pozik asko txakur ori Joan Muñoi eman tzion, ondo zaitzeko txakurre ta ondo zaitzeko txakurre esanez. Ta bear tzien gastuk eiteko berak gustora pâuko zitula ta, karnizeriti bear tzan aragie re eamateko, gastuan bildurrez ez ibiltzeko ta ôlamuzko enkar-guk eman tzion gizonai.

Joan Muño ori txakurre sokati zola jun mentzan etxea ta txakurre sartu mentzon txerritegiñ.

Txakurren aitzakiñ aragie erosi ta berak jate mentzon.

Amabost eunea txakur ori artu ta markesai eaman tzion da txakurrek emandakoa jate' mentzon.

Joan Muño markesak erregalokin biali mentzon etxea.

Andi aurea Joan Muño aitatzen tzanen markesak esate' mentzon:

-Joan Muño? Ura bai gizona, eskolea izan balo, auskalo ze izango zan ura.

*Frantzisko Azurmendiri 1980-6-9- jaso.*

## SAN IXIDROREKIN ESKEAN

Urtzulaita Zârreko Joxe Miel otea jotzen ai mentzan.

Motiko 'atzuk etor tzikon esken.

-Zer daitzue ba motikok?

-San Ixidrondako diru esken gatoze.

Joxe Mielek ala kontestau mentzien:

-Utzi zue santue urdai asken gañen. Aurtengo negun neuk mantenduko diat. Ia santu gizajo orri lepo mē ori pixka 'at gizentzen dioan.

*Joxepa Azurmendiri 1995-3-1ean jaso.*

## ARTZAREN TRANPAK

Artza, Zeamako gizonik aberatsanetakoa zan. Askotan alkate izaten tzan da diputadu re bai.

Goialdeko baserri geianak berek mentzitun.

Bein baserriar bati apuestoa ein mentzion.

Artzak esate' mentzon, katuk baiez argi eiñ etxen kandlekin, baserriarrak ezetz.

Errenta dirue jokau mentzuen.

Artzak katue ezita mentzeuken da bi manotan kandlea lotu ta atzeko ankan gañen ibiltzen erakutsi mentzion.

Artzak baserriarrai, katue kandlea manotan lotuta zola soltau mentzion.

Baserriarrak poltxikoti xague etâ ta katui bota mentzion.

Katuk laxter bota mentzon kandlea.  
Artzak apuestoa galdu ein tzon.  
*Doroteo Otaegi. 1995-2-4ean jaso.*

#### AZERIA ETA OTSOA

Bein axarie ta otsoa asarrau mentzien.  
Axarie otson aurreti igesi abiau zan da bê burue gordetzeko kueba zulo `aten sartu zan.  
Otsoa re, axariñ atzeti etorri ta onen billa kueba beren sartu zan.  
Otsok ankati eldu zion ortzakiñ axariri.  
Axarik ordun esan tzion otsoi:  
-Demonio tontoa, nê ankei ozka ein bearren pago zuztarrai eiten diok.  
Otsok axariñ ankea utzi ta pago zuztarrai eldu zion, da ordun axarik iges ein tzon.  
*Eduardo Irastorzari, 1981-7-3an jaso.*

#### AZERIA ETA PUTREA

Bein putre 'at zortzi eunen jan bê mentzellen da axari 'at billau mentzon.  
Ala esan tzion axariri:  
-Gaur zerun pestak tzerek, nai al dek etorri?  
-Bai, jungo nitzeke' paño nola?  
-Jarri ai nê gañen da eamango aut.  
Axarie putren gañen jarri zanen, putrea zerun bueltaka asi zan.  
Ontan bizkarreti axarie bota zon.  
Axarik goiti bêra zetorrela Aizkorri esaten tzion:  
-Alde pareti Aizkorri, bestela autsiko aut!  
Axarie lurre jo zonen txikituta geau zan da bitarten, putrek axarie janez pesta ein tzon.  
Axarik esaerea danez, laroei ta emereatzi tranpa dauzke.  
Gizona' peiz eun. Orreati gizona' pakarrik arrapau daike axarie. Ipui ontakoa axarin deskuidon bat izango menda.  
*Eduardo Irastorzari 1981-5-3an jaso.*

#### AZERIAREN HIRU EGIK

Axarik bein mandazai batekin topo ein tzon.  
Mandazaiei esa'mentzion.  
-Eama'nauk mando gañen Portu gañea ta iru egi esango diat.  
Mandazaiek artu zon axarie mandon gañen da goiko Portun jatxi zanen iru egi ok kontau mentzion mandazaiei.  
I) Egie...Batzuk esaten dia illargitan gaue, Abenduko eune baño argigoa ete 'an. Ori ez tek òla. Eune beti gaue baño argigoa 'ek.  
II) Egie...Batzuk esaten dia, artoa erre berriñ ogie baño gozogo dala. Ori ez tek egie. Ogie beti artoa baño gozogo 'ek.

III)Egie...Praka zarrakiñ allela baño ni bezelako klientek billatzen baituk, beiz ê ala ibil bearko 'ek.

Ontan axarik kolpen salto ein tzon mando gañeti.

Mandazaiek, amorrazion, eskue bota zion, baño alperrik izan tzan. Axarie iges einda zan.

*Eduardo Irastorzari 1980-8-23an jaso.*

## AHUNTZA ETA ZAZPI AHUNTZUME TXIKIAK

Beñi etxe 'aten, auntz bat bizi zan zazpi antxuma txikikiñ.

Amak enkarguk ein bear tzitun da kalea abiau zan. Antxuma txikiai txintxo eoteko esan tzien.

Antxumak bakarrik geau zienen jolasen da okerrak eiten asi zien saltoka ta txiki-zion.

Ontan, "dan, dan, dan", atea jo zuen. Antxuma txiki guzik jolasai utzi ta galdetu zuen:

-Zein da?

-Amatxo naiz, zâldu atea. (Otso zârria zan)

-Etzâ zu gue amatxo, gue amatxok boz leune 'auke, ez zu' pezelako zakarra.

Otso zârria konturau zan boz lodi ura leundu bearren tziola antxumak engañatzekotan da auzoko ullategi 'atea jun da arrautza zuringo pilla 'at jan da ðla boza leundu zon.

Beiz ê jun tzan antxuma txikita ta, "dan, dan, dan", atea jo zien.

-Zein da?-galdetu zien antxuma txikik.

-Amatxo naiz, zâldu atea.

Otso zârrik boza leunduta zeuken da auntzen-antz antzekoa.

-Sartu ankea katuzuloti ia amatxo zan.-Antxumak barruti.

Sartu zon ankea katuzuloti ta ankea bel-beltza zan.

-Gue amatxok anka txuri txuri' tautze, zu etzâ gue amatxo, erantzun tzien antxuma txikik.

Ordun otso zârria errota 'atea jun tzan da ogiriñ askan ankea sartu ta txuri-txurie etâ zon.

Antxuma txikian etxea jun tzan otsoa ta beiz ê atea jo zien "dan, dan, dan."

-Zein da? -galdetu zuen antxuma txikik.

-Amatxo naiz, zâldu atea.

-Erakutsi ankea katuzuloti.

Otso zârrik erakutsi zien anka txuri-txurie ta antxuma txikik ama zalakon atea zâldu ein tzien.

Sartu zan karraxika otso zârria etxea ta asi zan antxuma danak tragatzen. Bat, txikian, paretako erlojun kajan gorde zan.

Otso zârria antxumak tragau zitunen erreka jun tzan ure eratea ta gero lok artu zon.

Ama etor tzanen, erlojun gorde zan antxumea billau zon bakarrik nearrez.

-Ze pasau da, antxumatxo? galdetu zion amak.

Antxuma txikik ze gertau zan kontau zion.

Auntzek guraizak, jostorratza ta arie artu ta antxuma txikie laun tzola otso zarrân bi-lla jun tzan.

Erreka baztarren tzion lo.

Guraizakin tripea zâldu zion otsoi ta antxuma txikik banaka-banaka arten bizik etâ zitun otson tripati.

Gero tripea arriz bete ta beiz jostorrazakin josi zion.

Danak etxea jun tzien.

Otso zârra esnau zan da zuti jarri zanen, tripako pisui eutsi ezin da erreka eroi zan da an ito zan.

*Angeles Azurmendiri 1980-9-4an jaso.*

## URTZULAITAKO MARIE

Bein Latsaneti bêra otsoa ta axarie zetotzen.

Asurmendi barneko zupia allau zienen, uretan illargi betea ikusten tzan.

Otsok axariri galdetu zion:

-Zer dek ori?

-Ze izango 'ek pâ, artzaie' mati uretâ eroi zakon gaztaia.

Otsoa erreka baztarrea jatxi zan, bañõ ezin tzon gaztai ori artu ta ordun esan tzion axarik:

-Ola eztek artuko, alperrik alle. Era'zak potzuko ure estriña, ta errekea leortzen dânen gaztaia artu daikek.

Otsoa asi mentzan ure eran da eran, bañõ tripan kaitu ezin da auti eran alan, ipurdiko zuloti irtetzen tzion erandakok.

-Ola eztiat ustuko potzuik, laundu iek-esan tzion otsok axariri.

Axarie etorri ta arta-morkola sartu mentzion ipurtzulon, da ala, eraten tzon ur dana tripan geatze'mentzikon.

Otsoa aitu mentzan ure eran da ure eran, bañõ aizkenen geio ezin da eratei utzi ein tzion.

-Gaozeak Urtzulaita aldea -esan tzion axarik otsoi-, gaur garijotzen aitu 'ituk âtsalde guzin da ia ezen berri' ton.

Urtzulaitako etxen atzen sekulako gari pillea zion da jendea, ukulluko lanak eiten ai zan.

Axarik otsoa gari pillâ eaman tzon da ipurtzoloko morkola etâ zion da sekulako urek irtetzen tzuen otson ipurditi ta ure garie eamaten asi zan.

Axarie karraxika asi zan:

-Urtzulaitako Marie, ure' tamarrela garie! Urtzulaitako Marie, ure' tamarrela garie!

Urtzulaitan Mari izeneko andra'at tzion da karraxik aitu zitunen, etor tzan da garie urek tzemarren. Makilla 'atekin sekulako palizea eman tzion otsoi.

Bitarten axarik, leion afaltzeko ozten tzion kazuelakara aie jan tzion Mariri.

Aizkeneko ai ondarrakin bê burue zikindu zon axarik.

Urtzulaitati gertu otsok eta axarik alkarrekin topo ein tzuen. Otsok esan tzion axariri:

-Zuti eoteko enauk gauze Marik eman dien palizekiñ.

Axari' peiz:

-Palizea esate''ek? Nei buruko muñek etâ ziek golpeka, beitu iek muin danak zuri-zuri nola dauzkian burun. Ia illen niok, eaman nauk bizkarren Osintâ aldeañõ.

Otsok eaman bear iza'mentzon axarie bizkarren Osintati gora don pagaiañõ.

*Franzisko Azurmendiri 1980-2-8an jaso.*

## TXEPETXA ETA PUTREA

Txepetxak eta putrek, beñ apuestoa ein mentzuen zein gorago io.

Egaka asi zienen, txepetxa putren luma tarten gorde mentzan.

Putrea al tzon gorana igo zanen, txepetxa putren luma arteti irten da putren gañea igo ta esa' mentzion:

-Ara ni, i baño gorago.

Txepetxak apuestoa irazi mentzion.

*Jesus Mazkiarani* 1980-8-21ean jaso.

## ANIMA ERRATUA

Gue atte ta gaztek tziela, jai atsalden, neska ta motillek Kortatxon biltze mentzien. Atsaldea kontu kontari juten tziten: Ipuiek kontatzen askotan, gezur aundigoa zeñiek esan da olako pasaizotan ê bai beste askotan.

Beñ oligo gordiñen usaie aitzen tzala ta "Pater Noster" bat errezau mentzuen, anima erratue ingurun tzeillela ta.

Oligo gordiñen usaie eukitze' mendue purgatorioko animak.

*Joxepa Azurmendiri* 1980-9-5ean jaso.

## BEGIKOA (I)

Zeamako Urlia (2) bein, saski arbie bizkarren tzola soroti zetorren.

Errekatxoa allau zanen, ezin tzan alde 'ateti bestea ezeati pasau.

Saski arbik plomok baño pisu aundigoa artu zion da gizona lertzeko zorin jarri zan.

Urliak bê arten ala esaten tzon:

-Gue besteko sorgiñe ai dek oañ ê lanen.

Ontan saskie lurren utzi zon da deskantsatzen tziola, beitu zon etxekoanea ta sorgin famako emakuma ori berai beida zion.

Alako 'aten, sorgiñe etxea sartu zanen, saskik pixu normala artu zon beiz ê ta errez bizkarrea jaso ta etxea saskie normal eaman tzon.

Urlian ustez, sorgiñek beidatukin saskiri pixue aldatzen tzion.

*Santiago Azurmendiri* 1980-8-8an jaso.

## BEGIKOA (II)

Zenbait pertsonak (sorgiñak) beidatu utsekin pertsonai eo ganaduai erasten dien gaitze da begikoa (mal de ojo).

Norbeit etxe 'aten sartzen tzanen, begikoik eite etzon señaletzat, esaldi ok esan bear tzitun.

"Nê begik gaitzik ez tezaiola eiñ", umea ikustakon.

"San Antoniok beinkau dezala", ganadue ikustakon.

Kanpoko 'atek ume 'at eo ganaduk ikustakon esaldi ok esate' ezpazitun, begikoa eiten ai zan señalear zan.

Ume txikie eo ganadue ikusten etzikon eozeñi uzten.  
Ganadue umeiteko baldin bazion oaindi gutxigo.  
*Joxepa Azurmendiri 1980-8-7an jaso.*

### BEGIKOA (III)

Txala eiteko zion beie ikusten etzikon eozeñi uzten. Gue auzon bazan sorgin famako emakuma 'at da norbeit ukullun, txala ein bear tzon beie zaitzen eoten tzan auzoko atso onek begikoa eiñ etzeion.

Oira juteakon gauen errezau ê eiten tzan, iñon begikoik bê, txala ondo jaio zediñ.

Zenbait emakuma, jendek erabat sorgintzat eukitzen tzitun. Emakuma ok etxeti urru-tiago ta obe izaten tzan.

Ume txikiri re, emakuma ok beitzea txarra zala esaten tzan.

Umei beitzekon, emakumek umei begikoik etziela eiten ai eraiteko, esaera ok esaten tzituen.

“Jangoikok beinkau dezala”.

“Nê begik ez tezaiola gaitzik eiñ”.

Esaera ok 1965ean korriente esaten tzituen Zeaman Goialdeko emakuma zârarak.

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-5ean jaso.*

### BEGIKOA (IV)

Bein umea nitzela, txerrie zaitzen nellen etxeti Egurtze aldeko gaindaran.

Ontan Maria Muño pasau zan da txerriri beida eon da iñoi ezer esan bê etxaldea jun tzan.

Etxea ju'nitzenen, amak galdetu zien: “Maria Muñok, nê begik gaitzik ez tezaiola eiñ, esan al tzion txerriri?”

Ezetz bâ, txerriri beida eon tzala baño etziola ba ezer esan.

Andi eun batzutâ txerrie il tzan.

Gue amai, txerrie Maria Muñokon begikoz il tzala etzion iñok buruti kendu.

Maria Muñokoa, sorgin famako emakuma'at tzan.

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-3an jaso.*

### AKAMANNEKO ALBERGAN (I)

Zeaman, batez ê Goialden, jendek alkarrekiñ Elizâ juteko oiturea zon.

Etxeti kamiñoa irten da taldei itxuiten tzikon da koadrillan juten tzan jendea mezatâ.

Gizonezko gizonezkoekin da emakumezko emakumezkoekin juten tzien.

Eun baten, Egurtzeka Maria, Amiñagoneko Joxepa Antoni ta Jabierra zetortzen erro-sarioa errezatuz antxitiko mezatâ.

Akamaneko Intxaurdiko albergan norbeit lixibea jotzen ai zan.

Iru amonatxok, blisti ta blasta, oso ondo aitzen tzuen lixiba otsa.

Albergâ allau zienen “eun on Jangoikok” esan tzien lixibea jotzen ai zienai.

Iñok etzien erantzun.

Lastazon argitan albergâ allau zienen, asto' at tzion bertan.  
Sorgiñek aston formea artu zon nunbait.

*Joxepa Azurmendiri 1980-6-7an jaso.*

### IKEIZKO MARIA JEXUX (II)

Gue atte oso gaztea zala, gauen etxea zijon Atxatxeko Atonio Marikiñ. (Au ordun Egurtzen bizi zan)

Metal ure eranda re, etzien jungo ta, esa' mentzion batek beste: "I, Ikeizko Maria Jexux sorgiñe dala re esaten dia ta autsek ibiltze'itula re bai, ikusi'at eingo al tzioau?"

Baietz, ikusi ein bear tzuela atso ori ta alkar ondo arrotu mentzuen.

Besteik bê eskillatati gora igo ta atea jo zien.

Ze nai zuen da, gauza 'at galdetu nai ziela. (Barrua sartu mentziton)

-Ze jakin nai zenduen ba.

-Zuk autsek ê ibiltze'ituzula esaten due, erakutsiko al diuzu? pauko 'izu.

Atei atalagea jarri ta motillek sukaldea eama'mentziton.

Ez mentzon beste mundukoik etâ. Asi mentzan surtako autsek moitzen, subiñapeti re etâ mentzon zerbait da akabo, an galdu mentzuen memorie.

Nola irten tzuen ez mentzien konturau ta ze ein tzuen ê ez.

Eun sentin gue atte Sâdarren esnau mentzan, alkondara guzie puskauta zola.

Antonio beiz Segurako Santa Barbaran.

Ez mentzien geio Ikeitzen sartu.

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-8an jaso.*

### IKEIZKO MARIA JEXUX (III)

Beste 'aten ê Egurtzeko Maria, Amiñagoneko Joxepantoni ta Jabierra Elizâ zijotzen Amiñabarneti bêra ta Otalotati gora Ikeizko Maria Jexux sorgiñe mentzitorren.

Iru andratxok errosarioa erreztatzen zijoatzen.

Garai artan emakumak Elizâ errosarioa erreztatuz juten tzien.

-Zer dailtzu garai otan?, galdetu zion andratxo otako 'atek sorgiñei.

-Ein tzitunat nê ibillaldik -kontestau zien sorgiñek- Laño guzian azpiti ta sasi guzian gañeti, Amerikati bueltan ibil naun.

Iru andratxok ori aitukin batea attaren ein mentzuen.

-Bai, orrek eite'izue on-, esa'mentzien sorgiñek.

*Joxepa Azurmendiri 1980an jaso.*

### IKEIZ GONEKO LANTXA (IV)

Ezkion Ama Birjiñea argitu zanen, Maria Morak San Pedroko Elizan errosarioa erreztatzen tzon.

Auzoko andrak ê bertan biltzen tzien.

Ikeiz Gôneko Lantxai parte txarrekon batek etzion erreztatzen uzten da lo artzen tzon.

*Joxepa Azurmendiri 1980-3-7an jaso.*

## IRUXTAKO ARDAZKETA (V)

Iruxtan andrak ardatzea biltzen tzienen, katu beltz aundi 'at etortzen tziten sukaldea ta andra guztik eskuk lotuta bezela geatzen tzien.

Ardatzen eziñ eiñ izaten tzuen.

*Joxepa Azurmediri 1980-7-9an jaso.*

## LIXIBA (VI)

Gue ama ta neskak tziela, Espalioi gora mentzetozen beñ gaeuz, Goialdeko neska koadrilla'at.

Errekan sekulako lixiba otsak aitzen tzien, blisti ta blasta arrin gañen.

Errekan ze ete zellen beida jarri zienen, sekulako otsak aitu zituen:

-Ez gâla ta bagaitun, amalau milla emen gaitun.

Neskak sorgiñan bildurrez, azkar jun tzien etxea.

*Joxepa Azurmendiri 1980-7-4an jaso.*

## APAIZA ETA AMA SORGINE

Apaiz bat ama zârarkin da neskamekin bizi zan.

Neskamek abadendako jartzen tzon arrantxo, katu beltz aundi 'atek ondatze' mentzon.

Neskamek, katue ama izango ete zan antz artu ta etxeti aldeitea zizon.

Apaizei esplikau zion bē erabakie, onek arrituta, zeati zizon etxeti ta zeati zizon gal-detzen tzion.

Neskek esan tzion:

-Beitu, beorrendako jartzen dian jana, katu zar batek ondatze'`it. Katu ori etxekoa dan iritzie 'auket.

Abadek au amakati esan tzola pentsau zon.

-Eon zu lasai, ta amakiñ Elizâ jun tzan mezatâ.

Mezea akâu zonen, abadea etor tzan amana da-goazen etxea-, esan tzion. Amak ezetz, errosario 'at errezau bear tzola oaindio.

Apaizek mezako liburue zabalik utzi zon aldarán apropos.

Beiz ê -goazen etxea-, ta amak ezetz, etzitula errozok akâu. Aizkenen amak esan ein bear izan tzion aldareko liburue zâlik tzion bitarten ezin tzeikela Elizati irten.

Altaren gañen meza liburue zâlik baldin bado, sorgiñek ezin mendaike Elizati irten.

*Migel Urbizuri 1980-5-8an jaso.*

## KATU BELTZA (I)

Garaí artan ardik udan Aizkorrin jasten tzien.

Etxe 'akoitzeti neskan bat eo motillen bat juten tzan illuntzan Aizkorria ta ardik jatxi ta gero, neska motillek danak etxaola 'aten lo eiten tzuen.

Urrengo goizen beiz ardik jatxi ta gaueko ta goizeko esnekin jendea etortzen tzan etxea.



Ollantxoko Joana Mari re, askotan Aizkorriñ lo eiñe mentzan.

Goialdeko etxe geianetan tzien ardik da ganadui seitu ein bear izaten tzako.

Iruxtako gizon batek ganbaran gari jotzen ai zala, ara ze kontau zon beñ.

-Maddarikatue!!! Bart Altzukango atsok artu'ik eddarra!!!

Iritxo berri ta bera, Aizkorriñ ardik jatxi ta netorrela, aurrekalden katue alajaña, miau ta miau ta miau biden erdi-erdin jarri zitean.

Etziela pasatzen utziko.

Mantxa beltzak tzeuzkian.

Marmita-agekin jo nian bizkarran erditi bêra.

Emaiek besta'at, emaiiek besta'at. Golpea nones nai arek! (3)

Enioan besteik eman.

Gaur goizen jakin diau, Altzukango atso mokorra autsita dola.

*Joxepa Azurmendiri 1980-9-4an jaso.*

### KATU BELTZA (III)

Zeaman etxe'aten katu beltza azaltzen tzan gauero.

Sukaldeti ukullua ibiltze mentzan, etxeokan ankatan mokorrek igurtziz.

Sukalden esaten tzuena aitzen tzellela esa' mentzeiken.

Urrengo goizen, auzoko atso sakatx bat, baserriñ esan tzituen kontuk banatzen ibiltze' mentzan kaleik kale.

Baserriko gizonak beñ, erabat aspertu katu orrekin da gauen, arbi buru'at tiau ta aurreko ankea katui autsi zion.

Urrengo goizen atso ori, esku'at igeltsotan tzola azaldu mentzan kalen.

*Santiago Azurmendiri 1980-4-8an jaso.*

### KATU BELTZAREN TRANPAK

Musason andra gizon batzuk bizi mentzien, etzuen umeik. Gauen gizona oira jundakon, andrea korutan geatze' mentzan sun epelen.

Gauero, katu beltz bat tximiniti'sartu ta etxeokandrea urdai pusketa`at erretzea bear-tze' mentzon. Gero, omaiti'afaltzen sobrau zan artoa artu ta ase arte jate' mentzon.

Andrea festa ôkin nazkau ta gizonai kontau mentzion gertatzen tzikon ixtorie.

Gau`aten, gizonak andrea oira biali ta bera asi mentzan korutan.

Urdaie erretzen tzeuken surtan.

Katue sartu mentzan tximiniti ta gizona korutan ikus tzonen, esa' mentzion:

-Gizona ta korutan?

-I, katue ta berrikitan?

Ordun gizonai galdetu mentzion:

-Nola`ek izena?

-”Nik neuri”.

Gizonak andre bezela urdaie ondo erre zonen, urdaie ta erretzen tzion koipea katui muturrea bota mentzion.

Katue tximiniti gora ju' mentzan karraxika.

Sorgin launek, karraxik ok aitu, ta zer tzon galdezka etor mentzikon.

-Zeñek eman diñ miñ? -galdetu mentzien.  
-”Nik neuri” -erantzute’ mentzon katuk.  
Sorgin launek esa’ mentzien:  
-Euk eure burui eindako miñe sendau zan eorrek.  
*Migel Urbizuri* i980-6-9an jaso.

## SALBATIERRAKO FERIAK

Gue atte Salbatierrâ noiznai juten tzan.  
Goizen lauretako irten etxeti ta gauen amaikatako beiz ê etxen izaten tzan.  
Salbatierrako feritâ 14 eo 15 bat urte bete nituneti ni re eamate’nitun.  
Goizen lauretako etxeti irten da Sandratiko kuebati Araban sartze’giñen oñez. Zaldu-  
ondon aman aizpa genduken da aren etxen gosaldu ta ekite’giondun bidei.  
Gue attek Arabako bidek eta terrenk ondo ezautzen tzitun, segatan gaztctan lur âtan  
danetan ibillie zan da morroi ê eon tzan erderaz ikasten urtetan.  
Arabian garibaitzea itaiekiñ eiten tzuen gue atten denboran da gerogo re bai.  
Araba-belarra esaten tzikon belar bat garilastok ia erdiaño eukitzen tzon da gari soron  
segaik sartzeik etzan eoten.  
Garai âtako goldak etzien gerokok bezelakok.  
Arabian etzan laian eiten, sallek ê aundik eta egurrezko aga lodi ‘ati muturren errorok  
eindako burnizko punta ‘at jarri ta ura izaten tzan goldea, arekin lurre pixka ‘at urratzen  
zuen satorrak bezela.  
Araba-belar ori garie baño lën indartzen tzan da gariñ gerriaño azten tzan. Golda kax-  
kar ak belar oni etzien zuztarrak austen. Gue attek esaten tzon, îtan belar onen gañeti ebai-  
tzen tzuela garie, burue ta lasto pixka ‘atekiñ.  
Arabian lastoik etzan aprobetxatzen.  
Arabian golda berriak eskerrak labrantzea pixten asi zala esaten tzon gue atxe zanak.  
Arabako lurre lur zurie eo lur gorrie da. Giro onakiñ oso lur gozoa ‘a. Gu Salbatie-  
rrako feria Zalduondoti oñez juten giñen, oaiñ kamiñok einda dare baño ordun sorok ba-  
rrena jute’ giñen oñez. Eurie einda balin bazion, ankatan sekulako lur pillea peatzen tzi-  
kun da pausoik eman ezinda geatzen giñen.  
Gipuzkoan die lur lodik.  
Arabako lurrek zelaiek die, eiten don eurie lurrek txuputzen do, ez emen bezela, eurie  
danen baztar guzik erreka. Lurrei azala sekau ati bean umedadea geatzen tzako. Esponjek  
bezela lurrek ur dana eraten do.  
Arabako nekazarian ongilleik aundñak Ajuria ta Aranzabal izan tzien, ok sartu zituen  
golda berrik.  
Europati ekarri goldak eta emen saltzen tzituen. Erak ê dirue ingo zuen baño jendei  
bentaje edarra re ein tzien.  
Gollada ok aundik tzien da Araba-belarrai zañek puskatzen tzien. Ola galdu zan soro-  
tan belar au.  
Salbatierrâ allatzen giñenen lënengo ferie ikuste’gendun.  
Tabernak ê asko etzeren ordun da jende asko izaten tzan.  
Bazkarie induabea ta azea odolkiñ da gañen ardiki pixkan bat eta kito izaten tzan.  
Orduako mâtsa ta pipar aundik eoten tzien saltzen.  
Gue attek panaderia jun da kiloko ogie erosten tzon, beste kilo paren bat mâts ê bai

ta an plaza baztarren ogie ta mâtsa jan da gue bazkarie ura izaten tzan.

Gue atte zanak poltxikon emakumean buruko pañueloa ematen tzon. Mâts pixka 'at eta piparraundin batzuk artu pañuelon, pardela ein da gauen amaikak aldeako Altziturrîñ izate' giñen.

Garai artan Zeaman mâtsa gauza aundie zan, frutaik etzan txorikeizak eo sagarren batzuk kendu ezkio.

Agustiña naparra esaten tzien emakuma aundi 'at asto beltz aundi batekiñ etortzen tzan Zeamâ. Astasaskitan ekartzen tzitun txermiñan batzuk, pipar aundik, mâtsa ta tomate ten batzuk.

Asto beltzan gañen jarrita azaltzen tzan Zeaman. "Agustiña naparra, tomatea ta piparra", otseiñez etortzen tzan.

Txermiña aundik bakoitze bost xentimon, txikik bazien txakur aundiñ iru saltzen tzitun.

Beste frutaik etzan emen ezautzen sasikeizan batzuk izan ezik. Jaiero etortzen tzan Agustiña naparra ta Zeamako mâts, pipar da tomatek arek ekartzen tzitun.

Etxek ematen tzona jaten tzan emen. Frutaik etzan, berduraik ê ez. Agustiña naparrak janarie zeozer aldatzen tzon Zeaman garai âtan.

*Nikolas Zabaletari 1993-4-8an jaso.*

Perretxikûk onak ala txarrak dien jakiteko, zartaiñen prejitzeakôn, zillarrezko txanpon bat bota bear tzâte. Zillarra bezten bâ, perretxikûk benenosôk die, bestela onak.

*Franzisko Azurmendiri 1980-8-9an jaso.*

Perretxikûk jan da geo ezta urik eran bear, txarra `a.

Perretxikûk gaitz ein diula konturautakôn, esnea eran bear da.

Batzûk, oligoa eratea re ona 'ala esaten due.

*Franzisko Azurmendiri 1980-2-6ean jaso.*

Gue basêrritan, kanpokoa etxea etortzen tzânen, kotxilloa ta ogie aurrên jartzen tzikon.

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

Garai batên gue etxêtan, eskalc'ati limosnea emateakôn eo pertsona 'ati zeozer eman bear tzikonên, ate-azpikoa zabaldûz emanten tzikon eman bear tzikona, etxeko sarrera guzie zâlik zeukela aierazîz.

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

Gue denborân,eskalêi artaburue ematen tzikon ate ondoa eskên zetorrenên.

*Prantxiko Zabala 1980-8-9an jaso.*

Muskar bat norbaitek akâtzen dôn en eurie eite' men do.

*Tomasa Agirrerri 1980-4-8an jaso.*

TXAKUR GAITZA. Batek mendiñ, txakurrek ure eran dôn lekûn ure eraten bô, txakur-gaitze arrapatzen do. Txakurrek, ure eraten dôn tokin, zomorro'at uzte' mendo, ta zomorro onek eraten dôna, sendatze' eztan gaitzên jabe eite' mendo.

*Prantxiko Berasategiri 1980-6-9an jaso.*

Katue manôkiñ arpegie garbitzen ai bâ, egoaldi txarra.

*Tomasa Agirrerri 1980-8-2an jaso.*

Katu beltza dôn etxên neska zârrik ez menda faltako.

*Joana Arakamari 1980-6-9an jaso.*

Maldiziôk norbait il daikê.

*Erramun Zabaletari 1980-6-9an jaso.*

Maldiziôk eta errezôk indar berdiñe due.<Batêz>

*Marzelino Lasari 1992-10-3an jaso.*

Euri eunên ezkontzen dien andra-gizonak, eztie zorionsûk izaten.

*Ramon Zabaletari 1980-9-10ean jaso.*

Segârrîk garai batên, oaingo arri txukun ôk azaldu aurreti, argorrîk izaten tzien, naiz segea naiz îtaie zorrozteko.

*Franzisko Azurmendiri 1981-4-8an jaso.*

Etxeko ure tuberîñ eamateko artzen tzan depositôn, ikatz pixka'at botatzen tzan, zeati botatzen tzuen eztaît, ure garbîgoa eon tzein zala re esaten tzuen.

*Tomasa Agirrerri 1980-3-8an jaso.*

Garai batên, anai zârrana elizâ jûten tzanên, gaztêgôk etxên geau bear izaten tzôn, elizân tzan anaie etxea etorri artên.

Zârrana etxea etôrtakôn, onen aprêtakiñ, gaztea jûten tzan elizâ.

*Jose Mari Arakamari 1977-6-1ean jaso.*

Txakur txikiaî lênao, bizkorrak eta salatîk izan tzeitzen, belarri puntâk eta buztana mozten tzitên.

Erabateko erretxiñek izaten tzien.

*Santiago Oiarbideri 1980-4-11an jaso.*

Perratxiku lekûk zerue ikûs bear do, orreati, arbolea bakan dôn lekûn izaten die perratxikûk. Euterea bâ obe. Ilgorân jaiotzen die perratxikûk illargîkin batea.

*Santiago Azurmendiri 1980-5-13an jaso.*

Lanbrôk xoxokumêi lumâk etâ ta indartzen dio, orreati esaten da lanbroa ai dônên, gaur xoxokumâk lumatzeko mûko egoaldie dô.

Xoxokumâk âpie intzêkiñ o lanbrôkiñ uzten due.

Egoi aizêkiñ âpîñ eoten die lozorrôn.

Zozoa ezta sekula âpia zuzenên janakin jûten. Apîñ ondoko arbolan gelditzen da ta andi îñor agiri 'an beitzen do.

Îñor ikuste'ezpô jûten da umêtâ.

Ziza lurrên belarra beltzagoa izaten da. Zizalekûk zelaietan îtai baten formea eukitzen due. Sûk ziza lekuko belarra o sasîk erretzen baitu, zizaleku artan betiko galtzen da zizea.

*Erramun Zabaletari 1980-6-9an jaso.*

## AIZKORRIKO AIZKENEKO OTSOA

Zârrak esaten tzuenez, Aizkorriñ zeren otsok trenbidea eiñ tzanen galdu mentzien. Trenbidekiñ bildurtuta beste leku 'atzuta jûn tzien nunbait. Trenbidea kruzatzen etziela atrebitzen esan oi zan.

*Santiago Oiarbideri 1980-3-9an jaso.*

Aizkorriñ, Aralarren da Urbasan otso bera ibiltzen tzan.

Bê laun danak, zepoz eo tiroz eroi zien, bakarra geau zan da iñok eziñ tzon tiroz bota. Eiten tzan aleiñe pranko bê atzeti.

Allatzen tzan lekun artzaioi ezurretañoko bildurre sartzen tziun. Otsok ardik jan bañio geio alperrik galtze' `itu. Ardiai ikutuik eite ezten otsok ê badare bañio odolea biziatzen dienak izaten die txarrak, eun baten sei eo zortzi ardi odolusten bâkie.

Aizkorriti Aralarra ibiltzen tzan aizkeneko otso au, ikus nôn nik eun baten.

Norbeit orbela zapaltzen ai zala iruitu zitan.

Atzea beitu nonen, sekulako otso tzârra neuken nereandi oso gertu.

Otsoa pikotxen neuri beira zion.

Nik amairun bat urte izango nitun. Otsoa ikustek eman tzien sustokiñ, eskuti maki-ilea eroi zitan, makillek orbeletan etâ zôn otsakiñ, otsok iges eiñ tzôn.

Naparroko Diputaziok amar milla peztako propiñea izentau zôn, otso au iltzen tzo-nandako.

Ameskuar eiztari 'at basaurden zai ziola, otsoa bertati pasatzea tokau zan, da danba ta anka z gora bota zôn otso ori.

Andi pixka 'atea basaurdea re leku bereti ta danba ta au ê lurrea.

Eiz eun ona tokau nunbait.

Diputaziok amar milla pezta eman tzion. 1913-ko urtea zan.

Eiztarik izena nola zon eztaut. Oso gizon txikie zan.

Otso onen atzeti, oei ta bost gizoneko taldea ibiltzen tzan eren txakur da guzti, etzuen botatzeko eraik izan.

Otsoa oso animali bizkorra 'a ta eskopetekiñ gizona ikusten bô, iges eiten dio azkar asko.

Otso au odolea biziata zion da bildurgarrizko pikardik eiten tzitun.

*Santiago Oiarbideri 1980-4-8an jaso.*

ERBIAN KONTUK. Erbiñ âpiti larrea dijonen anka markak uzte' `itu. Berak bâki eiztariai arrastoa utzi diela ta bueltakon kontra markak eiñez juten da âpia.

Kontra markak esen forman ibilliz eite' `itu.

Noizik beiñ, lau anka puntu 'aten juntau ta salto eiten do murkatxen batea. Beiz e kontra markatan ibilli, salto berri bat eiñ da sartzen da âpiñ.

Askotan âpi desberdiñetâ juten ê baki.

Erbik bâki usaie uzten dôla ta txakurrek usaiei seituz arrapau daikela.

Elurretan ê baki arrastok uzte``itula.  
 Txakurre engañatzeko eite``itu tranpa ok.  
 Arrasto danak seitu ta gero, arrastok lêngo leku berea eamaten due beiz ê. Aiñ nâsi uzte``itu ibilbidek.  
 Eiztarik âpi bat billau dueneako, beste 'atea iges eiten ê bâki.  
 Negue euteran pasatzen do ta udea laiotzen.  
 Udaberriñ eite``itu umek, aldiko bi.  
 Erbiri baban antz ematen tzako arra ala emea dan.  
 Babea meten eo arbolen ondoren eiten do.  
 Bat ilda bezela, begik itxita, erbik eindako kakan gañen bi anak zabalik ditula jar-tzen bâ, zuzenen datorren erbie baten anka arteti pasatzen da.  
 Erbie ezto usairik artzen ta moimentuti neurtze``itu gauzak.  
 Illuntzan do irtetzeko oiturea.  
 Erbie astoa don eo eoten dan tokia jotzen do.  
 Erbie etor deiñ astoa jartzen da leku jakiñ baten illargitan, erramolaxa ta arbie gusta-tzen tzako.

*Fermiñ Arakamari 1980-9-17an jasoa.*

ARTZAIA. Gure mendi eta ibarretan bizi den gizon bakarti hori nork ez du ezagu-tzen? Virgilio mantuatarak olerkietan aipatu zuen lehen aldiz. Geroagoko poetek milaka aldiz goratu duten gizona dugu. Kijotek bakarrik, ordea, artzai izateko asmo sendoa hartu zuen eta honek ere eroturik zegoela.

Artzaiaren bizitza gogorra eta etsia izan behar, nahi eta nahi ez, ogibide honen jabe-ak hamaika elur, antzigar eta euri jaso ditu bere gorputzean neguko egun motz asperga-rrietan.

Jarraian honen oitura eta jokabide batzuk.

ARTZAIEN JANA. Ezaututa gâre artzaiek oligoa galesti ziola ta etxaolân ullôk ein-dako arrautzea xeblebre asko prejitzen.

Zartâñên ure berotu bâtzurikiñ, ure irakiten asten tzanên bota arrautzea zartâñea ta ur beroa kutxarêkiñ oligoa bezela gañea ixuri arrautzei ta gero jaten ikûsta gâre.

Oaindi oeta amar urte arte artzaiek garagar-iriñêkiñ eindako ogie jaten tzuen, garññ ogie baño merkêgoa zala ta.

Artzaiek eunên bein jateko oiturea zuela esaten tzan.

Artzaiek ogie eiteko errotan garagarra igo ta talok iriñ onekiñ einda jaten tzituen.

*Rikardo Agirrerri 1979-6-2an jasoa*

ARTZAIAREN MAKILA. Artzaiek bê launik onâna makillea do. Ibiltzen ê, launtzen dio baño bakardade luzên bê arma bakarra re, makillea do.

Makillaz señalatzen die ardiai nundi noa ibilli.

Txakurrei ê makillaz aintzen dio einbearrak.

ARANTZA BELTZAREKIN. Antza beltza ilberân bota bear da, izardie moitu baño lên.

Alanbre 'atekiñ ondo biltzen da pitzau ezteiñ. Ordu bññ uretan egosten da, gero bas-toi formea artuko bô tornûn bueltea ematen tzako ta eunetan tornûn eukitzen da formea galdu eztezan.

Bein bastoi formea artzen dônên kristal batekin zuitzen da.  
Aranâkiñ ê makillea berdiñ eiten da.

SAGARRA. Iru ordûn egosten da sagarra, oso gôrra izaten da, ta ondo egosi bear da.

LIZARRA. Lizarra ordu ta erdiñ egostea naikoa 'a.

Ondo egositakôn oso errez doblatzen da.

Oker antzekoa bâ, ôl zâl da luze `atên, iltze `atzukin zuzen formea ematea oso erre-  
za `a, sekautakôn zuzen zuzen geatzen da.

GAZTAINA. Gaztiñea re ilberakoa izan bear do, ilberrikoa usteldu eiten da. Gaztiña  
adarrak ezto balio, autsi eiten da. Gaztiña ipurditi irtetzen dôn sestrakea bear do.

Makillea sutan berotu bear da bost minutûn gutxi gora bêra, gero tornûn bastoi for-  
mea ematen tzako.

Aizkenên sutan pasatzen da ta azala libratzen tzakonên, egurre askoz dotorêgoa gea-  
tzen tzako.

URRITZA. Urritzêkiñ eindako bastoia ikûsta nô, baño eztaik neuk eiten, borobiltze-  
kôn pitzau eiten tzat.

Urritzek bi klasetakôk dâre.

Zurík. Urtsoandi Otsârtea izaten die.

Beltzak. Ugarianak, nunai dâre Zeama guziñ.

Akulu mê mêak eiteko zurík ebaltzen die.

Oañ Uztân aldeti re ekartzen die makilla gai zurík.

Urritz zurík naiz beltzak, fruta igoala ematen due.

Urte 'aten Oñatia jûn bearra euki nô, galdu zikûn ardi 'at an tziola ta. Leazpi txarân  
sekulako urritz zurík zeren. Akulu `atzuk eaman bear nitûla etxea ta oeta amar bat artu ni-  
tûn. Oñatûn ze eskatzen nôn galdetzen tzian. Enitûn saldu.

Itzaiek akulu dotorea eaman nai izaten do ta akulu dotorea urritz zurizkoa izaten da.

Artzaiek ê makillea, geianên urritz zuriz eiten do.

*Erramun Zabaletari 1980-9-lean jasoa.*

## ZEGAMAKO ZENBAIT ESAERA, ESAALDI TA ATXOTITZ

Zaldik seguroana nork bê anak.

.....

Zozok belei ipurbeltz.

.....

Zu re etzâ gaztetan Jesus izana.

.....

Zikiñ atsa!

.....

Zu re inbidie partitu zuenen an izango ziñen.

.....

Zârrago ta txarrago.

.....

Zenbait buru ainbeste aburu.

.....

Nai dona esaten donak,nai eztona aitzen do.

.....

Nai don bezela aundie,aldon bezela txikie.

.....

Nork bere anakak ditu mandoik seguroanak.

.....

Norbeit iltzen dōnen,gauzak zazpi koloretan ikuste'meitu.

.....

Nik jantziko `itut emen prakak. Itxun erriñ tuertoa alkate.

.....

Ikusi deuna esan daikcu,ikusko deuna ez aik eta aua lurrez bete arten.

.....

Ikuste'ezton begik ezto near eiten.

.....

Eldu iok zapoi buztaneti.

.....

Ezkondu ezkie peztek erreal bi balio 'itu.

.....

Etxen txotxoloa ta kanpon gizona.

.....

Eroriz ikasten da oñez.

.....

Elur urtea gari urtea.

.....

Elorrie lorán dō,artoa eiteko giro dō.

.....

Eroa bustitzeko laiñ euri ai do. <Lanbro mēa ai donen>

.....

Alkarrekiñ ondo konpontzeko, alkarreandi urruti.

.....

Andra ona galdu zōnak eztaki ze billau zōn.

.....

Begi bitako argie kostá zat.



## LABURDURAK ETA IKURRAK

#	Hitz amaiera
Ø	Bilakaera hauetan, bokala edo kontsonantea galdu egiten dela adierazten du
*	berreraikuntzarako edo bestela asmatua: dokumentatu gabea, baina gerta litekeena
A	aditza
Abl.	Ablatiboa
Abs.	Absolutiboa
Adl.	Adlatibo
arg.	argitaraldia
ASJU	Anuario del Seminario de Filología Vasca (Julio de Urquijo)
C	Kontsonantea
Dat.	Datiboa
Dest.	Destinatiboa
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
Erg.	Ergatiboa
etab.	eta abar
eusk.	euskaraz
gazt.	gazteleraz
Gen.	Genitiboa
h.d.	hau da (latinezko <i>id est</i> )
hh.	hurrengo urteak
i	<i>i</i> bokala
Ines.	Inesiboa
Instr.	Instrumentala
IS	Izen Sintagma
Iz.	izena
izond.	izenondoa
j	<i>i</i> bokalerdia
L.gen.	Leku genitiboa
lat.	latinez

mend.	mendebaldean
Mot.	Motibatiboa
orok.	orokorra
orr.	orrialdeak
Part.	Partitiboa
RIEV	Revista Internacional de Estudios Vascos
Soz.	Soziatiboa
top.	toponimo edo leku izena
V	bokala
V <sub>1</sub>	bilakaera jakin batean, kontuan hartzen den 1. bokala
V <sub>2</sub>	bilakaera jakin batean, kontuan hartzen den 2. bokala
zb.	zenbakia

## BIBLIOGRAFIA

- AREJITA, Adolfo, 1992, *Euskal Joskera*, Leopoldo Zugaza, Durango.
- AZKARATE, Miren, 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*, Donostia, Mundaiz.
- AZKUE, Resurrección María de, 1923-25, *Morfología Vasca*, (1969), Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- AZURMENDI, Xabier, 1992, «Zegamako 'kontuk'», *Egan*, 165-188.
- 1993-1, «Zegamako 'kontuk'», *Egan*, 151-188.
  - 1993-2, «Zegamako 'kontuk'», *Egan*, 155-172.
  - 1994-1, «Zegamako 'kontuk'», *Egan*, 185-207.
  - 1997-a, *San Adrian eta inguruen Kondaira*, Lazkao 1996, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
  - 1997-b, *Atzoko Zegama*, Eusko-Ikaskuntza & Zegamako Udala, Donostia.
- AZURMENDI, Joxe Migel, 1997, *Ataungo euskara*, Lazkao 1996, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- BÄHR, Gehrard, 1926 hh., «Estudio sobre el verbo guipuzcoano», *RIEV*.
- EUSKALTZAINDIA, 1985-, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*, (EGLU) Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakunak*, Bilbo.
- GOIEKI, 1996-97, «Zegamako gogoeta estrategikoaren azterketa», argitaratu gabea.
- IZAGIRRE, Cándido, 1967, «Altsasuko euskeraren gai batzuk», *ASJU*, 1: 45-95.
- LAKARRA, Joseba Andoni, 1983, «Oharrak zenbait arkaismoz», *ASJU*, 27: 41-68.
- 1984, «Bizkaiera zaharreko ablatiboa», *ASJU*, 28-1: 161-194.
  - 1986, «Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean», *ASJU*, 30-3: 639-681.
- MITXELENA, Koldo, 1961, *Fonética Histórica Vasca*, 2. arg., zuzendua eta hobetua, 1977, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 1980, «Las antiguas consonantes vascas», *Miscelánea Homenaje a A. Martinet*, D. Catalán ed., La Laguna, 1957, I: 113-157.
  - 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo, Donostia.

- OÑEDERRA, Miren Lourdes, 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa, Asimilazioa eta Hots-sinbolismoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PÉREZ GAZTELU, Elixabete, 1995, *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea*, Erretereriako Udala, 2 liburuki.
- VARII, 1978, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, 3. arg., 4. liburukia, Editorial Auñamendi, Estornes Lasa Hnos., Zarautz.
- VARII, 1985, *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Gipuzkoka*, Haranburu Editor, 2. liburukia.
- VARII, 1995, *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 8. liburukia, Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia.
- VILLASANTE, Luis, 1979, *Sintaxis de la oración compuesta*, Aranzazu, Oñate.  
– 1980, *Sintaxis de la oración simple*, Aranzazu, Oñate.
- YRIZAR, Pedro de, 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- ZUAZO, Koldo, 1988, *Euskararen batasuna, Iker-5*, Euskaltzaindia.  
– 1988, «Bizkaieraren ezaugarriez gehiago», *ASJU*, 22-2: 367-377.  
– 1989a, «Arabako euskara», *ASJU*, 23-1: 3-48.  
– 1989b, «Zubereraren sailkapenerako», *ASJU*, 23-2: 609-650.  
– 1994, «Burundako hizkera», *Euskal Dialektologiako Kongresua*, *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zb., 297-364.

## MAPA

- DEL BARRIO, L., ZALDUA, L. (ETNOGINTZA), 1997, *Zegamako mapa*, Zegamako Udala.



**JOSE MIGEL AZURMENDI ALBIZU**

1954ko azaroaren 26an Beasainen jaioa.

EHUko Gasteizko Fakultatean Euskal Filologian  
Lizentziatua.

## GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLAREN ARGITARAPENAK

### GERRIKO Liburu-Saila

1. *Astez Aste. Alfabetatzeko*  
Egileak: Testua: G.E.E.  
Azala: Joxe Mari Telleria  
Editorial PAX Argitaletxea. Lazkao, 1979
2. *Ahaide Nagusiak*  
Argazki Hitza. Ikus-entzunekoa  
Testugilea: J.A. Leunda  
Itzulpen eta osagarriak: G.E.E.  
Marrazkigilea: J.M. Telleria  
Eragilea: G.E.E. - Lazkao  
Inprimatzailea: Anaitasuna - Usurbil  
Argitaletxea: PAX - Lazkao
3. *Euskal Kanta Xorta*. 1981
4. *Euskal Aditza. Alfabetatzeko*  
1982 G.E.E.  
Egileak: J.M. Aranburu, D. Amundarain, P.J. Aranburu, M. Bidegain, A. Idiakez, M.A. Maiz.  
Gráficas Lizarra, S.A.
5. *Ixtorioa Moldatu-1. Eskolumeak txori-kabia bila*  
G.E.E. 1982
6. *Baserri zaharra*  
Baserri-tresnak. G.E.E.
7. *Goiherrin kalea euskaldundu-1*  
G.E.E. 1984
8. *Aditz Ariketak I. Indikatiboera. Euskalduntzeko*  
G.E.E. 1985. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Beneditarrak - Lazkao
9. *Aditz Ariketak II. Baldintzera, ahalmenera, menpekoak, beste batzu*  
G.E.E. 1986. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
10. *Esaldi konposatuak. Koordinatuak, menpekoak, beste batzu*  
G.E.E. 1987. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
11. *Deklinabide Ariketak*  
G.E.E. 1988. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
12. *Esamoldeak*  
G.E.E. 1989. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Aralar - Ordizia
13. *Hizkuntz Ordezkapenaren Nondik-Norakoak Goierrin*  
G.E.E. 1992. Editorial GERRIKO Argitaletxea. Antsoategi, S.A.  
Inprimategia: Beneditarrak - Lazkao